# Goienkaria

2009ko martxoaren 27a > Egubakoitza > IX. urtea > 370. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net



"Elikagai subiranotasuna kontsumitzen duguna aukeratzeko eskubidea da"

**Jesus Romero**
Aditua sukaldaritza energetikoan > 09

**G2a** **Ama Say taldeak kontzertua Bergaran** > 37

**ARRASATE**
**Etxe hutsak merkaturatzeko programak gora egin du** > 15

**EKONOMIA**
**Bergarako Arcelor: langileak Zumarragara joatearen aurka** > 07

**KIROLA**
**Ez dago faboritorik domekan egingo den Gorlako igoeran** > 35

**ZERBITZUAK** > ZABORRA

## Zabor bilketa tasa %20 inguru igoko da uztailaren 1etik aurrera

**ARRAZOIA** Zerbitzuaren parte bat Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak egingo du, eta hari ordaintzeko igoko da

**PROPOSAMENA** Egoera berriaren aurrean udalei Mankomunitateak egindako proposamena da igoerarena

**UDALAK** Eurek erabakiko dute igoera aplikatzen duten ala ez eta igoera hori zenbatekoa izango den > 05

**POLITIKA** > EUSKAL PRESOAK

## Lau debagoiendar auzipetuta

Garzonek ezker abertzaleko 44 lagun auzipetu ditu asteon, ETAkoak izatea egotzita. Lau bailarakoak dira: Ino Galparsoro Arrasateko alkatea eta Mikel Zubimendi, Aittor Arantzabal eta Mikel Garaiondo bergararrak. > 05

## "Etxean erditzea, esperientzia polita izateaz gain, oso gogorra ere bada"

Paloma Martinez eta Oier Etxebarria aretxabaletarrek Siro semea etxean izan dute orain dela hiru aste. Martinezen esanetan, oso esperientzia polita da, baina, aldi berean, oso gogorra ere bada.

Etxean erditzen dutenen kopurua gora badoa ere, EAEn zerbitzu hori eskaintzen duten emaginak sei bakarrik dira. Horietako bik Debagoienean egiten dute lan: David Morenok Arrasateko ospitalean eta Blanca Barriok Aretxabaletako osasun etxean. Morenok etxean erditzearen gaineko argibideak eman ditu.> 02-03



Paloma Martinez eta Oier Etxebarria aretxabaletarrak, Maia eta Siro txikiarekin. MIRIAN BITERI

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-06
**Iritzia** > 08
**Elkarrizketa** > 07
**Gutunak** > 10
**Herriak** > 13-33
**Kirola** > 34-36
**Kultura** > 38-39
**Sailkatuak** > 40
**Gazteak** > 42
**Telebista-Irratia** > 43
**Berri-zakua** > 45
**Eskelak** > 45
**Non-zer** > 46-47




Alberto Ilurrategi. GOIENKARIA

**KIROLA** > MENDIA

## Alberto Iñurrategi, Makalura

Astelehenean abiatuko da Makalu mendebaleko pilaretik igo gura duen espedizioa > 34

## Ezkontzen gaineko gehigarria

GOIENKARIArekin batera 16 orriko gehigarria ezkontzei buruz, dena koloretan.




## Ordu aldaketa

Udako ordutegia estreinatuko dugu zapatuan: goizeko **ordu bietan hirurak** izango dira. Ez ahaztu!





Siro etxean jaio zen martxoaren 7an; irudian, umea etxeko egongelan lo Paloma amaren besoetan, Oier aita eta Maia arreba ondoan dituela. MIRIAN BITERI

**JAIOTZAK** > ETXEAN ERDITZEA

# "Esperientzia polita izateaz gain, oso gogorra ere bada"

**BI ASTEKO HAURRA** Oier Etxebarria eta Paloma Martinez aretxabaletarrek Siro semea etxean izan zuten orain dela bi aste; primeran daude ama eta semea

**SEI EMAGIN** Gaur egun etxeetara joaten diren sei emagin baino ez daude Euskal Autonomia Erkidegoan; sei horietako bik Debagoienean egiten dute lan

**1.600 EURO** Zerbitzu osoak egun 1.600 euro balio du; emakume bakoitzarekin haurdunaldiko azken bost asteak ematen dituzte emaginek guardian

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Adierazpen horiek Paloma Martinezenak dira. Joan den martxoaren 7an ama izan zen bigarrenez. Baina aurreko eta oraingo erditzeek ez dute zerikusirik izan. Lehenengo umea, Maia, Arrasateko ospitalean jaio zen, eta haren nebak, Sirok, etxean ikusi zuen argia.

Maiaren jaiotza arazo barik gertatu zela azaldu du Palomak. Baina bigarrenez haurdun geratu zenean, Mexikoko lagun batek jakinarazi zion berak umea uretan izan zuela, eta erditzeen gaineko hainbat liburu gomendatu zizkion, Siroren jaiotza presta zezan. Informatu egin zen eta orduan konturatu zen Maiaren erditzean izandako hainbat egoerarekin ez zegoela ados.

**EMAGINEN IRIZPIDEAK**

Gogorarazi du ospitalera goizaldean iritsi zirela: "Orduan zegoen emaginak dena primeran zihoala esan zigun: dilatazioa ondo zihoala, epiduralik ez nuela behar eta poltsa ez zutela apurtu behar. Baina, 08:00etan, txanda aldatu zen eta orduko emaginak esan zuen poltsa apurtu behar zela eta oxitozina jarri behar zidatela. Ezagutzen ez nituen profesionalek gidatu zuten prozesua".

Maiaren erditzearekin ez zeudela konforme ikusita, bikotekidea ere, Oier Etxebarria, umea etxean edukitzeko aukeraz informatzen hasi zen: "Hasieran, beldurtu egin nintzen: igogailurik ez duen laugarren solairu batean bizi gara eta arriskuek beldurtu egiten ninduten. Paloma ni baino seguruago zegoen. Informazioa jasotzen hasi nintzen, eta, dena behar bezala joaten bada eta prestatuta egonez gero, aukera onena dela iruditzen zait orain".

Palomaren eta Oierren iritziz, Siroren erditzeak ez zuen aurrekoarekin zerikusirik izan. Palomak hauxe dio: "Nire etxean nengoen eta nahi nuena egiten nuen; gorputzak eskatzen zidanean mugitzen nintzen; ospi-

## "Lehenengo umearekin igarotako minutu bakoitza gogoan dut oraindik"

Amaia Agiriano aretxabaletarrak ekain erdialderako espero du bigarren haurra. Lehenengoa etxean eduki zuen eta orain esperientzia errepikatu gura du. Agirianok "lasai asko eta buelta eman barik" hartu zuen etxean erditzeko erabakia, "betidanik" pentsatu du-eta dena ondo baldin badoa, behintzat, gauza normala dela: "Edozein arazo sortzen bada, ospitaleak hortxe daude eta askotan, hara joateko beharra daukazu".

Etxeak ospitaleek ematen ez duten "lasaitasuna" eskaintzen duela dio. Horren harira, aurreko umearekin bizi izandako esperientzia "oso polita" izan zela azpimarratu du: "Oraindik gogoan dut lehengoarekin igarotako minutu bakoitza. Nik uste dut haurrak berak badakiela zelan jaio behar duen. Gauzak poliki-poliki pasatzen utzi eta natural iritsi zen umea". Bigarrenarekin dena berdin joatea espero du: "Etxean edukitzeko asmoa daukat, baina inoiz ezin duzu jakin; edozer gerta daiteke".



Amaia Agirianok ekainerako espero du bigarren umea. MIRARI ALTUBE

talean, berriz, ezin nintzen jaiki. Gainera, Aretxabaletan eskolak ematen dituen emaginarekin egon nintzen, eta horrek asko laguntzen du. Azpiegiturei dagokienez, egongelan koltxoneta jarri genuen, besterik ez".

Bestalde, Oierrek dio Maiaren jaiotzan "ikusle soila" sentitu zela: "Etxean ere ikuslea naiz, baina ondo- ondoan nago. Gainera, Siro jaio eta emaginak berehala jarri zidan umea besoetan eta zilborhestea nik moztu nuen".

**MINUTU ESKASA BESOETAN**

Palomak gaineratu du, horren harira, Maia jaio zenean minutu eskasa izan zuela alaba besoetan eta jarraian eraman egin zutela: "Berriz ekarri zidaten arte, oso luzea egin zitzaidan tarte hura. Gainera, biak jantzita eta garbi geunden orduko. Amaren eta alabaren arteko gertutasun hori ez da horrenbeste sentitzen. Sirorekin, Oierrek umea eman zidanetik ez ginen berriz banandu".

Beste ume bat izango balute ziurrenik etxean izango zutela aipatu dute biek. Palomak azaldu duenez, "oso esperientzia polita da, baina, aldi berean, gogorra ere bada. Maia zelan irten zen ez nuen igarri; Siro, berriz, bai. Aurrera egiten zuen milimetro bakoitzean sentitu nuen, eta oso gogorra da. Horregatik ez nintzateke ospitalera joango".

**EMAGINAREN LANA**

David Moreno bizkaitarrak oso ondo ezagutzen ditu umea etxean edo ospitalean izatearen arteko aldeak. Debagoieneko ospitalean emagina izateaz gain, etxetara ere joaten da. Lau urte daramatza azken horretan jarduten. Morenoren esanetan, emakumeak dira profesionalekin harremanetan jartzen direnak: "Guk ez dugu publizitaterik egiten. Nork bere bideak ditu gurekin harremanetan jartzeko".

Nahi izanda ere, eurengana jotzen duten emakume guztiak ezin dituztela hartu dio. Izan ere, azkenaldian eskaerak nabarmen egin du gora, eta emagina emakume kopuru zehat batez ardura daiteke hilero. Morenoren arabera, normalena bi edukitzea da.

**SEI EMAGIN BAKARRIK**

Gaur egun etxeetara doazen sei emagin baino ez daude Euskal Autonomia Erkidegoan: lau Bizkaian eta beste bi Araban. Paloma Martinezek, esaterako, Leintz bailarako Blanca Barrio emagin arabarra izan zuen ondoan. Morenoren esanetan: "Oso jende gutxi gaude eta hilero norbaiti ezetz esan behar diogu. Euskal Autonomia Erkidegoan ibiltzeaz gain, Nafarroan eta Burgosen ere ibiltzen naiz".

Emakume bakoitzarekin bost aste inguru egoten dira. Erditzea baino lehen, bitan batzen dira emagina eta haurdun dagoen emakumea. Lehenengoa elkar ezagutzeko eta egon daitezkeen zalantzak argitzeko egiten da, haurdunaldia erdialdean dagoenean. Bigarrena haurdunaldia 37. astean dagoenean egiten dute, emakumearen etxean; horretan, dena ondo doala eta arrisku-faktorerik ez dagoela baieztatzen da.

Horren harira, emakumeek jakin behar dute erditzea etxean izan ahal izateko nahitaezko oinarrizko hainbat baldintza bete behar dituztela: amak, lehenik eta behin, ez du osasun arazorik izan behar, hala nola tentsio altua edo diabetesa. Umeak ere osasuntsu eta modu jakin batean egon behar duela dio emaginak: "Esaterako, ipurmasailez ez du egon behar eta bikiak ere ezin dira izan; horrez gain, plazentak ondo kokatuta egon behar du eta jaioberriak ez du pisu txikia izan behar".

**%15 OSPITALERA**

Bikoteak, gainera, oso argi izan behar du umea etxean izan nahi duela, eta etxeak, gehienez, ospitaletik ordu erdira egon behar du. Horren harira, kontuan hartu behar da etxean erditzea erabakitzen dutenen %15 ospitalera joan behar duela. Azkenik, erditzean, profesionalak egotea ezinbestekoa da.

Emaginek ez dute ikastaro berezirik egin behar. Edozein emagin bezala, erizaintzaren barruan emaginen espezialitatea egina izan behar dute. Emakume batez ardURATU aurretik, beste emagin batekin joango da erditzeetara. Horren harira, Morenok aipatu du etxean ez dutela ezer berezirik egiten: "Ospitale batean baino lan gutxiago daukagu etxean. Emakumeari laguntzeko gertu egon behar dugu. Minari aurre egin ahal izateko beste metodo batzuk aplikatu behar dira. Kontuan hartu behar da epiduralik ez dela ematen".

**BI EGUNEKO ERDITZEAK**

37. astetik 42. aste bitartera guardian daude emaginak. Erditzear dagoenean, emakumearen etxera joaten dira: "Batzuetan, iritsi eta handik ordu gutxi batzuetara jaiotzen da umea; baina, beste batzuetan, bi egun ere pasa behar izan ditugu han". Dena ondo irtetez gero, hurrengo egunean bisita egiten dute. Zerbitzu osoak 1.600 euro balio du.

Moreno ere bat dator ospitalean edo etxean erditzea ezberdina dela esaten dutenekin. Erditzea ez da aldatzen, baina etxeko giroa "erabat ezberdina" da: "Emakumeak agintzen du han. Bikotea erosoagoa sentitzen da ospitalean baino. Gu dena ondo doala baieztatzeko gaude".

BETE BEHARREKO BALDINTZAK

**> ZALANTZA BARIK**
Bikoteak oso argi eduki behar du umea etxean izan nahi duela; zalantza zantzurik ikusiz gero, emaginek atzera bota dezakete eskakizuna.

**> OSPITALETIK GERTU**
Erditzea izan behar den etxeak, gehienez, ospitaletik ordu erdira egon behar du.

**> AMA ETA UMEA ONDO**
Konplikaziorik egon daitekeela aurreikusten badute ere, eskaria ez da onartzen. Amak ez du osasun arazorik izan behar; tartean, tentsio altua edo diabetesa. Umeak, bestalde, osasuntsu eta ondo kokatuta egon behar du. Bikien haurdunaldiak ez dituzte onartzen emaginek.

**> PROFESIONALEZ LAGUNDUTA**
Emakumeen etxean profesionalek egon behar dute.

**"Hasieran, beldurrez nengoen: igogailurik ez dugu, laugarren solairuan bizi gara eta arriskuek beldurtu egin ninduten; orain, berriz, aukera onena dela iruditzen zait"**

**"Ospitalean, Maia berriz ekarri zidaten arte oso luzea egin zitzaidan; amaren eta alabaren arteko gertutasun hori ez da hainbeste sentitzen"**

DEBAGOIENEKO OSPITALEA

## Erditze naturalerako gela ospitale berrian

Debagoieneko ospitale berrian erditze naturala egin ahal izateko gela berezia jarriko dute. Horrekin, erditzeko momentuan emakumearen protagonismoa bultzatu gura da, eta ez, orain arte bezala, medikuarena. Erditzeko momentua biguntzeaz gain, botika gutxiago ematea du helburu.

**BAINERAK, ETA MEDIKU BARIK**

Gela berri horretan, emakumeak berak gura duen pertsonez inguraturik egoteko aukera izango du. Gainera, erditze momentuan emakumeak izan dezakeen minari aurre egiteko, emakumeari botikak eman beharrean bainerak jarriko dira. Beharrezkoa ez bada, ez da medikuaren parte-hartzerik egongo; emagina egongo da.

**LEHENENGOA**

Gasteizko Legebiltzarrak ezlegezko proposamena onartu zuen iaz Debagoieneko eta Bilbo ezkerraldeko ospitaleetan erditze naturala egin ahal izateko gelak jartzeko, PSEk proposatuta. Zerbitzu hori eskaintzen duten Osakidetzako lehenengo ospitaleak izango dira bi horiek.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Martxoko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Kuota: 40 euro

SARRERAK
Bruesa GBC- MTT Estudiantes partidurako sarrerak.
BIDALI AG BRUESA 5533 zkra

ZIRA

Euskal Kirol Federazioaren zira.
BIDALI ZIRA 5533 zkra.

LIBURUAK

Pamiela argitaletxearen umeentzako liburuak.
BIDALI AG LIBURUAK 5533 zkra

KAMISETAK

Korrika-ko 4 kamiseta.
BIDALI AG KORRIKA 5533 zkra.

SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
URDAIBAIKO URRESTI LANDETXEAN GAU BAT

www.toprural.com/urresti
Benetako landetxea Urdaibaien!
Taldeentzat %10-eko deskontua

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com




Mundukideko kideak eta gonbidatuek martitzenean aurkeztu zuten aurtengo Truke Programa Huhezin. TXOMIN MADINA

**KOOPERATIBISMOA** > MUNDUKIDE

# Mundukideren Truke Programak 10 urte beteko ditu aurten

Aurreko urteetan hemen izandako 10 partaide etorriko dira berriro ere, Amerika eta Afrikatik

12 egunez kooperatiben esperientzia ezagutuko dute, eta apirilaren 3an joan egingo dira

**NEREA MENOR** > BERGARA

Hamar urte beteko ditu aurten Mundukide Fundazioak urtero antolatzen dituen Komunitate Garapenerako Esperientzien Truke Programak. Hori ospatzeko, martxoaren 23tik apirilaren 3ra Truke Programa berezia antolatu nahi izan dute: aurreko urteetan parte hartu duten gonbidatuetako batzuk etorriko dira. Egun horietarako, hainbat ekintza eta ekitaldi antolatu ditu Mundukidek: "Kooperatibetara bisitak, tertuliak, irteerak..." . Programaren helburuetako bat parte hartzaileek kooperatiben esperientzia ezagutzea da.

**LAU HELBURU**

Lankidetzan oinarrituriko hartuemanak bultzatzen ditu Truke Programak: "Bereziak diren eredu gizakoiagoetara bideratuko gaituzten elkar trukaketetan ikasiz eta irakatsiz", dio Mundukidek. Programak lau helburu ditu: lehenengoa, ebaluaketa. Parte hartu dutenen artean esperientzia hori ezagutzeak euren errealitatean izan duen inpaktua neurtzea; bigarrena, kooperatibak, kooperatibistak, unibertsitateko ikasleak, bailara eta Euskal Herriko jendartea gizarteratu, motibatu eta sentsibilizatzea; hirugarrena, kohesioa lantzea Mundukidek eta Lankik bultzatzen duten Interkooperazio Sisteman parte hartzen duten eragileen artean; azkeneko helburua da hamargarren ediziora heldu izana ospatzea.

**AURTENGO GONBIDATUAK**

Beka horietarako hautagaiak Hirugarren Munduko komunitate-garapenarekin konprometituak dauden pertsona garrantzitsuak dira: komunitateetako, erakundeetako, herri-entitateetako eta komunitate indigenetako arduradunak edo esperientzia horien inguruko formaziodun pertsonak. Aurtengo gonbidatuak: Angeles Lopez (Mexiko), Moises Portillo (El Salvador), Emilio Rodriguez Peñate (Kuba), William Ramirez (Ekuador), Victoria Rafael (Mozambike), Gilberto Blanco (Kuba), Carmen Magdalena Campos (Mexiko), Arnaldo Liberato (Brasil), Valcir Ramiro de Oliveira (Brasil) eta David Efren Salazar (Ekuador) dira. Guztiak ere Debagoienean izan dira aurretik.

DATUA

**10**

GONBIDATU

Debagoienean lehen ere Truke Programan egondako 10 kide egongo dira aurten. Mexiko, Brasil, Kuba, Ekuador, El Salvador eta Mozambiketik datoz.

ESANAK

"Truke Programak eta izandako esperientziek asko lagundu digute sortu dugun kooperatibako arazoak konpontzen"

**Victoria Rafael** > Mozambike

"Hemen, baliotsua den zerbait ikasi dugu: elkartasuna; baita pertsonak eta lana gehiago baloratzen ere"

**David Efren Salazar** > Ekuador

**POLITIKA**

## Batzar Nagusietako autobusa gurean

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Gipuzkoako Batzar Nagusiek *Gipuzkoa oinarri, Gipuzkoa helburu* kanpaina ibiltaria abiarazi dute herririk herri. Autobus ibiltaria eguaztenean, apirilaren 1ean, helduko da Debagoienera. Hain justu ere, Elgetara. Apirilean, maiatzean eta ekainean ibarreko gainerako herrietan egongo da, Leintz Gatzaganizan ezik. Beheko taulan daude datak eta ordutegiak zehatz-mehatz.

**BIDEO LABURRAK**

Gipuzkoako Batzar Nagusien jarduna eta funtzionamendua azalduko dute bideo laburren bitartez. Autobusak telebista pantaila handia eta 12 ordenagailu izango ditu. Horietan, bisitariek, hainbat jarduera ludikoren bidez, Foru Kamara ezagutu ahalko dute barrutik.

### Autobusa herririk herri

**Elgeta**
Apirilak 1 eta 2: 09:30-14:00 16:00-19:30.

**Arrasate**
Maiatzaren 3tik 9ra: 09:30-14:00 eta 16:00-19:30.

**Eskoriatza**
Maiatzaren 10etik 14ra: 09:30-14:00 eta 16:00- 19:30.

**Oñati**
Maiatzaren 18tik 25era: 09:30-14:00 eta 16:00-19:30.

**Aretxabaleta**
Maiatzaren 25etik 30era: 09:30-14:00 eta 16:00-19:30.

**Bergara**
Ekainaren 1etik 6ra: 09:30-14:00 eta 16:00-19:30.

**Antzuola**
Ekainaren 7tik 11ra: 09:30-14:00 eta 16:00-19:30.




GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
APIRILAK 25 - 11:00 larunbata MAIATZAK 7 - 17:30 osteguna
ARRASATE-MONDRAGÓN AULA MAGNA Tel.: 943 73 96 29 // bguerenu@eps.mondragon.edu
MARTXOAK 28 - 11:00 larunbata
ORDIZIA AULA MAGNA Tel.: 943 88 00 62 // eurkia@goierrieskola.org
ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA
APIRILAK 4 - 10:00-13:00 larunbata
OÑATI AULA MAGNA Tel.: 943 71 80 09 // cgarate@eteo.mondragon.edu
APIRILAK 2 - 18:00 osteguna
IRUN AULA MAGNA Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu
HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
APIRILAK 23 - 18:00 osteguna
ESKORIATZA AULA MAGNA Tel.: 943 71 41 57 // sarrera@huhezi.mondragon.edu

**MANKOMUNITATEA** > ZABOR ZERBITZUA

# Zabor bilketa tasa %20 igotzea proposatu du Mankomunitateak

Tasaren igoera Mankomunitateak proposatu du; gero, udal bakoitzak erabakiko du zer egin

Mankomunitatearen asmoa da Akeiko transferentzia planta itxi eta Epelen berria egitea



Akeiko transferentzia planta ixtea da Mankomunitatearen asmoa. GOIENKARIA

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA
Mankomunitateak zabor bilketa tasa %20,1 igotzea proposatu du. Orain, udal bakoitzak erabaki beharko du igoera aplikatzen duen eta hura zenbatekoa den. Hala ere, igoera bigarren seihilekotik aurrera izango da; hau da, uztailaren 1etik aurrera.

"Uztailetik aurrera Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak egingo du hondakinen transferentzia eta zabortegirainoko garraioa. Mankomunitateak ordaindu egin beharko dio partzuergoari; hortaz, maila horretara iristeko guk ere tasak igo egin beharko ditugu", azaldu du Pedro Lasagabasterrek, Mankomunitateko Ingurumen arduradunak.

**HITZARMENA, MAHAI GAINEAN**
Mankomunitatearen ohiko batzarrean, mahai gainean geratu zen Akeiko transferentzia planta erabiltzeko Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa elkartearekin sinatu beharreko hitzarmena. Pedro Lasagabasterrek adierazi du GHKk ez zuela "adostutakoa aurkeztu"; baina borondatea badagoela eta hurrengo bileran sinatuko dutela "hitzartutakoa".

Gainera, Mankomunitatearen asmoa da Akeiko transferentzia planta itxi eta Epelen berria egitea. Epeleko planta Bergarako lurretan egongo da; horregatik, Bergarako plan orokorra egin arte itxaron beharko du Mankomunitateak Epeleko planta zabaltzeko.

DATUA

**125**
EURO TONAKO

Akeiko plantara ekoizle handiek ere eramaten dute zaborra. Horiek tonako diru kopuru bat ordaintzen dute. Orain arte, 84,6 euro tonako; uztailetik aurrera 125,7 euro tonako ordainduko dute.

**GARBIGUNE BERRIA**
Bestalde, beste garbigune bat finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetza hitzarmena sinatu du Mankomunitateak. Horren arabera, 288.000 euro jasoko ditu Mankomunitateak garbigunea eraikitzeko. Aretxabaleta eta Eskoriatza bitartean egitea da asmoa, baina Lasagabasterrek dio gaur egungo egoera ekonomikoa ez dela ona: "Guri interesgarria iruditu zaigu proposamena; Mankomunitateko laugarren garbigunea izango litzateke, baina hori egiteak kostu batzuk ditu, eta hori aztertzen ari gara".

Beste aukera bat Garbigune txikia egitea izango litzateke. Azkenean, ezer egingo ez balitz, Mankomunitateak ez luke jasoko adostutako diru kopurua.

**AZPIEGITURAK**

## Jendearen konpromisoa lortu nahi dute AHT gelditzeko

'Euskal Y'-aren "aurkakotasun sozialaren aniztasuna" ikusarazi nahi dute

N.M. > BERGARA
Datozen asteotan, *AHTren aurka, aurpegia eman!* kanpaina jarriko du martxan AHT Gelditu! Elkarlanak, "proiektu hau gelditzeko konpromisoa duten ahalik eta pertsona gehienen argazkiak jaso eta AHTren aurkakotasun sozialaren aniztasuna ikusarazteko formula gisa". Astebete barru *www.nikere-ahtgeldituko dut.org* webgunea jarriko dute martxan. Bertan, kanpaina horrekin loturiko hainbat herri eta hiritan aurreikusitako ekimenen berri emango da. Era berean, gizarteko sektore ezberdinei deialdia zabaldu nahi diete, "inposizioaren eta zentzugabekeriaren aurka aurpegia eman dezaten".

**MANIFESTAZIO NAZIONALA**
Datorren maiatzaren 9rako manifestazio nazionala antolatu du Elkarlanak Iruñean.

Elkartearen arabera, UPN eta PSN alderdiek AHT Nafarroan barrena egiteko finantzazioa aurreratzeko akordioa egin dute. Ondorioz, azpiegituraren finantzazioari buruzko polemika sortu da.

**POLITIKA** > EZKER ABERTZALEA

# Garzon epaileak lau debagoiendar auzipetu ditu ETAko kide izatea leporatuta

Mikel Zubimendi, Mikel Garaiondo eta Aittor Arantzabal kartzelan daude; Ino Galparsoro Arrasateko alkateak hedabideen bitartez jaso zuen albistea

A.E. > BERGARA
Batasuneko, EHAK-ko eta EAE-ANVko 44 lagun auzipetzeko erabakia hartu du Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaile Baltasar Garzonek. Auzipetutako 44 lagun horietako lau dira Debagoienekoak: Ino Galparsoro Arrasateko alkatea eta Bergarako Mikel Zubimendi, Mikel Garaiondo eta Aittor Arantzabal. Guztiei egozten die ETAko kide izatea. Zubimendi, Garaiondo eta Arantzabal kartzelan daude. Izan ere, guztira 34 dira gaur egun kartzelan dauden auzipetuak.

522 orriko autoak dio Batasuneko mahai nazionalak Eusko Abertzale Ekintza eta EHAK alderdi politikoak "erabili" dituela ETAk diseinatutako "delituzko ekintzarekin jarraitzeko". Epaileak gaineratzen du alderdi horiek instituzioetan zeudela baliatuta Batasunak erakunde terroristaren sare politikoa mantentzeko baliabide ekonomikoak lortzen zituela.

**BATASUNEKO MAHAI NAZIONALA**
EHAK eta EAE-ANVri dagokienez, berriz, Garzonek dio ETAk ez dituela bi alderdi horiek Aralar edo Abertzaleen Batasuna bezala tratatu. Eta horrek frogatzen duela Batasunaren eta bi alderdi horien arteko harremana.

Beste alde batetik, Garzonek bere autoan azaltzen du inflexio puntua 2006ko apirilean kokatzen dela; epailearen esanetan, orduan eratu zen Batasuneko mahai nazional berria. Hori horrela, 2007ko urrian Olaberrian eta Seguran izandako polizia operazioak ere aipatzen ditu Garzonek auto berrian.

Auzitegi Nazionaleko epaileak adierazi du 47 auzipetuak apirilaren 13tik 20ra bitartean deituko dituela banan-banan deklaratzera.

ESANAK

**"Batasuna, EHAK eta EAE sumario berean sartzeak erakusten du ezker abertzalearen kontrako kanpainan dena nahasten dela"**
**Ino Galparsoro** > Auzipetua

**GALPARSORO, EZUSTEAN**
Arrasateko alkatearekin izan gara: albistea hedabideen bitartez jaso zuela adierazi digu eta gaineratu du "ezustean harrapatu" duela. Galparsorok dio esperantza daukala epaiketa heldu aurretik bertan behera geratuko dela auzi guztia; bada, haren berbetan, "nahiko zentzugabekoa da sumarioa".

Arrasateko alkateak hauxe gaineratu du: "Batasuna, EHAK eta EAE sumario berdinean sartzean garbi geratzen da ezker abertzalearen kontrako kanpainan, edozerk balio duen horretan, dena nahasten dela".

**PP: ZENTSURA-MOZIOA**
Auzipetze horien ondorioz, Arrasateko PPk Ino Galparsoro alkatearen aurkako zentsura-mozioa eskatu du. Orain zentsura mozio bat aurkezteko inoiz baino "arrazoi gehiago" daudela dio PPk; izan ere, ETAko kide izatea egotzi dio epaileak Galparsoro alkateari. Hala ere, Itziar Lamarain PPko zinegotziak uste du Arrasaten ez lukeela aurrera egingo zentsura-mozio batek; izan ere, haren ustez, "nazionalistek ez dute Galparsoro boteretik kentzeko asmorik".

**ARALAR: "ZENTZUGABEKERIA"**
Aralarrek prents ohar bidez esan du "zentzugabekeria juridikoa eta politikoa" dela bere "jarduera politikoa egiteagatik" alderdi bateko kideak auzipetzea eta kartzelaratzea.

**EUSKARA** > EUSKARA ELKARTEEN TOPAGUNEA

# Topaguneak irudi berria eta Topakide txartela aurkeztu ditu

Euskara elkarteen bazkide txartela izango dute 11.000 lagunek, eta maiatzetik aurrera hainbat abantailez baliatuko dira Topakide Txartelaren bitartez



Imanol Larrañaga, Jasone Mendizabal eta Iker Martinez de Lagos. TOPAGUNEA

**NEREA MENOR** > BERGARA

Topaguneak (Euskara Elkarteen Federazioa) azken urtean egindako hausnarketaren emaitza eta irudi korporatiboaren aurkezpena egin zuen martitzenean Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan. Euskara elkarteen bazkide txartel bateratua ere erakutsi zuten. Aurkezpenean egon ziren Jasone Mendizabal elkarteko zuzendaria; Iker Martinez de Lagos idazkaria; eta Imanol Larrañaga, Elgoibarko Izarra euskara elkarteko ordezkaria.

Euskara Elkarteen Mugimendua eta hizkuntza komunitatea trinkotu eta zabaltzen, eragile aktibo izaten jarraitzea eta sakontzea ditu helburu Federazioak. Elkartearen lanaren ardatzak "hiztun norbanakoen zein erakundeen euskararen erabileran eta atxikimenduan eragitea dira".

Elkartearen jarduera bi ardatzetan egituratzen da nagusiki, eta horietan jarraituko du aurrerantzean bere lana antolatzen: alde batetik, euskararen erabilera bultzatu nahi dute; eta bestetik, euskararekiko atxikimenduan eragin nahi dute sentsibilizazioaren bidez.

**IRUDI BERRIA ETA TXARTELA**

Irudi berritua aurkeztu zuten, "erronka eta garai berriei egokitzeko asmoen adierazle". Euskara elkarteen aniztasun, hurbiltasun eta bilgune izaera jasotzen dituen irudia da eta bazkideekin landu nahi den gogoeta prozesu berrirako ikurra izatea da helburua.

Topakide txartela litzateke Topaguneak aurkeztutako hirugarren ekimena. Haren helburu garrantzitsuenak dira "tokian tokiko euskara elkarteen bazkideak mugimendu zabal bateko kide direla ikusaraztea; euskara elkarteen arteko jardun koordinatua bultzatzea; eta Euskara Elkarteen Mugimenduaren jardueraren bolumena erakustea", jakinarazi du Topaguneak. Apiril bukaeratik aurrera 11.000 bazkideek eskuratu ahal izango dute bazkide txartela. Geroago, gainontzeko kideen artean banatuko da. Jabeek abantailak lortu ahal izango dituzte, maiatzetik aurrera.



GOIENKARIA

Joxe Mari Aizega
MUko errektoreordea

## "Etorkizuneko sukaldariei formazio espezializatua emango diegu"

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

**Mondragon Unibertsitateak Gastronomia Zientzietako Fakultatea zabalduko du Donostian, Basque Culinary Center izenarekin. Aurkezpena egin zuten astelehenean. Proiektuari buruz egin dugu berba Mondragon Unibertsitateko errektoreorde Joxe Mari Aizegarekin.**

**Ze helbururekin sortu duzue Basque Culinary Center?**

Hiru helburu bete nahi ditugu: alde batetik, etorkizuneko sukaldariei formazio espezializatua eta sakona bermatu nahi diegu; beste alde batetik, ikerketarekin, sukaldariekin eta elikadura sektoreko enpresekin garapen proiektuak bultzatu nahi ditugu; eta azkenik, Euskal Herriaren nazioarteko proiekzioa lortu nahi dugu. Horregatik, hain zuzen, jarri dugu eskolaren izena ingelesez; alegia, euskal sukaldaritza nazioarteko erreferentzia delako eta guk mundu mailako ikasleak erakarri nahi ditugulako.

**Zentroak bi zutabe nagusi izango ditu: fakultatea eta Ikerketa eta Berrikuntza Zentroa.**

Bai, hala da. Fakultatean formazioa kudeatuko dugu; besteak beste, tituluak, formazio iraunkorreko ikastaroak eta graduondoko ikastaroak. Ikerketa eta Berrikuntza Zentroan, aldiz, ikerketak eta doktoretza-ikastaroak kudeatuko ditugu.

**Fakultate berria Donostian egingo duzue. Noiz hasiko dituzue lanak?**

Gure asmoa da 2011. urteko irailean martxan jartzea; hortaz, lanak urtea bukatu aurretik hasi beharko genituzke. Miramongo teknologia parkearen inguruan egingo dugu, 14 milioi euroko aurrekontuarekin. Hainbat erakunderen babesa jaso dugu.

**ZABORRA** > SINADURAK BATZEKO EKITALDIAK

# Etxez etxeko zabor bilketa bultzatzeko sinadurak batuko dituzte gaur Oñatin

**MIREIA BIKUÑA**> ARRASATE

Errauskailuen aurkako plataformen erakundeak etxez etxeko zabor bilketa bultzatzeko herri ekimena jarri du martxan. Legebiltzarrak tramitera onartu du proposamena, baina eztabaidatu ahal izateko 30.000 sinadura batu behar dituzte lau hilabetean. Horren harira, Ezker Batua-Berdeek sinadurak batuko dituzte gaur Oñatiko plazan, 18:30ean. Bestalde, atzo sinadurak batu zituzten Arrasaten. 30.000 sinadurak biltzeko epea 2008ko abenduaren 30ean hasi zuten eta apirilaren 30ean bukatuko dute.

**LEGEAREN BEHARRA**

Etxez etxeko zabor bilketa bultzatu eta errauskailuak desagerrarazi nahi dituzte hondakinen lege berriarekin. Behin eta berriz Kataluniako adibidea jartzen dute guztiek: han etxerik etxe jasotzen dute zaborra, biztanleriaren gehiengoaren oniritziarekin.

Bestalde, sinadura batzeko ekimena abian jarri dutenek diote hondakinen tratamendua arautzeko legeak beharrezkoak direla, egun ez daude-eta. Gainera, diote legeak bat egingo lukeela Foru Aldundiak bultzatzen duen iraunkortasunaren planarekin.

**EUSKARA**

## Inskripzioak euskaraz Bergarako epaitegian

**M.B.** > BERGARA

Martxo hasiera ezkero inskripzioak euskaraz egin daitezke Bergarako Erregistro Zibilean. Erregistro liburuen sissstema informatizatu egin dute, eta dagoeneko inskripzioak euskaraz egin daitezke. Besteak beste, jaiotza, heriotza, ezkontza eta tutoretza inskripzioak. Dena den, inskripzioak euskaraz egiten dituzten erabiltzaileek ziurtagiriak euskaraz zein gaztelaraz eskura ditzakete.

Horren harira, Epaitegiko Euskara Batzordeko kideek inskripzioak euskaraz egitera animatu nahi dituzte herritar guztiak.

**BIOLENTZIA**

## Gernikako erailketa gaitzesteko bildu ziren

**M.B.** > ARRASATE

Izaskun Jimenez gernikarraren erailketa salatzeko elkarretaratzea egin zuten atzo arratsaldean Arrasateko plazan. Emakume Txokoak antolatutako elkarretaratzea isilean egin zuten. Biolentzia matxistaren aurkako pankarta eroan zuten eta ordu erdiz egin zuten protesta, isilean. Bestalde, Emakumeen Mundu Martxako Plataformak deitutako mobilizazioak egin dituzte azken egunotan.

Izaskun Jimenez 44 urteko gernikarra martitzenean hil zuen haren senarrak. Gainera, 19 urteko alaba larri zauritu zuen.

**ENPRESA** > ARCELOR-MITTAL

# Arcelor Mittaleko langileen protesta

Bergarako 70 langile Zumarragako lantegira lanera joatearekin ez daude ados; susmoa dute altzairu lantegiaren ixtea ekarriko duela horrek

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Lan erreleb orduarekin bat eginez, LAB, ELA eta CCOO sindikatuek deituta, Bergarako Arcelor Mittal lantegiko langileek elkarretaratzea egin zuten eguazten eguerdian. Zuzendaritzak planteatu dizkien neurrien kontra azaldu dira aipatutako sindikatuak. *Arcelor Mittal Bergarako etorkizuna bermatu* zioen pankartaren atzean ordubeteko elkarretaratzea egin zuten eguaztenean, 13:30etik 14:30era.

Sindikatuek adierazitakoaren arabera, Bergarako altzairu lantegian lanean dauden 70 langile inguruk Zumarragara joan beharko lukete etorkizunean lanera. Zuzendaritzaren arabera, lan gutxi dagoela eta, krisia dago neurri horren atzean. Zumarraga eta Bergarako Arcelor Mittalen, bi lantegietan dago altzairu fabrika, eta, azaldu dutenez, Zumarragako lantegian bilduko da ekoizpen guztia.

Bergarako lantegian dagoen altzairu fabrika behin-behingoz ixteko asmoa dagoela uste dute langileek. Bergarako Arcelor Mittalen 268 langile daude, altzairu eta laminazio lantegietan banatuta. Enpresako Komite Batzordeak adierazi duenez, manifestazioak eta lan geldialdia egingo dituzte datozen egunotan.

**BEHIN BEHINEKO ERREGULAZIOA?**

Bestalde, aste honetan jakin da Arcelor Mittalek behin behineko lan erregulazioa planteatu duela Espainiako estatuan dituen lantegi guztietarako. 17 lantegi dira guztira, horietatik zazpi Euskal Herrian: Etxebarrin, Basaurin, Lesakan, Olaberrian, Sestaon, Zumarragan eta Bergaran.

Bergarako Arcelor Mittaleko ELAko ordezkariek adierazi dutenez, Madrilen "ERE standar" bat adostea da asmoa. Langileen ustez horrelako neurriak lantegi bakoitzean adostu beharrekoak dira, bakoitzaren egoeraren arabera.




Irudian, Arcelor Mittaleko langileen eguazteneko elkarretaratzeko une bat. E.M.

**etxeko leihotik**



Iban Arantzabal > 'iarantzabal@goiena.com'

## Legebiltzarra aldatuta, EITB ere aldatuko omen

Kalean oso modu grafikoan entzuten da zer izango den PP eta PSE-EE batuta ikusiko duguna. Ez da lehendakari berriaz edo Legebiltzarkideko presidente berriaz bakarrik berba egiten. Kalean eguraldi mapaz berba egiten da, San Ferminak edo pastoralak emango dituzten edo ez, futbola euskaraz entzuten jarraituko ote dugun.

Ikusiko dugu alderdien gehiengoaren arabera jarraituko dela EITB gobernatzen. Ikusiko ditugu gehiengoa duten PSE-EE eta PP zuzendari berriak izendatzen, informatiboetako aurpegiak aldatzen, Nafarroa beste kolore batekin marrazten, aparte...

Barruan talka handia izan behar da, hala ere. Gehiengoa ez da nahikoa EITBren Administrazio Kontseilua aldatzeko. Bi heren behar dira. Zer ikus dezakegun? Ba aginte organo bat kolore batekin eta hiru-lau zuzendari beste batekin. Horren eragina ildo editorialean? Batek daki!

**"Komunikazio taldean ere garrantzi du autoeratua izateak"**

Debagoienean ikasi dugu agintean dagoenarekin kontatu bai, baina men egin barik jokatzen. Goienako Errektore Kontseiluan udaletako ordezkariek badute botoa, baina irizpide profesionalekin kudeatzen da enpresa. Herriak sortutako komunikazio taldean ere garrantzia du autoeratua izateak, hauteskundeetan gehiengoa zeinek duen begira egon barik. Horrela, alderdiak irabazle ez, baina herritarrak bai. Hau da gura dutena alderdi guztiek, ezta?

**> Hasi da izen-dantza: entzuten dira kenduko dituztenak ETBtik, zeinek ez dizkigun notiziak emango, orain arte isilik egon arren zeinek eman ditzakeen... Ikusleen kalterako, irizpide politikoa bada nagusituko dena eta ez irizpide profesionala.**

**> Lerrokatze ideologikoa berriz ere. Ez da asko eskatzea, hala ere, irizpide profesionalei ematea pisu handiagoa, egitura sendoa sortzea alderdietatik haratago, zuzendarien izendapenak kanpora begira barik etxe barrura eta barrutik egitea...**

**ZERBITZUAK** > ZAHARREN EGOITZAK

# Geldialdiak egingo dituzte Bergaran eta Eskoriatzan

Zaharren egoitzetan azpikontratatutako langileek protesta ekitaldiekin jarraitzen dute; elkarretaratzeak gaur Bergaran eta Eskoriatzan

**E.M.** > BERGARA

Bergarako eta Eskoriatzako zaharren egoitzetan azpikontratatutako langileek protesta ekitaldiekin jarraitzen dute. Lan hitzarmenaren negoziazioak etenda daude joan den astetik patronalak (Adegi eta Lares) eta sindikatuak ez zirelako ados jartzen. Bergarako Mizpirualde egoitzako langileek elkarretaratzeak egin dituzte astean zehar. Gaurko, egubakoitzerako, hiru orduko lan geldialdia deituta zuten, 10:00etatik 13:00etara, eta iluntzean elkarretaratze bana egingo dute Bergarako plazan eta Eskoriatzan, 20:15etik 20:45era.

Mizpirualdeko lan taldearen %75 azpikontratatukoa da Samsic Iberia enpresaren bitartez: 65 langile inguru dira Bergarako egoitzan azpikontratatutakoak. Eskoriatzan gutxiago dira protestak egin dituztenak, Eclat enpresaren bitartez azpikontratutako 11 lagun hain zuzen.

**ARRASATEN MUGAGABEKO GREBAN**

Bestalde, Arrasateko Iturbide egoitzan azpikontratatutako langileak mugagabeko greban dira astelehenetik. Eguenean batzarra egin zuten Udaleko ordezkariekin baina ez ziren konponbidera iritsi.

> ENPRESA

### Debagoieneko zazpi enpresa Ferroforma azokan

Bihar, zapatua, Bilbon amaituko den Ferroforma burdin eta brikolaje azokan Debagoieneko zazpi enpresa daude ordezkatuta: Sistemas Valle Leniz (Aretxabaleta), Alejandro Altuna (Arrasate), Talleres Aga (Arrasate), Cotones Agirrezabal (Bergara), Goizper kooperatiba (Antzuola), Jose Maria Gallastegi y Cia. (Arrasate) eta Feliciano Aranzabal (Arrasate).

Esan bezala bihar arte izango da Ferroformaren 18. ekitaldia zabalik, Barakaldoko BECen, 1, 3 eta 5 pabiloietan. 27 herrialde daude ordezkatuta, 776 enpresa guztira.

> NEKARITZA

### Ekonekazaritzaren lekukoa Kontseiluak hartuko du

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua sortu denez, eta bertan nekazaritza ekologikoari loturiko elkarte guztiak ordezkatuta daudenez, Ekonekazaritzaren jarduerari amaiera ematea erabaki dute arduradunek.

Aurrerantzean, promozio lanak (*Ekolurra* aldizkaria barne) sortu berri den kontseilutik egingo dira. Edozein zalantza argitzeko 902 540 165 telefono zenbakira edo *info@eneek.org* helbidera jo dezakete interesatuek. *Ekolurra*-ko harpideen kasuan, datuen trasbasea egingo dute.



zabalik

Estepan Plazaola

# Ongi etorri/Bienvenido

*Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira,* dio Korrikako leloak. Euskarara hurbildu direnei eskainitako dokumentalean, Tereixak, Portugaleten bizi den galiziar batek, adierazten du euskaraz ikasi zuela "herriko hizkuntza ikasi behar duzulako". Gaur herriko Astileku ikastolako irakaslea da.

Korrikakoen antzera, beste portugaletetar batek, Patxi Lopezek, "Bienvenido al club del trilingüismo" esan zion Ibarretxeri ETBn izandako hauteskunde-eztabaidan. Ez dakit ze hizkuntza dakizkien Patxik hirueledunen klubeko kide izateko: frantsesa, ingelesa...?

**"Ez dakit Patxi Lopezek ze hizkuntza dakizkien hirueledunen klubeko kide izateko"**

Zeren eta euskararik apenas ei daki, nahiz eta *El Mundo*-k martxoaren 8ko alean hau argitaratu zuen: "Quizás por ello López se ha volcado con el euskera. En esta campaña se celebró, por primera vez, un debate en lengua vasca entre los candidatos. López salió airoso. El PNV quería evidenciar su desconocimiento del idioma".

Baina buru-belarri ei dabil ikasten bere perfil baskistari kalte egiten omen diolako euskarazko elkarrizketa arrunt bat ulertzeko belarritakoa jarri beharrak. Lehendik astean egun batez ei zebilen eta Ajuria-Eneko ateak zabaldu zaizkionetik astean hiru egunez.

Hala ere, ez dut uste Patxi Legebiltzarrean belarritakorik barik moldatzeko moduan ezagutuko dugunik. Eta ez diot, agintaldia erdibidean geratuko zaiola uste dudalako. Ez naiz ni iritzi horretakoa. Baina Pirritx eta Porrotxek dioten bezala euskara ikasteko ere hiru gauza behar dira: sentitu, pentsatu, egin; bihotza, burua, eskua. Eta orain arteko ekintzetatik ez dut nik hor sumatzen euskaraganako sentimendu beroegirik.

usteak uste

Mirian Biteri

# Gau eta egun gelditu barik Korrika!

Atzo hasiera eman zioten Tuteran AEK-k euskararen alde bi urtean behin antolatzen duen ekimen garrantzitsuenari. Gau eta egun gelditu barik 2.492 kilometro egingo dituzte milaka euskaltzalek datozen hamaika egunotan. Gurera azken txanpan iritsiko da Korrika; apirilaren 5eko goizaldean. Oñatitik sartuko da 04:12an eta 07:34an Leintz Gatzaga atzean utziko du. Zapatila erosoak jantzi eta kalera irteteko eskatu nahi diet debagoiendar guztiei. Euskarak merezi du-eta!

marrazkiz

Unai Busturia




blog-top

# Haizeak hautsa nola

**Anjel Lertxundi**
www.berria.info/blogak/lertxundi

*Ihes betea*-n garaiko periodiko batek azalean zekarren Gernikako sarraskiaren argazki bat aipatzen da. Detailetxoa dokumentatzerakoan, asko harritu ninduen orduko periodikoek zenbat hitz egin zuten Gernikaz, kriminalek zenbat arrasto utzi zituzten krimenarenak. Zentzu zuzen apur bat zuen europar orok zekien zer gertatu zen. Hori guztia etorri zait burura — barkatuko ahal dit irakurleak nire nobelaren aipamena— irakurri dudanean liburu bat plazaratu dutela, Castelloneko diputazioak subentzionatua eta bertako kapoak aurkeztua, Gernikako bonbardaketaren autoretza faxista ukatzen duena.

Bitxia da, ia metafisikoa, nazien (eta kolore guztietako faxisten) abildadea: den-dena kontrolatzen dute, den-dena fitxatzen, zehazten, finkatzen. Zehaztasunaren obsesioa dute. Baina, aldi berean, memoria kolektiboa itsutzea lortu eta gero, hustu egiten dute hegohaizeak plazetako hautsa barreiatzen duen eran.

# Sukaldariak, zineko izarren parean

**Joxe Aranzabal**
www.goiena.net/blogak/faroa

Herri honetan, sukaldariak irabazten dituenak irabazi du hedabideen lehia. Atzo Huhezinema film laburren eta dokumentalen jaialdia aurkeztu zen Donostian: kazetari bakarra agertu zen bertan. Bezperan, berriz, kazetari parrasta bat azaldu zen Mondragon Unibertsitatearen Gastronomia Zientzietako Fakultatearen aurkezpenera, hantxe baitziren gure sukaldaririk ospetsuenak.

Beharbada datorren urterako ESB izan liteke Huhezinemaren gai printzipala, alegia, Euskal Sukaldaritza Berria. Kasu horretan, beste kuku batek joko luke kazetarien artean.

koplak

Xabier Igoa

# Arabako Bertsolari Txapelketa 09

Amurrion hasi zena.
Gero Araban barrena.
Baina oraindik ez dakigula
gauza garrantzitsuena!

Txapelduna nor ote den?
Ta nork dakien ondoen?
Guztia jakin gura baduzu
segi zazu irakurtzen!

Bertsolarien desira
txapel beltzaren distira
baina jadanik indartsuenak
bakarrik gelditzen dira!

Nahiz txapelketa laburra
badagoela beldurra
sustrai pila bat errotu eta
banatu dela egurra!

Guztia doa aurrera!
Heltzear dau bukaera
ta apirilak 4an guztiok
Gasteizko Printzipalera!

Bertsolariak daz ero!
Ta giroa bero-bero
ta jakin hotzik ez da pasatzen
behin hona etorriz gero!

Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Edu Mendibil (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Oxel Arrieta **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Arrasateko Udala, Bergarako Udala, Oñatiko Udala, Aretxabaletako Udala, Eskoriatzako Udala, Antzuolako Udala, Aramaioko Udala, Elgetako Udala, Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Jesus Romero (Arrasate, 1970) Bioelikarteko (Elikadura Energetikoa Bultzatzeko eta Garatzeko Elkartea) kide da, eta elikadura eta sukaldaritza energetikoan aditua. Elkarhezitzenek (Debagoieneko Garapenerako Hezkuntzako lantaldea) antolatutako jardunaldietan parte hartu du. Besteak beste, gutxiago gastatuz hobeto jan dezakegula azaldu digu.

**Jesus Romero** > Sukaldaritza energetikoan aditua

# "Elikagai subiranotasuna kontsumitzen duguna aukeratzeko eskubidea da"

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

**Petro-elikagaiei eta kontsumo taldeei buruz egin dute berba Elkarhezitzenek antolatutako hitzaldietan. Atzo, elikadura ekonomiko eta osasungarriaz egin zuen berba Jesus Romerok. Horren gaineko hainbat datu eta aholku eman dizkigu.**

**Elikagaien subiranotasunari buruzko jardunaldiak egiten diharduzue. Baina zer da elikagaien subiranotasuna?**

Elikagaien subiranotasuna bizirik dagoen landa-mundu bat da, bai Euskal Herrian eta baita mundu osoan ere: labore aniztasuna da, kultura aniztasuna, trukaketa eta elikagai aniztasuna dituena. Nekazaritzaz bizi diren familiek zer ekoitzi erabakitzeko duten eskubidea da. Alegia, kontsumitzen duguna aukeratzeko eskubidea izatea. Uda guztietan gertatzen da norbait lehenagoko tomateen zaporearekin gogoratzea, eta zer gertatu ote den galdetzen dio bere buruari. Une horretan konturatzen gara elikagaien subiranotasunak ez digula elikadura osasungarriaz eta iraunkorraz bakarrik berba egiten, baizik eta herrialdeek euren produktuak ekoitzi eta baliabide propioak erabiltzen duten eskubideei buruz.

Guk azaldu nahi dugu elikadura orekatua ezinbestekoa dela, jakirik ez duten pertsonek janaria izan dezaten.



Jesus Romero bere etxeko sukaldean barazkiak, lekaleak eta fruitak ondoan dituela. MIREIA BIKUÑA

**Nola lor dezakegu elikadura orekatua?**

Azken 30 urteotan okelaren kontsumoa hirukoiztu egin da. Ez gara konturatzen, baina horrenbeste okela jateak ondorio larriak dakartza; besteak beste, bihotz eta osteoporosi arazoak. Animalien okela jateak energia kontsumoa handitu egiten du: alde batetik, gizakioi, jaki horiek astunagoak direlako eta kalte handiagoa egiten digutelako gibelean eta giltzurrunean; eta beste alde batetik, ingurumenari. Landareak eguzkiarekin, euriarekin eta lurrarekin elikatzen dira, eta fotosintesiaren bidez glukosa sortzen dute bizi izateko. Animaliek eta gizakiok, aldiz, ez dugu glukosarik sortzen, baina bizi izateko beharrezkoa dugu. Horretarako, landareak eta animaliak jaten ditugu.

Orduan, arazoa non dago? Bada, zuzenean landareak eta barazkiak jan eta bidea zuzenagoa egin ordez, aurretik landareak jan dituzten animaliak jaten ditugula. Hortaz, elikadura prozesua luzeagoa da, energia handiagoa kontsumitzen dugu eta ingurumena kaltetu egiten dugu.

**Txinan eta Indian ere hasi dira okela jaten.**

Bai. Txinako eta Indiako elikaduraren oinarria zerealak, barazkiak eta lekaleak ziren. Baina orain okela jaten hasi dira. Milioi bat pertsonak okela jatea kostatzen denagatik, 20 milioik jan ahal dituzte zerealak. Hori da proportzioa.

**Nutrizio piramide berrietan arazoaz jabetu dira, eta okela goiko tokian jartzen dute.**

Bai, hala da. AEBetan asmatu zuten lehen piramidea. Nutrizio piramide baten behetik gora zehazten dituzte gehienetik gutxienera jan daitezkeen produktuak. Amerikarren lehen piramidean, alkohola eta opilak zeuden goiko tokietan. Orain, piramide berria egin dute, eta goiko tokian okela eta findutako zerealak jarri dituzte; hau da, arroza, pasta, patatak eta opilak. Zergatik egin duten aldaketa? AEBetan loditasun maila asko igo delako, batez ere umeen eta gazteen artean. Konturatu dira okela, gurin, esneki eta arrautza asko jatea ez dela ona. Piramide berriari gaineratu diote egunero, gutxienez, ordu erdiz kirola egin behar dugula.

Dena den, orain arte aipatutakoa ez da AEBetan bakarrik gertatzen. Euskal Herrian okela asko jaten dugu, portzentajeak itzelak dira. Hipermerkatuetan hutsik geratzen diren lehen apalak okelarenak dira.

**Zuk diozu hobeto jan dezakegula gutxiago gastatuz. Baina nola lor dezakegu?**

Kontzientziazio kontua da. Garatutako herrialdeetan zerealak siloetan dituzte gordeta kontsumitzaileendako, eta ez dira konturatzen garatu barik dauden herrialdeetan gosez hiltzen ari direla eta gordeta dagoen zerealarekin jateko edukiko luketela. Hortaz, guk aldarrikatzen duguna da elikadura orekatua lortu behar dugula, baina inposiziorik gabe. Duela 30 urteko ohituretara itzuli behar dugu. Garbi izan behar dugu gure gorputzak hobeto digeritzen dituela frutak, barazkiak eta zerealak. Nutrizionistek diote gure elikaduraren %60 hidratoak eta lekaleak (lentejak, babarrunak eta garbantzuak) izan behar dutela, eta oso gutxik egiten dute hori.

**Tokiko eta sasoiko produktuak kontsumitu behar ditugula aldarrikatzen duzue.**

Bai, hala da, kontsumo horren aldeko apustua egiten dugu, baina oso zaila da, hemen, gure herrialdean geroz eta gutxiago landatzen da-eta. Hipermerkatuetan erosten ditugun fruta eta barazki gehienak Almeriatik datoz. Adibidez, kanpotik ekartzen dituzten tomateak merkeagoak dira supermerkatuendako; hortaz, baserritarrek geroz eta gutxiago landatzen dute. Bestalde, sasoiko produktuak jan beharko genituzke.

**Gure elikadura aldatzen badugu, poltsikoan nabaritu egingo genuke?**

Bai, horixe! Krisia jateko ohiturak aldatzeko aitzakia izan daiteke. Adibidez, bazkaltzeko arroz integrala eta lentejak presta ditzakegu. 60 gramo arroz eta 30 gramo dilista nahikoak dira bazkaltzeko. Okela baino askoz merkeagoa da. Hortaz, okela, arraina, esnekiak eta arrautzak gutxiago erosi eta produktu integralen alde egin beharko genuke, merkeagoak direlako eta gorputzarendako osasungarriagoak.

**Elikagaien subiranotasunari buruz berba egiteko hitzaldiak egiten dituzue.**

Bioelikarteko (Elikadura Energetikoa Bultzatzeko eta Garatzeko Elkartea) kide naiz eta askotariko hitzaldiak eta tailerrak ematen ditugu. Gure helburua kontzientziazioa bultzatzea da.

**Asteon hainbat hitzaldi egin dituzue, eta datorren astean gehiago egingo dituzue.**

Oñatiko kultura etxean egingo ditugu, apirilaren 1ean, 3an eta 7an, 18:00etan. Guztiok zaudete gonbidatuta!

KONTSUMOA

**"Azken 30 urteotan okelaren kontsumoa hirukoiztu egin da"**

PIRAMIDEAK

**"Arazoaz konturatu dira, eta nutrizio piramide berrietan okela jarri dute goiko tokian"**

INTEGRALAK

**"Produktu integralen alde egin beharko genuke, esnekiak, arrautzak eta arraina alde batera utzita"**

# Lan berdinagatik, soldata eta lan baldintza berdinak

**Marian Conde, Agurtzane Garai, Izaskun Vega**
(Untzak azpikontratatutako Iturbide egoitzako langileak)
Arrasate

Beste langileen lan berdina egiten duen edozein taldek eta urte askotan lan egin eta horregatik, soldata kopuru baxuago eta lan baldintza eskasagoak bizi izan dituen edozein taldek "Aski da!" esaten du momentu batean.

"Aski da!" hori izan zen Iturbideko egoitzan azpikontratatutako langileok esan genuena 2007ko ekainean, orain dela bi urte, udal hauteskundeak izan eta gero. Denbora luze joan da 2008ko irailean Udal Gobernuarekin negoziazio bilerak hasi genituenetik.

2009ko urtarrilean parekatzearen aldarrikapena azaldu genuenetik, Udalak aurkeztu zigun proposamen berdina da gaur egun duguna.

Horren aurrean, gure proposamena ekiparaziotik aldentzen da: lau urtetan soldatak parekatzea eta Udalhitzen atal batzuen negoziazioa legealdi hau amaitu baino lehen. Proposamen hau Udaleko beste alderdiei helarazi genien eta baita Untzako langileek ordezkatzen dituzten beste sindikatuei ere.

Otsailaren 10ean, Udal Gobernuarekin negoziazioak lau hilabete zituela, adierazi genien egunero, astelehenetik igandera, kale agerraldiak egingo genituela herriko plazan. Otsailaren 27an izan genuen azkeneko bilera, kontzentrazioak 10 egun betetzen zuenean, eta orduan esan genien gauzak aldatu ezean martxoaren 24an amaigabeko grebaren deialdia egingo genuela.

Ordutik hona ez dugu ofizialki erantzunik jaso. Egunkarietan irakurri dugu eurek egindako proposamena "ona" dela, otsailekoa bera izanik eta lan baldintzak eta soldatak era berdintsuan jarraitzea esan gura duenean, alegia.

Hau da, egunero udaletxearen aurrean hilabete egon garen arren, hurbiltzeko keinurik ere ez digute egin. Esan behar dugu kontzentrazio horiek gure denbora librean egin ditugula, egoitzako eguneroko martxari inongo oztoporik jarri gabe.

Orain Iturbide egoitzako senideei eta erabiltzaileei greba gogor batera joango garela esaten diete eta ondorioak kezkagarriak direla. Gutxi arduratu dira orain arte horregatik, 32 egun egunero euren aurrean egon garenean!

Amaitzeko, esan behar dugu prest gaudela gure aldetik edozein momentuan berriz negoziatzen jartzeko. Baina Udala bera da negoziatzeko nahia izan behar duena.

# Gaizki esanak argitzen

**Jose Mari Iturbe eta Pilar Etxaniz**
(Zutik-EB/Berdeak-Aralar)
Antzuola

EAJko aurreko agintaldiko alkate eta zinegotziek *Torresoroa berriz inauguratzen* tituluarekin GOIENKARIAn joan zen astean argitaratutako idatzian esaten denari buruz zehaztasun batzuk emateko idazten dugu. Besterik ez; ez da gure asmoa eztabaida zehatzetan sartzea.

Torresoroaren eraikina egiteko zein zen kokapenik onena izan zen aurreko agintaldian proiektua geratu eta eztabaida prozesu bat irekitzearen alde egin genuen apustua, eta hau izan zen sinadura bilketan parte hartzeko genuen arrazoi handiena. Udalaren jarrerak ez zuen horretan lagundu eta beste alternatiba batzuk aztertzeko aukera galdu genuen guk eta beste herritar askok ere. Garbi esan dezakegu ez genuela beste helburuyrik; are gehiago, orduan ez genuen sikiera udal hauteskundeetan parte hartzeko asmorik ere. Hortaz, ezin zaigu leporatu estrategia politiko baten baitan ari ginenik.

Obrekin hasi, jarraitu eta bukatzea ez dira egun batetik besterakoak, ezta agintaldi batekoak, ezta Udalarenak soilik. Guri tokatu zaigu ekipatu, bukaera eman, inauguratu eta martxan jartzea. Erabilera bultzatu eta ordaintzea ere geratzen zaizkigun erronkak dira eta, hortaz, gure ondorengo Udalak ere izango du zeregina. Hala esan genuen lehen inaugurazioan. Eta proiektuan parte hartu zuten guztiei eskerrak emateko astekari honetan argitaratu genuen lerroetan hauxe esaten genuen, besteak beste: "Udal korporazio ezberdinak (eskertu nahi ditugu), herriaren alde ekiteko izan duten borondateagatik; izan ere, nahiz eta jakin herrigintza ulertzeko eta gauzatzeko modu ezberdinak daudela ez gara gu izango Antzuolaren aldeko ahalegina ukatuko diegunak". Hortaz, desadostasunak desadostasun, guk ez dugu zuek egindako lana ezkutatu eta, gutxiago, monopolizatu.

Orain Antzuolako Udal Gobernua osatzen omen dugun bi taldeei buruz idazten da joan zen egubakoitzeko iritzi artikuluan. Jakinean zaudete ez gaudela Udal Gobernuan, ez daukagu alkatetza duen taldearekin inongo itun politikorik, ez idatzizkoa eta ezta ere ahozkoa.

Udalera iritsi ginenean, bi zinegotzirekin, argi esan genuen lanera gentozela eta, ondorioz, herrigintza mailan konpromisoak hartzeko prest geundela.

Eta horrela ari gara: batzordeetan gure iritziak, proposamenak, adostasunak eta desadostasunak planteatzen askatasun osoz eta udal lanetan eta erabakietan inplikatzen. Zuen taldeko partaideek ere oso ondo dakite zein den Udalean dugun jarrera eta egoera.

Ondo baino hobeto dakizue, baita, ez dugula zerikusirik Jose Juan Gonzalez de Txabarriri buruz herrian jarri diren kartelekin, ez dugu sekula firmarik gabeko ezer kaleratu, ez dugu horretan hasteko asmorik eta ondo dakizue hori zuek ere. Beraz, ez dakigu zertara datorren idatzi berdinean gai hain desberdinak nahastea eta gu horretan inplikatzea.

Hemen bukatzen dira, gure aldetik, Torresoroaren inguruko kontuak. Guk ere uste dugu hobe dela dauzkagun gizarte zerbitzuak zaintzera eta disfrutatzera bideratzea denon indarrak.

# Lurren desjabetzeak Arrasaten

**Garikoitz Lopez de Munain eta Maier Usobiaga**
Arrasate

Gaur, martxoak 25, azkenean lortu dute akten altxamendua sinatzea Arrasaten. Goizeko 9,30etan ziren elkartzekoak, batetik, kaltetutako lurjabeak eta, bestetik, Gipuzkoako Gobernuaren ordezkariak kaltetutako lursailetan.

Gaurkoa ez da akten altxamendua sinatzeko egin duten lehen saiakera; izan ere, 2008ko abenduaren 2an, 3an eta 4an etorri ziren lehenengoz Ogasun Ministeriokoak gure Udalera desjabetze aktak sinatu guran. Lotsagarria izan zen abenduaren 2an Arrasateko plazan Ertzaintzak erakutsi zuen jarrera. Inolako beharrik gabe, eta indarkeria basatia erabiliz, bortizki oldartu zitzaien Ertzaintza AHTren aurka elkarretaratze baketsua egiten ari zirenei. Sinatzeko baldintza egokirik ez zegoenez, bertan behera geratu zen desjabetze akten altxamendua.

Berriro, 2009ko otsailaren 25ean eta 26an dei egin zieten lurjabeei Donostiara joateko Gipuzkoako Gobernuaren Ordezkariordetzara. Orduko hartan ere ezin izan zuten sinatu, lurjabeetako batek desjabetze aktak bere lurretan sinatzea eskatu zuelako, Arrasateko Udalak otsailaren 20an aurkeztutako alegazioarekin bat eginez.

Ikaragarria da proiektu txikitzaile hau inposatu nahi digutenak erakusten ari diren defizit demokratikoa. Ahoa betetzen zaie demokrazia eta tolerantzia gora eta behera, baina gero ez dira gauza ustez guztion onurarako izango den proiektuaren inguruan herriarekin kontsultatzeko. Herri honetan kontsultak mugatzaileak ote dira? Hori da aurpegia hori!

Ez da zentzuzkoa, ezta zilegi ere, proiektuaren bultzatzaileak etengabe erakusten ari diren prepotentzia; izan ere, beraiek diseinatu eta ezarritako prozedurak ere ez dituzte betetzen. Horren erakusle garbia da gurean jazotakoa; Udalak aurkezturiko alegazioei muzin egin, alegazio epeak errespetatu ez, etab.

Horregatik guztiagatik inoiz baino ozenago azaldu behar dugu proiektu neoliberal eta txikitzaile honen aurka.

Gogorarazten dizuegu asteartero biltzen garela Arrasateko udaletxean arratsaldeko 7,30etan. Bertan agertzera gonbidatzen zaituztegu, inolako konpromisorik gabe.

# Iturbide egoitzako arazoaren aurrean, EAren iritzia

**Pello Urizar**
(EAko zinegotzia Arrasaten)
Arrasate

Azkeneko asteetan Iturbide egoitzan lanean diharduten Untza enpresako klinika laguntzaileak soldata eta lan baldintzen hobekuntza eskaera dela-eta agerraldi publikoak egiten ari dira eta martxoaren 24tik aurrera greba mugagabea hasi dute.

Untzako langileek, beraien eta udal langileak diren klinika laguntzaileen artean, bai ekonomikoki eta bai eskubideetan desberdintasun handiak daudela salatzen dute.

Gure ustez, azpikontratazioaren formula kontuan hartu beharreko formula bat da, kasuan kasu aztertu beharrekoa, Udalak berak eman dezakeen baino zerbitzu hobea eman dezakeelako enpresa espezializatu batek. Kasu hauetan, zerbitzu publikoa izateagatik, Udalak ahalegin berezia egin behar du bertako langileak soldata eta egoera duin batekin lan egin dezaten, eta ekidin beharreko egoera bat udal langileak eta azpikontratatutakoak lan berdinetarako batera izatea da.

Hau argi izanik, onartu beharra dago gaur egun Iturbide egoitzan ekidin beharreko egoera hau ematen dela, baina argi utzi beharra dago ere udal langileak soilik 3 direla eta Untzakoak 29.

Zein da benetako arazoa? Diskriminazio bat sortzen dela 3 udal langile horiek eskubide eta soldata hobeak dituztelako? Edota egiten den lana ez dagoela behar bezala baloratua Untzako langileei buruz berbetan ari garenean?

Benetako arazoa lehenengoa bada, konponbidea erraza da; lekualdatu ditzagun 3 udal langileak eta bukatu da arazoa. Baina benetan dagoen arazoa bigarrena dela uste dugu.

Gure inguruko enpresa guztiak eskulanaren beharrean izan diren urte hauetan Iturbide egoitzan egiten den lan mota hau ez da beste lan mota batzuk bezala baloratua egon, eta hor dago koska.

Untzako langileek soldaten parekatzea eskatzen dute, eta eskaera horrek, logikoa izanik beraien partetik, arazo bat sortzen du Udalaren ikuspegitik: Untzak estruktura gastu batzuk dauzka, eta eskatutako igoerek, gastu hauen igoera eragingo luketenez, Udalak jasan beharreko kostua zerbitzua zuzenean ematea baino garestiagoa litzateke.

Udal gobernuaren aldetik egindako proposamena 4 urtetan %30,65 igotzea da, eta gure ustez proposamen eskuzabala da. Aztertu beharreko beste aukera bat zerbitzua zuzenean ematearena litzateke, baina horrek, gaur egun Untzako 29 langileen etorkizuna baldintzatuko luke, eta zinez, ez da gure nahia.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33 20570 BERGARA** | **Telefonoa: 943 25 05 01** | **Faxa: 943 25 05 13** | **Posta elektronikoa: goienkaria@goiena.com**

MARTXOAREN 22an • URAREN MUNDU EGUNA

URA ZAINDU.
MUNDU GUZTIAK
BEHAR DU ETA.



Ura ezinbestekoa da.
Baita baliabide mugatua ere. Horregatik, etorkizuna
izango badugu, arduraz erabili beharra dago.
Zain dezagun ura, bada.
Mundu guztiaren eskubidea baita.
Mundu guztiak behar du eta.

ingurumena.net
Gure esku dago
está en nuestras manos

EUSKO JAURLARITZA
INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

ura
ur agentzia
agencia vasca del agua



## Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58 *www.baster-aldejatetxea.com*

**Eskaintza**
- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Enpresa bazkariak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

**Igandeetan itxita**



## Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72
*www.errekajatetxea.eu*

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

**Igande gauean eta astelehenetan itxita**



## Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI
943 78 19 56
*www.etxeaundi.com*

**Eskaintza**
- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuetarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

**Egunero zabalik**



## Santa Ana

Uribarri 37 (Udala bidean) / ARRASATE
Tel.: 943 79 49 39
*www.santaanamondragon.com*

**Eskaintza**
- Terraza eta barra
- Menu bereziak
- Karta
- Errazioak, pintxoak, bokatak eta gozoak enkarguz norberak etxera eramateko.
- Ezkontza, despedida eta kintoen bazkariak

**Igande gauean itxita.**

# Jatetxe Gida



txondorra
erretegia

## Txondorra erretegia

Bizkaia etorbidea 9 / ARRASATE
Tel.: 943 79 42 76

**Eskaintza**
- Sagardotegiko menuak.
- Menu pertsonalizatuak.
- Menu bereziak.
- Karta.

**Haragia eta arraina txingarretan erreta.**



## Unzueta sagardotegia

Zabola z/g /ARAMAIO
945 44 50 95

**Eskaintza**
- Sagardoa txotxetik urte osoan
- Sagardotegiko menua
- Karta
- Eguneko menua
- Parking eta terraza
- 70 lagunendako tokia
- Bataio, jaunartzeak eta kintadak

**Egunero zabalik**



## Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

**Eguazten arratsaldeetan itxita**



## Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa / OÑATI
943 78 35 45

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

**Berezitasunak**
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

**Igandeetan itxita**



**> ARRASATE**
Etxe hutsak merkaturatzeko programak gora egin du **> 15**




**> BERGARA**
Erramu-zapatuko herri bazkaria mahaoiz ospatzeko deia **> 19**



**> ARETXABALETA**
Toti Martinez de Lezearen berbaldia apirileko kultura egitarauan **> 24**



**> LEINTZ GATZAGA**
Gatz museoa kudeatzeko eskaintza bakarra jaso da **> 33**

**ANTZUOLA** > ERRUKIZKO AMAREN PARROKIA

# Antzuolako parrokiako berritze lanen bigarren fasea uda partean hasiko da



Argazkian, Antzuolako Errukizko Amaren parrokia. Argazkia 2007ko azarokoa da, lehen faseko lanak egiten zihardutenekoa.

GOIENKARIA

**LEHEN FASEA**
Diputazioak 700.000 euroko dirulaguntza eman zuen lehen faseko lanetarako

**HERRITARRAK**
Herritarren laguntza ezinbestekoa izan da parrokiaren berritze lanei ekin ahal izateko

**EDU MENDIBIL** > ANTZUOLA

Antzuolako herriak eta herritarrek eurek ere 2006an heldu zioten Errukizko Amaren parrokia berritzeko egitasmoari. Lanak 2007an hasi zituzten, Diputaziotik 700.000 euroko dirulaguntza jaso eta gero. Ordurako, hamar bat lagunek osatutako batzordeak lan handia egina zuen; tartean, herritarren artean proiekturako dirua batzea. Hain zuzen ere, batzordeko kideen aurreikuspen onenak ere gainditu, 74.000 euro inguru jaso zituzten.

Besteak beste, teilatua eta fatxadak birgaitu, eliza azpiko etxearen erreteila egin eta kanpandorreko erlojua aldatu egin dute orain arte. Oraindik bigarren eta hirugarren faseko lanak falta dira; izan ere, Rafael Eizagirre lehengo Antzuolako parrokoak esan zuen moduan, parrokia goitik behera berritzea zen asmoa: "Beste 40-50 urtean eraberritze lan gehiago egin behar ez izateko".

**BIGARREN FASEA**

Berritze lanen ardura duen herri batzordeak adierazitakoaren arabera, bigarren faseko lanak egiteko hilabete batzuk itxoin beharko dute antzuolarrek. Lanak hasteko data zehazteke dago, baina baliteke uda partean hastea. Juan Kruz Mendizabal parrokoaren hitzetan: "Aurrekontua borobiltzeko zailtasun batzuk izan ditugu, eta, bestalde, lanak Aste Santu osterako uztea egokiena zela pentsatu genuen". Edozein modutan, batzordeko kide Basili Ormazabalen iritziz, lan handia egiteko dago oraindik: "Gaurkoa ez da sasoirik onena diru eske ibiltzeko, baina jendeari egitasmoa azaldu eta erakundeengana eta partikularrengana joko dugu, lehen egin genuen moduan. Orain arte jasotakoa eskertu beharrean gaude".

**EGIN BEHARREKO LANAK**

Bigarren fasean egin beharreko lanak, besteak beste, hauek dira: margotu, argindarra eta berogailu sistema aldatu, megafonia sistema berria jarri, sakristia mezak emateko egokitu (negurako batez ere), organoa konpondu, eliza alboko galeria (herri aldera ematen duena) berritu eta komuna jarri. Era berean, aldare inguruko presbiterioarekin eta elizako zoruarekin ere zer egin aztertzen dabiltza batzordean.

Ondoren, hirugarren fase baten, erretaula konpontzeko lanak etorriko lirateke, adituen esku utziko lituzketenak.

## Bigarren eta hirugarren faseak zain

Parrokiako bigarren faseko lanen aurrekontua datorren astean jasoko dute. Basili Ormazabalek zera esan digu finantziazioaren gainean. "Orain, 125.000 euro inguru dauzkagu lanei ekiteko. Bigarren eta hirugarren faseetako aurrekontua 700.000 euro ingurukoa izatea espero dugu. Gotzaitegiarekin eta Diputazioarekin hitz egin eta etxez etxe eta baserriz baserri dirua eskatzeko asmoa dugu; berdin enpresetan". Aurreko agintaldian, Udalak adostu zuen urtero, eta datozen 25 urteotan, 6.000 euroko laguntza ematea, parrokia herriko ondare handienetako dela kontuan izanda. Udalak konpromisoari eustea espero du batzordeak.



Iturbide egoitzako langileak Garibai etorbidean, euren protestaren zergatia azaltzen duten kartelak pegatzen. U.M.

**ITURBIDE EGOITZA** > AZPIKONTRATATUTAKO LANGILEAK GREBAN

# Iturbidekoen grebak aurrera segituko du

## Asteon beste batzar bat izan dute Iturbidekoek Udalarekin, baina ez dute adostasunik lortu

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Oraingoz, egoerak berdin segituko du Iturbide egoitza aldean; hau da, greban. Atzo, eguena, Iturbiden protestan diharduten langileen ordezkariek batzarra egin zuten udal agintariekin. Ordubete pasatxo batzartuta egon ziren bi aldeak, baina ez zuten adostasunik lortu. Ondorioz, indarrean segitzen du oraingo asteko astelehenean abiarazi zuten mugagabeko grebak. Eta, halakoetan ohi den moduan, datozen egunotan zerbitzu minimoen araberako zerbitzua eskainiko dute Untza enpresako azpikontratatutako langileek.

**ZERBITZU MINIMOAK**

Zerbitzu minimoak Jaurlaritzak zehaztu ditu. Haien arabera, egunez lau langile gutxiagok dihardute egoitzan lanean; berez, 13 dira; bada, orain bederatzi dabiltza. Gaueko zerbitzuak, berriz, oraingo bera izaten jarraituko du; hau da, bi erizain laguntzailek dihardute lanean.

Gauzak horrela, eta Udaleko Gizarte Ongizate Sailetik emandako xehetasunen arabera, jadanik igartzen hasi dira grebaren eragina. Oro har, egoitzako funtsezko zerbitzuak ematen diharduten arren, eguneroko jardunetan atzerapenarekin dabiltza. Hau da, egoiliarrak ohikoa baino beranduago jaikitzen dituzte ohetik, jatorduak beranduago ematen dizkiete eta, jakina, oheratu ere beranduago oheratzen dituzte. Horrez gainera, egoiliar askoren dutxak murriztu egin behar izan dituzte, ezinbestekoak diren kasuetan izan ezik.

**SENIDEAK KEZKATUTA**

Ongizate Sailetik jakinarazi dute asteon egoiliarren senitartekoekin batzartu direla, egoera zein den azaltzeko. Adierazi dute kezkatuta ikusi zituztela senide asko; bereziki, erizain laguntzaileek ematen duten zerbitzuak pertsonengan duelako eragina, eta kasu honetan, mendekotasun handia duten pertsonak direlako egoitzan daudenak.


GOIENKARIA

## Barkoxeko maskaradak ikustera, Arrasatetik Maulera

Zuberoan ateratako ondoko argazki horrek erakusten du zein gustura ibili ziren Arrasatetik Maulera Barkoxeko maskaradak ikustera joan ziren lagunak. Eguna ondo aprobetxatu zuten, gainera. Izan ere, goizean, Muskuldin Aizkorri Gazta Kooperatiba bisitatu zuten; bazkalostean, berriz, Pastoralen historiaren gaineko azalpena jaso zuten, Patrick Quehielle Pastoral zuzendariaren eskutik. Eta horren ostean, jakina, maskaradak ikusi zituzten. Denendako "egun bikaina" izan zela aditzera eman dute txangoko parte-hartzaileek.

**AISIALDIA** > HANKAPALU FESTA

# Hankapalu festa asteon, eta orain taldea egin guran

## Txatxilipurdi elkarteak berretsi egin du begiraleak eta sukaldariak behar dituela udan

**U.M.** > ARRASATE

Hankapalu luze zein motzak jantzi, eta gustura asko ibili ziren Biteri plazan Arrasateko ludoteka eta gazte txokoetako erabiltzaile asko. Azken asteoetan ikasitakoa praktikan ipintzea izan da ekimen horren helburuetako bat.

Baina, etorkizunari begira, hankapaluekin lotuta taldea eratu gura dute Txatxilipurdikoek; hala kontatu du Lander Juaristi ordezkariak: "Hori da gure nahia. Beti gabiltza gauzak pentsatzen gazteekin zerbait egin ahal izateko. Polita izango litzateke hankapalu talderen bat sortzea. Gu bagaude jartzen tresnak: hankapaluak erosi ditugu (modernoak, gainera), ikastaroak ere egin ditugu… Gure ilusioa hori da: noizbaiten ea sortzen den hankapalu talde bat auzoak, herriak eta jaiak girotzeko".

**LANGILEAK BEHAR DITUZTE**

Bestalde, Txatxilipurdi elkartearen kontuekin segituz, berretsi egin dute aurtengo udalekuetarako begiraleak eta sukaldariak behar dituztela. Sukaldarien kasuan, 20 egunerako behar dituzte, Orion; eta astebeterako Elosun.


Etxeko gaztetxoenak hankapalu gainean, Biteriko *Gasolinera*-n. TXATXILIPURDI

## oharrak

OSPAKIZUNA
**> Soraluzetarren afaria**

Urteroko ohiturari eutsita, Arrasaten bizi edo lanean diharduten soraluzetarrendako hitzordua egin dute apirilaren 3an elkartu eta afaria egiteko. Alkartu elkartean izango da afari hori. Izena eman behar da ahalik eta lasterren honako telefono zenbakian: 660 76 80 19.

ABAROA
**> Irteera eta batzar orokorra**

Abaroa zaharren egoitzak Gironako Platja D'Arora joateko irteera antolatu du. Ekainaren 1etik 15era bitarteko egonaldia izango da. Eta izena emateko epea dagoeneko zabaldu dute. Abaroako bazkideek apirilaren 23ra arteko epea dute; eta bazkide ez direnek ere izango dute izena emateko aukera; horien kasuan ere, apirilaren 23a baino lehen. Baina hori bai, ez dute plaza zuzenik izango apirilaren 8ra arte. Pertsona bakoitzak 415 euro ordaindu beharko ditu. Autobusean joango dira Gironara, hiru izarreko hotel batera, mantenu osoarekin.

Bestalde, astelehenean, martxoaren 30ean, batzar nagusia egingo dute, 17:00etan, bosgarren aretoan. Besteak beste, Abaroaren leku aldaketa eta presidente berriaren aukeraketa izango dituzte berbagai.

KINTOAK
**> 1940an jaiotakoendako**

1940an jaiotako emakumeek ospakizuna egingo dute bihar, zapatua. Eguna hasteko meza izango dute, San Juan parrokian. Horren ostean batzokira joango dira, 14:30ean, bazkaltzera.

HILERRIA
**> Nitxoak hustu, irailean**

San Kristobal hilerriko nitxoetan 1999ko lehen seihilekoan lurperatuta zituzten gorpuzkiak aterako ditu Arrasateko Udalak aurtengo irailaren 1etik aurrera. Bada, gorpuzkiekin zer egin adierazi behar zaio Udalari martxoaren 31rako. Hala ez bada, jakinarazi dute San Kristobal hilerriaren denon hezurtegian utziko dituztela gorpuzki horiek.

**ETXEAK** > BIZIGUNE PROGRAMA

# Etxe hutsak merkaturatzeko programak gora egin du

Iaz, 13 etxebizitza merkaturatu zituzten Bizigune programarekin

Udazkenetik hona dagoeneko hamar etxebizitza merkaturatu dituzte



Etxebizitza errentan ematen dela iragartzeko kartelak ugaritu egin dira Arrasaten azkenaldian. U.M.

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Krisiak gehien eragiten duen sektoreetako bat etxebizitzena da, bai eraikuntzari dagokionez, baina baita salmentari dagokionez ere. Besteak beste, saltzaileei askoz gehiago kostatzen zaie etxebizitza orain saltzea duela urtebete baino.

Horren adierazleak Arrasaten ere aurki ditzakegu. Adibidez, hutsik dauden etxebizitzak merkaturatzeko Jaurlaritzako Bizigune programaren datuak: 2008an guztira 13 etxebizitza merkaturatu zituzten; bada, udazkenetik joan den astera arte 10 etxebizitza merkaturatu dituzte dagoeneko. Eta urte hasiera ere indartsua izan da, urtarriletik hona bost etxebizitza sartu dira eta Bizigunen. "Igartzen da etxeak ez direla saltzen, eta badago jendea aukera hau hartu duena: errentara jotzea, baina errenta segurura", azaldu du Nerea Lazpiurrek, Biziguneko Arrasateko Udaleko arduradunak.

**INFORMAZIO ESKE, ASKO**

Eta beste asko informazio eske ere joan da asteotan. "Asko etorri dira kontsultatzera", kontatu du udal teknikariak. "Denbora luzean etxea salgai izan eta ez dutela saltzerik lortu diote. Asko datoz etxe berria erosi dutelako eta zaharra saldu nahi dutelako; edo herentzia kontuengatik etxebizitza eskuratu dutelako. Beste batzuk, berriz, erretiratu eta jaioterrira bizi izatera doazelako".

**ZELAKO MAIZTERRAK**

Maizterren profilari dagokionez, berriz, Lazpiurrek dio gehienak gazteak direla, banakako eskatzaileak. "Eta poliki-poliki ikusten da atzerritarrak hasi direla baldintzak betetzen lan kontratu eta erroldari eta halakoei dagokienez, eta profil horretako jende dezente dago".

**ARRASATEN 44 DAUDE**

Badira bost urte Jaurlaritzak Bizigune programa Arrasaten abiarazi zuena. Ordutik hona, 44 etxebizitza merkaturatu dituzte, programak agintzen duen moduan bost urterako errentan. Orain, beraz, programaren bigarren fasean sartuta gaude; hau da, etxebizitzen errentak amaitzen diren fasean. "Dagoeneko esan dezakegu baja batzuk izan arren programaren hasierako gehienek errepikatu egin dutela", adierazi du udal teknikariak.

**ETXEA ESKURATZEKO BALDINTZAK**

Bizigune Jaurlaritzak bideratutako ekimena denez, edozein herritarrek ezin du halako etxebizitza bat eskuratu: "Etxebideko zerrendetan izena emanda eta diru sarrera minimo eta maximo batzuk izan behar dituzte, alokairu soziala baino apurtxo bat txikiagoak direnak, eta gutxienez bi urte erroldatuta egon Erkidegoan", jakinarazi du Lazpiurrek.

Biziguneren bitartez hartzen den etxebizitza bost urterako da. Asko jota 660 euroko errenta izan dezake (gehi KPI), "eta Arrasaten, Bizigune bultzatzeko, maizterrak ordaintzen du IBIaren %50; hori kontuan hartzekoa da. Eta beste berme garrantzitsua da bost urteren bueltan etxea lehengo baldintza beretan ematen dutela", gehitu du udal teknikariak.

**bere ustez**


Aitor Izagirre

## Aurrekontu proiektua, 2009

Udaleko aurrekontuak onartu ziren hilaren 16ean. Pena da, baina, oso herritar gutxi bertaratu izana saioa jarraitzera. Bertan egon zirenak Iturbiden azpikontratatutako beharginak izan ziren, beraien eskubideak aldarrikatuz. Esan behar da, errespetu osoz jokatu zutela uneoro eta ez zutela iskanbilarik sortu. Bi orduz luzatu zen batza eta gobernuaren eta EAren bozarekin eta Aralar eta EAJren abstentzioari esker onartu ziren (alkatearen kalitatezko botoarekin); PSE-EE, EB-Zutik eta PPk aurka bozkatu zuten.

**"Hainbat partida aldatuko nituzke; euskararen partida esaterako, 2008ko mailara parekatuz"**

Ezker Batua-Zutik koalizioko kideek emendakin orokor bat eta 50 partzial aurkeztu zituzten eta Aralarrek bi emendakin partzial. Guztiak bota zituen atzera batzak.

Pertsonalki nahiko aurrekontu onak iruditu arren, hainbat partida aldatuko nituzke; euskaren partida esaterako, 2008ko mailara parekatuz. Baina argi dago herritar bakoitzak bere aurrekontuak egiten hasita, guztiak ezberdinak liratekeela.

Aurrekontuak funtsezko gaia dira edozein herriren garapen egokirako, baina antza mondragoetarrok Telecinco eta Antena 3 datozenean bakarrik betetzen dugu pleno aretoa. Zer egingo diogu ba…

ELGETAKO ETXEGINTZA S.L.
Telefonoak: 943 79 83 08 - 615 70 34 72
KONPROMISORIK GABEKO BISITA
BIZITZEKO GERTU
ELGETAN - TORREALDEA
2 logelako etxebizitza + 2 garaje itxi
36.407.000 pzta-tik aurrera
3 logelako etxebizitza + 2 garaje itxi
40.327.000 pzta-tik aurrera
4 logelako etxebizitza + 2 garaje itxi
56.481.000 pzta-tik aurrera
Garaje itxiak
1.997.000 pzta-tik aurrera

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

arbolapeta
arrasate
beinke

**arrasatearrak kanpoan**

**Koldo Carrillo** > Argazkilaritza ikasten ari da Florentzia (Italia)

# "Kulturalki eta artistikoki oso hiri aberatsa da Florentzia"

**J.Z./J.B.** > ARRASATE

**Irailean joan zen Koldo Carrillo arrasatearra Italia aldera argazkilaritza ikastera. Italiako arteak eta italierak txundituta utzi dute. Hango bizimoduaz eta egunean egiten duenaz hitz egin dugu berarekin.**

Koldo Carrilllok kazetaritzako ikasketak amaitu eta lagun bat bisitatzera joan zen Florentzia aldera, Pistoia hirira, pasa den irailean. "Bertara 10 egunerako joan nintzen, eta esperientzia oso polita eta artistikoa izan zen", esan digu berak.


Koldo Carrillo.

**BERRIZ BUELTA BERTARA**

Hamar egunetako egonaldi hark guztiz txundituta utzi zuen Carrillo eta berriz bueltatu zen bertara. Florentzian egongo da uztaila arte gutxienez. Berak esan digun moduan "kulturalki eta artistikoki oso hiri aberatsa da Florentzia. Bestalde, hizkuntzak asko gustatzen zaizkit eta italierak "enamorau" egin nau; gainera gaztelera jakinda nahiko erraz ikasi daitekeen hizkuntza da". Kulturalki artearen hiria dela aitortu digu Carrillok: "Eskaintza kultural oso zabala dago bertan eta norberak bere gustuko giroa topatu dezake; adibidez, mota guztietako kontzertuak aurki daitezke; azkenaldian jazz kontzertuetara asko joaten naiz, gustuko dut".

> **"Eskaintza kultural oso zabala dago bertan, eta norberak bere gustuko giroa topatu dezake"**

**TURISTA UGARI**

Txarra den gauzarik ez du topatu Florentzian Carrillok, baina zerbait aipatzekotan, bertara joaten den turista mordoa aipatu digu. Arrasate eta Florentziaren artean badago alderik Carrilloren ustez, "batez ere han artearekiko duten jarrera".

Egunak lasai igarotzen ditruela ere aitortu digu: "Goizetan ikasi edo argazkiak ateratzera joaten naiz eta arratsaldetan klasera". Lagunen eta familiaren falta sumatzen du, baita tabernako giroarena ere. Azkenik, "sukaldean ibiltzea gustatzen zaidan aldetik, txorizoaren falta asko igartzen dut; hemen ez dakite zer den hori; Arrasatetik bidaltzen dizkidate askotan errioxar erako patatekin batera jateko".

**txaloak eta txistuak**


UBANE MADERA

## Autoak abidura bizian pasatzen dira Zarugaldetik

Zarugalde kaleko bizilagun batek bidali digu aste honetan txistua. Kontua da auto asko izugarrizko abiaduran pasatzen direla bertatik Otalorako zirkulazioa ekidin guran. Egoera hori arriskutsua dela esan digu batez ere bertatik pasatzen diren oinezkoendako. Udalari zerbait egitea eskatzen dio.

nº R.P.S. 297 / 05.
Amagara
Erdiko kalea 54 behea 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

Laser plataforma berria
AFT teknologiarekin

Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio du

Fotogaztetzea


Lehen


Orain

Gorritasunak • Kafesne-koloreko orbanak
Telangektasiak, eta abar

Fotosendotzea


Lehen


Orain

Biguntasuna • Azala luzatzea
Zimurrak hobetzen ditu, eta abar.

Fotodepilazioa
Edozein koloretako azala izanda ere.
•
Urteko edozein
momentutan depilatzeko ziurtasuna ematen du.
•
Eguzkia hartu aurretiko eta ondorengo
aplikazioaren denbora murrizten du astebetez.

Aknearentzako
fototerapia
Akne moderatua, sebo-guruinen
inflamazio eta sekrezioak murrizten ditu.

Etorri gure promozioa ezagutzera!

**MUSIKA** > UDABERRIKO V. MUSIKALDIA

# Aurtengo Udaberriko Musikaldiaren egitaraua "arrasatearra" irten da

Gaur, egubakoitza, emango diote hasiera aurtengo Musikaldiari, Concejo Abierto izeneko taldearekin; kontzertua 20:00etan izango da, parrokian



KUP abesbatzekoek bihar, zapatua, abestuko dute, parrokian, 20:00etan. GOIENKARIA

## Musikaldiaren egitaraua

**Martxoak 27, egubakoitza**
20:00. ¡Concejo Abierto. Parrokian.

**Martxoak 28, zapatua**
20:00. KUP Abesbatza Parrokian.

**Apirilak 3, egubakoitza**
20:00. Arrasate Musikaleko orkestra. Parrokian.

**Apirilak 4, zapatua**
20:00. Goikobalu Abesbatza, orkestraz lagunduta San Frantzisko elizan.

**Apirilak 5, domeka**
20:00. Pablo Sorozabal haize boskotea. Kulturateko aretoan.

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

Dagoeneko iritsi da Udaberriko Musikaldia. Eguaztenean Kulturaten ekitaldiaren aurkezpena egin zuten Kultura zinegotzi eta teknikari Oihana Aranburuk eta Karmelo Alberdik, hurrenez hurren, eta Arrasateko Musikaleko zuzendari Marta Izagirrek. Aurtengo egitaraua " nahiko arrasatearra" irten dela esan zuen Alberdik, parte hartuko duten talde gehienetan arrasatearrak daude-eta.

Emanaldiak gaur bertan hasiko dira. Musika barrokoa gustuko dutenak Concejo Abierto entzutera joan daitezke parrokiara. Talde horren berezitasuna *scordatura* izeneko teknika lantzen dutela da; biolina edo biolaren sokak berriro afinatzean datza, nota eta akorde konbinazioak lortzeko. Bihar, berriz, iaz egondako abesbatza izango da toki berean: KUP abesbatza. Biharko kontzertuak ez du iazkoarekin zerikusirik izango.

Apirilaren 3an, egubakoitza, Arrasate Musikalek sortutako orkestra sinfonikoak lehen emanaldia eskainiko du parrokian. Iker Olazabalek gidatuko du 50 musikari inguruko taldea. Hurrengo egunean, Goikobalu abesbatzak Mozarten *requiema* abestuko du San Frantzisko elizan, egun horretarako osatutako orkestraz lagunduta. Apirilaren 5ean, azkenik, Pablo Sorozabal haize boskotearen txanda izango da. Talde horretan Mikel Olazabal arrasatearra dago. Kontzertu guztiak ordu berean izango dira: 20:00etan. Musikaldiaren aurrekontua 30.000 euro dela jakinarazi du, azkenik, Alberdik.

**EUSKARA** > KORRIKA 16

# Korrika Kulturala eguna bihar, Korrika Txikia eguenean eta bertso afaria zapatuan

**M.B.** > ARRASATE

Euskaltzaleen lasterketa Arrasatera iristen den bitartean, askotariko ekimenak antolatu dira datozen egunotarako herrian. Egun potoloena, bihar, hilak 28, izango da, Korrika Kulturala eguna egingo da eta.

Txatxilipurdiren eskutik, 11:30ean, *Larunblai* haurrendako jolasak hasiko dira Seber Altube plazan. Handik metro gutxi batzuetara, Biteri plazan, gazte txokoetako kideek gazteendako tailerrak antolatuko dituzte, hala nola hankapaluak, euskal olinpiadak eta grafitiak. Ederto pasatzeko aukera izango dute etxeko txikitxoenek zein gazteek.

Eguerdian, bestalde, konpartsa txikiak kaleak girotzen dituen bitartean, Portaloia kantuzaleek kantu-poteoa egingo dute erdigunean. Horretaz aparte, goiz osoan zehar, Ekin elkarteko emakumeak taloak saltzen egongo dira Seber Altuben. Aurtengo Korrikako materiala erosi gura duenak, gainera, aukera izango du bihar, zapatua, goizean toki berean.

Korrika Kulturala egunaren harira antolatutako ekimenek arratsaldean jarraituko dute, eta musikak hartuko du lekukoa orduan. Herriko Plazan erromeria eta Osintxuko dantza taldearen erakustaldia izango dira, 18:00etan.

**KORRIKA TXIKIA**

Horretaz gain, eguenean, apirilak 2, Korrika Txikia egingo dute. 14:45ean Musakolako autobus geltokian hasita, umeek Arrasateko kaleak zeharkatuko dituzte. Horra hor herriko plazara heldu baino lehen egingo duten ibilbidea: Musakolako geltokitik AEKko biribilgunera, Otalora kalera, Muxibarko biribilgunetik Zarugalde kalera jarraituz, Arimazurirantz abiatuko da. Jarraian, Bolintxoko biribilgunetik Arrasate pasealekutik Iturriotz kalera joango dira eta Portaloira iristean, Erdiko kale igaroko dute plazaraino.

Korrika txikia amaitzean, SUDC-ekoek txokolatea banatuko dute plazan. Indarrak berreskuratu ostean, kantu egin ahal izango dute Txatxilipurdik antolatu duen karaokearekin.

Bestalde, Korrika heldu baino ordu batzuk lehenago, apirilaren 4an, Uarkape tabernan bertso afaria egongo da, 21:00etan.

> ZINEMA

## Helduendako eta umeendako filmak daude bihar Amaian

Astero moduan, zinema egongo da Udal Amaia Antzokian. Umeek *Barriola: San Adriango azeria* marrazki bizidunetako filma ikusi ahal izango dute bihar, zapatua, 17:00etan. Juan Bautista Berasategik zuzendutako emanaldiak ordu eta erdi inguru iraungo du.

Helduek, berriz, Sam Mendesen *Revolutionary Road* drama izango dute ikusgai. Hain zuzen ere, 13 urtetik gorakoendako gomendagarria den film horrek 120 minutu irauten du.

KONTRATAK
IRUROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

Monte taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

IAMAI kafe ANTZOKIA
ARRASATE
Gaur martxoak 27
00:00etatik aurrera
Ramón Guama
Bakarrizketak



> ATLETISMOA

### Eskola arteko txapelketa Ordizian, Gipuzkoakora joateko

Eskola arteko atletismo txapelketa egingo dute domekan Ordizian, eta atleta onenak Gipuzkoako txapelketarako sailkatuko dira. Almen-Arizmenditik joango dira Naiara Zubizarreta, Malen Azua, Garazi Berrizbeitia, Maria Jaka, Maddi Garro, Izar Gorroñogoitia eta Oihane Arana.

Atleta horiek atletismoko modalitate ezberdinetan lehiatuko dira.

> ESKUBALOIA

### Ford Mugarri Arrasatek hirugarren sailkatua hartuko du

Ford Mugarri Arrasatek (21) sailkapenaren hirugarren lekuan dagoen Quiron Askartza (36) taldearen bisita izango du bihar arratsaldean (17:30) Iturripen.

Loiolaren kontrako partidua atzeratu egin badute ere, Orgazen mutilek dagoeneko eginak dituzte kategoriari eusteko etxeko lanak. Kontrara, bizkaitarrak liga aurrean amaitzeko lehian dabiltza.

> FUTBOLA

### Emakumezkoen Mondrak Anaitasuna izango du aurrean

Igoera fasea amaitzeko lau jardunaldiren faltan, emakumezkoen Mondrak lider jarraitzen du bigarren multzoan, bederatzi puntuko aldearekin. Eta zapatu arratsaldean (16:00, Mojategi), laugarren lekuan dagoen Anaitasunaren bisita izango dute. Hala, bistan da aurten emakumezkoen taldeak eman behar diola talde zuri-moreari poztasun bakarretako bat.

**SASKIBALOIA** > LEHEN MAILA, JAITSIERA FASEA

# MUk Iruñean gura du lortu bosgarren garaipena jarraian

Javi Zurbanoren mutilek jaitsiera faseko norgehiagoka guztiak irabazi dituzte, eta boladari jarraipena eman guran egingo dute bidaia Iruñera

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Mondragon Unibertsitateko mutilek Nafarroako Igeriketa Taldearen izena daraman saskibaloi taldea izango dute aurrean domekan (10:00, San Inazio kiroldegia). Hain zuzen ere, sailkapenean postu bat gorago daude nafarrak, baina, Arrasateko taldearekin alderatuz, beheranzko joera darama talde horrek, azken lau partiduetatik bakarra irabazi dute-eta, Bidegintzaren kontra (57-48). Aldiz, lau jardunaldi horietan UPNA taldea baino gehiago izan dira Tabirako Baque, Mikeldi eta Urdaneta.

**MU, ATZETIK AURRERA**

Arrasatekoak, aldiz, behetik gora doaz. Jaitsiera fasean jokatutako partidu guztiak irabazi dituzte, eta ezin da alde batera utzi lehenengo faseko azken partiduko garaipena, Suelbat La Peñaren kontra (83-73). Zenbakiek erakusten dute zuri-moreek azken bost partiduak jarraian irabazi dituztela, jaitsiera faseko lau.

Hala, kategoriari eusteko ligaxka zenbaki negargarriekin hasi bazuten ere, fase berrian inork ez ditu MUko ordezkariek lortutako emaitzak lortu, ezta lehenengo postuan dagoen Bide Bide Ibizak ere. Zenbaki horiek ematen dute kategoriari eusteko itxaropena, nahiz eta aste barruan Zurbanok berak onartu duen helburua ez dela batere erraza izango. Aurrera larregi begiratzeagatik itsutu barik, pausoz pauso; hurrengoa Iruñean.



Imanol Zeziaga, Goierriren kontra barneraketa egiten (93-81). J.A.

## Zaldibar

**EMAITZAK (KOPAKOAK)**

| | |
|---|---|
| Ekaitz Taberna-Betrayer | **7-2** |
| Abokajarro-Cipris | **4-3** |
| Paulaner Dribling-Lasagabaster | **6-4** |
| Abokajarro-Paulaner Dribling | **1-7** |
| McAwen Dauen-Dublin Irish Pub | **3-7** |

**PARTIDUAK**

| Martxoak 28, zapatua | EPAILEAK |
|---|---|
| **10:00** Abokajarro-Iluntz | **McAwenDauen** |
| **11:00** Betrayer-McAwen Dauen | **Iluntz** |
| **12:00** Iriztu Taberna-AT Celaya | **Betrayer** |
| **13:00** Equs-Bar Aldapa | **AT Celaya** |
| **16:00** Saukelu Kabia-Equs | **Total Disaster** |
| **17:00** Total Disaster-Cipris | **Equs** |

| Martxoak 29, domeka | EPAILEAK |
|---|---|
| **11:00** Ekaitz Taberna-Paulaner Drib. | **Lasag.** |
| **12:00** Lasagabaster-HLB 108 | **Ekaitz Tab.** |
| **13:00** Dublin Irish Pub-Iturriotz | **HLB 108** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | McAwenDauen | 33 | 14 |
| **2.** | Paulaner Dribling | 32 | 14 |
| **3.** | AT Celaya | 31 | 14 |
| **4.** | Lasagabaster | 28 | 14 |
| **5.** | Saukelu Kabia | 27 | 14 |
| **6.** | Cipris | 25 | 14 |
| **7.** | Iriztu Taberna | 24 | 14 |
| **8.** | Ekaitz Taberna | 24 | 14 |
| **9.** | Abokajarro | 23 | 14 |
| **10.** | HLB 108 | 23 | 14 |
| **11.** | Betrayer | 21 | 14 |
| **12.** | Dublin Irish Pub | 21 | 14 |
| **13.** | Iluntz | 15 | 14 |
| **14.** | Iturriotz Taberna | 13 | 14 |
| **15.** | Bar Aldapa | 10 | 14 |
| **16.** | Equs | 8 | 14 |
| **17.** | Urza | 7 | 14 |
| **18.** | Total Disaster | 3 | 14 |

### Lehen fasearen amaiera, geroago eta gertuago

Joan den asteko atsedenaldiaren ostean 15. jardunaldia jokatuko dute asteburuan Zaldibarren. Eta geroago eta gertuago dago lehen fasearen amaieran. Hala, sailkapenaren erdialdean dauden taldeek orain zapaldu beharko dute azeleragailua; hurrengo fasean aurrera egin gura badute bai, behintzat.

URONDO
Elektrizitatea
* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak
Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

**OSPAKIZUNAK** > ERRAMU-ZAPATUA

# Erramu-zapatuko herri bazkaria mahoiz ospatzeko dei egin dute

Udal Pilotalekuan izango da eta 500 lagunendako aurreikusi dute; bazkalondoan txotx ibiltaria egongo da




Polit atonduta, ardi eta guzti aurkeztu zuten martitzenean herri bazkaria antolatzaileek, Udal Pilotalekuan. MONIKA BELASTEGI

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Iazko arrakasta ikusita, aurten ere herri bazkaria egongo da Erramu-zapatuan. Iaz egin zuten lehenengoz, eta, deialdi hartara 250 lagun joan zirela ikusita, zenbakia bikoiztea erabaki dute. Hain justu, 500 lagunendako bazkaria aurreikusi dute eta Udal Pilotalekuan izango da, ez Seminarioko zutabeen patioan iaz bezala.

Entsalada, tripotx nahaskia, arkumea burruntzian eta bukatzeko postrea. Horixe da apirilaren 4ko bazkarirako menua. Txartelak dagoeneko salgai daude 18 eurotan Ariznoa, Pol-Pol eta Kortazar tabernetan eta baita Udal Pilotalekuan ere. Bazkaria 14:30ean izango da.

Bazkaria bukatu eta guztiek elkarrekin jarraitzeko asmoarekin, bai eta gainontzeko herritarren parte-hartzea bultzatzeko ere, txotx ibiltaria antolatu dute. Hori horrela, bi kupelekin eta bertsolari eta musikarien laguntzarekin kalerik kale ibiliko dira.

**EUSKAL JAIA ALDARRIKATU**

Iaz bezala, herritar gazte talde batek antolatu ditu bazkaria eta txotx ibiltaria eta asmoa da Erramu-zapatuko giroa goizeko feriara mugatu barik, egunean zehar zabaltzea. Bestetik, ekimen horrekin "herriko euskal jaia sortu eta aldarrikatu nahi dute", antolatzaileen esanetan. Hori horrela, egun horretan mahoizko gona, praka edo soinekoa jantzeko dei egiten dute.

Horrekin batera, eskerrak eman nahi dizkiete herriko hainbat dendari (Mizpildi eta Konde Panaderokua okindegiak, Larrañaga, Mujika eta Raizabal gozotegiak eta Miner ardoak) eta Udaleko Kultura batzordeari emandako laguntzagatik.

Azkenik, Erramu-zapatuan Korrika herrira iritsiko dela-eta, herritarrak parte hartzera animatu nahi dituzte.

**AZPIEGITURAK** > ERREPIDEAK

## Bideberriko lanak hilaren 30ean hasiko dituzte

M.B. > BERGARA

Bideberri eta Zubieta arteko urbanizazio lanak hilaren 30ean hasiko dira eta Eguzki enpresak egingo ditu. Lanon asmoa da Zubietako 1. eta 3. zenbakidun etxeak botata, Ibargarai eta Zubieta bitartea bi noranzko bihurtzea. Modu horretan nahi dute herri barruko zirkulazioa txikitzea eta Bolu auzoko zirkulazioari irtenbidea ematea.

Udaletik aurreratu dutenez, zirkulazioari ahalik eta eragozpen txikien eragin nahi diote lanok irauten duten bitartean, eta horretarako plangintza aurkeztea eskatu diote Eguzki enpresari.

Bestetik, Pazkoetarako eta Euskal Eskola Publikoaren jairako Bideberri erabilgarri egoteko baldintza ere jarri dio Udalak enpresa eraikitzaileari.

**JENDARTEA** > BABESTUTAKO ETXEAK

## Kamineruetako etxeak uztailerako bukatuko dituzte

M.B. > BERGARA

San Antonion, Kamineruen orubean egiten diharduten tasatutako 38 etxebizitzak eraikitzeko lanei ekin diete berriz. Astelehenean hasi ziren, hain justu ere.

Promotorea Aldundia da eta azaroa ezkero geldi egon dira lanak, Eibarko Lekber enpresa eraikitzailea ordainketa-etendura egoeran geratu zelako. Hala, lanak lehiaketara atera zituen berriz Aldundiak eta Eguzki enpresa kontratatu du etxebizitzak bukatzeko. Hain justu, uztailerako lanak bukatuta egongo direla aurreratu diete Aldundiko ordezkariek etxeetako jabeei aurreko astean egindako batzarrean, eta giltzak irailean jasoko dituzte, sei hilabeteko atzerapenarekin. Gremioen kasuan, Lekberrekin zebiltzan gehienek segituko dute Eguzki enpresarekin lanean.

**bere ustez**



Jon Suinaga

## Callahan inspektorearekin arratsalde pasa

Joan den zapatuan, arratsalde eguzkitsu eta zoragarri baten erdian, zine baten barruan sartzea bururatu zitzaigun. Ume txikiak dauzkagunok, libre geratzen garenean, halako bitxikeriak egiten ditugu. Clint Eastwood-en *Gran Torino* filma aukeratu genuen; guztiz asmatu ere bai.

*Harry el sucio*-n bere Magnum 44arekin edo *Por un puñado de dolares*-en pontxoarekin protagonista zena gaur egungo zinearen mito biziduna da. Handienetako bat, agian handiena. Baina Clint-ek ez zituen hasiera errazak izan; bere hasieretan kaleratuta izan zen lepoko intxaurra handia izateagatik.

**"Clint Eastwood-ek, ohikoa denez, pantala bete egiten du bere presentziarekin"**

*Gran Torino* ez da istorio handi bat, momentu batzuetan huts egiten du eta interpretazio batzuk ahulak dira. Baina, Eastwood-en magiari esker, sekulako filma da. Clint-ek, ohikoa denez, pantaila bete egiten du bere presentziarekin. Pelikulan arraza-integrazioa, arrazakeria, pandilleroak, bakardadea, familia harremanak eta gai gehiago tratatzen dira. Ikusleak barre, sufritu, negar edo gozatu egiten du momentu desberdinetan; amorrua, poztasuna, ezintasuna edo samurtasuna ere sentitzen du.

Atsegin handiz, Callahan, eta hurrengo arte.

trinmer telecomunicaciones
tdt televisión digital terrestre
**Bergaran ere badago Lurreko Telebista Digitala!**
Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.
**TRINMER 20 urte antenetan**
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne
TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR
Tel.: 943 12 73 50 – 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60
*antenas@trinmer.com* | *www.trinmer.com*

BERGARA Margoak
Certificado ISO 9001 por BVQi
Kalitatea eta zerbitzua.
Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.:943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara@bergaramargoak.com

**JENDARTEA** > ETXEBIZITZA

# Ozaetako etxeetarako onartuen zerrenda ikusgai

Onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendak ikusgai daude Udaleko iragarki oholetan eta 'www.bergara.net' helbidean

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Ozaetan eraikitzen diharduten babes ofizialeko 27 etxeetarako onartu eta baztertu dituzten parte-hartzaileen behin-behineko zerrendak onartu zituen astelehenean Gobernu batzordeak.

Bi logeladun etxeetarako 87 parte-hartzaile onartu dituzte –106 aurkeztu ziren–; hiru logelako etxeetarako, 4 –bost aurkeztu ziren– eta mugikortasuna murriztuta duten pertsonendako gordetako etxeetarako bat onartu dute –lau aurkeztu ziren–.

Zerrendok dagoeneko ikusgai daude udaletxeko iragarkien oholtzan eta webgunean. Gainera, baztertutakoen kasuan, adierazi egiten da baztertzeko arrazoia.




Ozaetan 27 etxebizitza eraikitzen dihardute. GOIENKARIA

**ERREKLAMATZEKO AUKERA**

Nahi duenak erreklamazioa aurkeztu ahal izango du, apirilaren 8ra arte. Erreklamazioa idatziz aurkeztu beharko da udaletxeko Bulego Teknikoan, norberak adieraziko dituen arrazoiak oinarritzeko frogagiriekin batera.

Egindako erreklamazioak aztertu ondoren, onartutako eta baztertutakoen behin betiko zerrendak argitaratuko dituzte, eta, zerrendak argitaratzearekin batera, zozketaren eguna eta ordua ere adieraziko dituztela aurreratu dute udal iturriek.

**KORRIKA 16** > KORRIKA TXIKIA

# Eguenean txikienek Korrika Txikia egingo dute

San Martin, Aranzadi eta Mariaren Lagundiko ikasleek elkarri pasatuko diote lekukoa

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Korrika abiatu da eta geroago eta gertuago dago Bergaratik. Hala, gurera iristen denera arte –apirilaren 5ean 00:00etan egingo diote ongietorria Osintxun– hainbat ekitaldi egongo da itxaronaldia girotzeko.

Bihar, zapatua, Korrika 16ko arropa saltzeko postua jarriko dute 11:30-14:00 bitartean San Martin plazan.

**TXIKIENAK KORRIKA**

Eguenean, apirilaren 2an, Korrika Txikia egingo dute herriko ikastetxeetako ikasleek. 15:20an abiatuko da San Martin ikastetxetik eta hango ikasleek eroango dute lekukoa azoka pareraino. Azoka parean Aranzadi ikastolari pasatuko diote lekukoa eta Mariaren Lagundira iritsitakoan, azken horrek hartuko du lekukoa. Handik, ikasle guztiak elkarrekin San Martin plazara iritsiko dira eta han amaituko dute Korrika Txikia.

Korrika bukatu eta gero, 17:00etan, txokolate jana egongo da San Martin plazan eta 17:30ean, Musika Eskolako ikasleek kalejira egingo dute. Horrekin batera, Jardun elkarteak umeendako jolasak ere egingo ditu plazan; besteak beste, aurpegi margotzea, txapagintza (Korrikako logo eta leloarekin), sokasaltoa…

Apirilaren 3an, egubakoitza, erromeria egongo da Domingo Irala kalean; hain justu ere, Jarduneko trikitilariak arituko dira 19:00-21:00 bitartean, eta Gazte Alai eta Abarka dantza taldeek erakustaldia egingo dute.

Horrez gain, apirilaren 4an, zapatua, Hesian taldeak kontzertua egingo du, 22:30ean, Domingo Irala kalean.

**KILOMETROAK SALGAI DAUDE**

Kilometroak salgai daude dagoeneko Arrasateko AEK-ko euskaltegian. Interesatuek eros ditzakete kilometroak 943 77 03 69 zenbakian edo *arrasate@aek.org* helbidean. Kilometro guztiak 380 eurotan daude salgai. Debagoienean 56 kilometro egingo ditu Korrikak; horietatik 9, Bergaran.



Udaberria - uda

Mirari
JANTZIDENDA
Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

Neurriak 38tik 60ra

Bihar Mariaren lagundia elizan (20:00) eskainiko duten kontzertuaz gain, urtean zehar beste hainbat kontzertu eskainiko ditu Aritzetak

**MUSIKA** > ARITZETA ABESBATZAK URTEURRENA

# Euskal Herriko eta Europako bazterretara 30 urtez ahotsa eramaten

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Bihar, 20:00etan Aritzeta abesbatzak bere 30. urteurrena dela-eta kontzertua eskainiko du Maria Lagundiako elizan. Kontzertuan, azken urteetan eskainitako abestien errepaso bat egingo dute eta abesti berri bat ere abestuko dute; guztira, 12 abesti. "Espero dugu gustura geratzea ikusleak, guretako erronka polita da-eta", adierazi digun Ibon Garitano presidenteak.

**ORAIN ARTEKO IBILBIDEA**

Aritzeta 1979 urtean sortu zen. Pasa diren 30 urte horietan kontzertu asko eskaini ditu Euskal Herrian, Europa eta Espainian ere; abesbatzen federazioko eta Bergarako Musika eskolako sortzaileetariko bat ere bada abesbatza. Orain arte hiru zuzendari izan ditu; lehena Alfredo Gonzalez Chirlaque izan zen; ondoren Izaskun Labaien aritu zen lan horretan eta 1997 urtea geroztik Imanol Urtzelai ari da. Presidente lanetan duela urte batzuetatik Ibon Garitano ari da.Orain arteko ibilbidearen balorazioa "oso positiboa eta ederra" izan dela esan digu berak: "Jende askok izan du abesbatzako kide izateko aukera, jende asko ezagutu dugu, familiak sortu dira, ehunka emanaldi egin dira, bai hemen zein atzerrian, kultura eta musika estilo ezberdinak ezagutu eta landu ditugu", esan digu. Orain abesbatza 28 kidek osatzen dute: "Ateak ez daude itxita; nahi duenak eman dezake izena eta entseguetara etorri, astelehen eta eguaztenetan 21:00etatik 22:30ak arte Mizpirualdeko elizan".

Etorkizunari dagokionean Garitanok argi dauka: "Jendea ez bada abestera animatzen honek ez dauka etorkizunik, horregatik garrantzitsuena herriko abesbatzetan jende berria sartzea da, izan ere eta orokorrean, abesbatzetan jende gutxi dihardu abesten eta".

**BESTE KONTZERTU BATZUK**

Biharkoaz gain, ondorengo lekuetan ere eskainiko dituzte kontzertuak urteurrena ospatzeko: apirilaren 4an Eibarko Sostoa Abesbatzaren urteurrena ospatzeko bertan izango dira kontzertu txiki bat eskaintzen; ondoren, maiatzak 1eko zubian Burgosen bi kontzertu eskainiko dituzte; laugarrena, maiatzaren 16an, Musika Eskolaren urteurrenean; uda aldera ere eskainiko dute kontzertua: uztailaren 18 Santa Marina eguneko kontzertua eta irailaren 12an, Orfeoiarekin batera Tirri-Tarrako ikuskizuna.

## Kontzertuaren egitaraua

*Esti dal*
*Chori Erresiñoula*
*Verso el cielo*
*Izarapean*
*The lion sleeps tonight*
*Kaiku*
*A tu lado*
*Carnavalito quebradeño*
*Laura - Quero água*
*El Bodeguero*
*Eres tú*
*Aunitz urtez*



Gaur egun Aritzeta abesbatza 28 kidek osatzen dute. ARITZETA ABESBATZA

**MUSIKA**

## Azkaiter Pelox eta Los viernes al ron, gaur

Nahikari tabernan 22:30ean; Ziripot tabernan DJak gaur eta bihar

**J.Z.** > BERGARA

Gaur gauean Nahikari tabernan. 22:30ean Azkaiter Pelox eta Los viernes al ron izango dira. Kontzertua akustikoa izango da. Sarrera doakoa izango da eta rock, folk, blues eta soul estiloko abestiak entzungo dira gitarra akustiko eta harmonikarekin.

**ZIRIPOTEN ETA GOJAM-EN**

Ziripot tabernan gaur gauean DJ Dubbyren emanaldia egongo da 23:00etatik aurrera. Bihar, berriz, 22:30etik aurrera Mikel y El Duo Estatiko taldearen kontzertua egongo da eta ondoren, DJ Mansilla Rock. Go-Jam aretoan bihar gauerditik aurrera, besteak beste Kike Pravda, David Rojas eta Pepote izango dira.

> ZINEA

### Hainbat zine emanaldi Zabalotegi aretoan asteburuan

Martxoko azken asteburuan ere hainbat zine emanaldi egongo dira Zabalotegi aretoan ume eta helduendako.

Bihar, zapatua, hiru emanaldi egongo dira bat umeendako eta beste bi helduendako. Umeendako 17:00etan, *Space chimps, mision espacial* filma eskainiko dute; helduendako, berriz, bi saio egongo dira:19:30ean eta 22:30ean; ikusi ahal izango duten filma *Quemar después de leer* izango da. Etzi, domekan, bi saio egongo dira zapatuko film berberekin; umeendako 17:00etan eta helduendako 19:30ean.

Zumelaga
JATETXEA
Aste bukaeratan
MENU BEREZIAK
23,50€
San Antonio 5
BERGARA 943 76 20 21

EDEL
TAPIZ DENDA
Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena
Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
Bidekurutzeta 14 BERGARA

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia
Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

ARRI
Industri hornidura
Latigilloak
Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

Kayak Taberna
Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!
• Afariak
• Plater konbinatuak
• Ogitartekoak
• Hanburgesak
• Sandwichak
• Entsaladak
Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

**ESKOLA KIROLA**

# Multikirol barruan eskaintza zabalagoa

## Ziklismoa, piraguismoa eta halako kirolak izango dituzte aukeran

**X.U.** >BERGARA

Multikirolean dabiltzan ikasleek aukera zabalagoa izango dute, orain arte egin dituzten kirolekin batera hastapeneko ekintza berriak gehitu dituzte-eta: txirrindularitza, saskibaloia, piraguismoa eta atletismoa.

Kirol eskaintza horiek LHko 5. eta 6. mailetako neska-mutikoei zuzenduta daude, eta jarduerok antolatzeko Bergarako Eskola Kirol Kontseiluak saskibaloi sailekoekin, Beti-Bustikoekin eta Lokatzakoekin batera lan egin du.

Kirol ekintza batzuk hil honetan bertan hasiko dituzte; ziklismoa, esaterako (hilaren 27an). Eta piraguismoa, adibidez, apirila eta maiatza bitartean egingo dute, lau jardunalditan.

**FUTBOLA** > ERREGIONALA

# BTLSk Oriokoren bisita izango du bihar eta Bergarak Elgoibarren jokatuko du

## BTLSk kontrario zuzena izango du aurrean, Orioko ere jaitsiera postuetatik urruntzeko lehian dabil-eta



BTLSk Ilintxaren kontra jokatutako partiduko irudia. J.A.

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

BTLS (29) taldeak hiru jardunaldi egin ditu partidurik irabazi barik, eta jaitsiera postuetatik aldentzeko Orioko (29) mendean hartzeko asmoz zelairatuko dira Arandururen mutilak bihar Ipintzan. Kostaldeko bisitariak, gainera, sailkapenean parean daude, puntu kopuru berarekin, eta haien kontrako garaipenak balio bikoitza izan dezake.

Hala, erregional mailan kategoria zenbat taldek galduko duten jakiteko oraindik goiz bada ere –beste kategorietan izango diren gorabeherek baldintzatuko dute hori–, azken hirugarren lekuan dagoen Lazkao (25) lau puntura baino ez dago. Hori horrela, BTLSkoek lehenbailehen lortu behar dituzte erabateko lasaitasuna emango dizkieten puntuak.

**BERGARAK, ELGOIBARREN**

Bergarak (56) Mintxetan jokatuko du bihar. Berez, elgoibartarrak (32) sailkapenaren erdian daude, ez aurrera eta ez atzera. Edozelan ere, liderra etxean hartzeak ematen duen motibazioaz baliatuko dira Bergarari denboraldiko hirugarren ezustekoa emateko.

Mahoneroek, baina, dagoeneko ondo baino hobeto dakite kontrarioek zelan hartzen dituzten. Eta Lazkaoren (25) bisitaren aurrean Agorrosinen etekin handiagoa atera ez izanagatik amorratuta joango dira Elgoibarrera. Dena dela, Diazen mutilek bederatzi puntuko aldearekin jarraitzen dute.

## Labegaraieta

**PARTIDUAK**

| Martxoak 28, zapatua | Epaileak |
|---|---|
| **18:30** Los Blus-Los Latinos | **Carboneros** |
| **19:30** Carboneros-Zigalikatis | **Los Latinos** |

| Martxoak 29, domeka | Epaileak |
|---|---|
| **10:00** UD Akabaoak-Belengua | **Irish Pub** |
| **11:00** Niu Tim-Irish Pub | **Belengua Tab** |
| **12:00** Komando Pip.-Errota-Gain | **Niu Tim** |
| **17:00** Internacional-Monte Tab. | **Irubide** |
| **18:00** Irubide Tab.-Diego valor | **Monte Tab.** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | UD Akabaoak | 60 | 21 |
| **2.** | Carboneros | 55 | 21 |
| **3.** | CM Errota-Gain | 51 | 21 |
| **4.** | Zigalikatis | 49 | 21 |
| **5.** | Los Latinos | 38 | 21 |
| **6.** | Komando Piperrak | 34 | 21 |
| **7.** | Los Blus | 25 | 21 |
| **8.** | Niu Tim | 22 | 21 |
| **9.** | Diego Valor Ileapaind. | 21 | 21 |
| **10.** | Internacional | 20 | 21 |
| **11.** | Belengua Tab. | 18 | 21 |
| **12.** | Irish Pub | 20 | 21 |
| **13.** | Irubide Taberna | 7 | 21 |
| **14.** | Monte Tab. | 8 | 21 |

### Atsedenaldiaren ostean...

Lanera, joan den asteko atsedenaldiaren ostean lanera itzuliko dira taldeak. Aurreko postuengatik lehian dabiltzan Carboneros eta Zigalikatis taldeek zapatu arratsaldean (19:30) jokatuko dute jardunaldiko partidu erakargarrienetako bat.


# HITZALDIA

## EKONOMIA: ARRISKUAK eta AUKERAK

Gaur egungo egoera ekonomikoaren eta irtenbideen inguruko gogoeta

Martxoak 31, asteartea, 19:00etan Bergarako Zabalotegi aretoan.

ARANZADI IKASTOLA

**HIZLARIA:** Joseba Barandiaran, ekonomialaria

KULTURA ASTEA



Antolatzailea:

ARANZADI ikastola

**Kalitatezko Euskal Heziketa**

**mingainari tiraka**

**Fermin Fernandez** > Irurak Margoak

# "Zuri kolorekoa ikusten dut mundua, optimista naizelako"

**J.ZABALA/N.MENOR** > BERGARA

**Oso gazte hasi zen margolari lanetan Fermin Fernandez eta dagoeneko 36 urte darama lanean, eta gustura dagoela dio. Egun, Irurak Margoak-eko nagusia da.**



**Zein motatako lanak egiten dituzue Irurak-en?**

Pinturarekin aritzen gara, zentzurik zabalenean. Obra berrietan margotzen dugu, etxe partikularretan, etxeen aurrealdeak zaharberritzen direnean ere bai. Hondar-zurrusta eta ur presio bidezko garbiketak ere egiten ditugu.

**Zer da jendeak gehien eskatzen duena?**

Gehien eskatzen digutena, etxebizitza eta lokalei dagokienez, gehienbat koloreetan eta lisoan margotzea da. Gela bakarra kolore ezberdinez margotzea ere eskatzen digute sarritan.

**Krisi garai honetan margo arloak ere nabari du hori?**

Igarri egin dugu, bai, lan eskarien beherakada. Hala ere, oraingoz, ez da oso nabarmena eta badugu lana denboraldi baterako, behintzat.

**Zein da merkatuan dagoen gauzarik berritzaileena margoei dagokienez?**

Izkutuak, trapeatuak, belaki bidezko margoak…Teknika asko daude. Batzuk tabernetan edo pareta batzuetan bakarrik erabiltzen dira, bestela gehiegizkoa dirudieta. Beste teknika eta kolore batzuek gela oso bat margotzeko balio dute.

**Jendeak zer eskatzen du gehiago, paper pintatua ala horma margotzea?**

Gehienetan, zuzenean horman margotzea eskatzen digute; badaude, hala ere, horma bakar batzuetan paper pintatua eskatzen dutenak ere. Frisoak eta zerrenda apaingarriak ere eskatzen dizkigute. Amaitzeko, ohikoa ez den arren, paisaiak dituzten muralak ere eskatu izan digu baten batek.

**Mundua nola ikusten duzu: zuri ala beltz kolorekoa?**

Oraingoz, gaur eguneko egoera kontuan hartuz, zuri kolorekoa ikusten dut mundua. Oso optimista naizelako izango da, agian.

**txaloak eta txistuak**



N.M.

# Txakur kaka botatzeko zakarrontzi bereziak

Herritar askok Mizpirualde egoitza eta epaitegi inguruan ateratzen dute txakurra paseatzera. Eta txakurren gorotzak ere sarritan ikusten dira pasealekuan. Arazoarekin amaitzeko, herritar batek txakur kaka botatzeko zakarrontzi bereziak eskatzen ditu: "Kaka jasoz gero, txakurrak edozein lekutan ibilita ere ez lukete trabarik egingo".

**MUNDUKO BIZIKLETA KOADRO ONENA BERGARAN!**

**BICIPRECISIÓN IGARTUA** Zubieta kalean 943 76 11 21

LAPIERRE




Lapierre-ren FPS eta OST pibote birtualeko sistema esklusiboak hauxe eskaintzen du:
- Abiadura txikian, konpresioen amortiguazioa handitzea
- Abiadura handian, trantsizio hobea
- Bizikleta egonkorragoa
- Kikback-a desagerrarazten du
- Aurrealdean heltze-ahalmen handiagoa
- Egonkortasun handiagoa
- Bibrazioek ez diete pedalei eragiten

Abantaila horiei guztiei esker, Lapierre-ren X-Control bizikletak oso erosoak dira eta momentu bakoitzean gozatzeko aukera aparta emango dizute.

cervélo




Munduko bizikleta aldizkari garrantzitsuenen iritziz:
- Koadrorik hoberena aukeratu dute
- Arinena
- Transmisio sistemak erantzun ezin hobea ematen du
- Erosoa
- Gogorra
- Asistentzia asegurua barne (laguntza mekanikoa, fisikoa, lapurreta, hausturak)

**Beste markak:** www.flandersfietsen.be, Orbea, Goka, Massi. Colnago, Kuota, GT, Hed, Mavic, Spiuk, Catlike, Etxe Ondo, Shimano, Campagnolo, Sram, Ridley

**KULTURA** > APIRILEKO KULTURA EGITARAUA

# Idazle biren berbaldiak eta ikuskizunak apirilean

Eguenean Huhezinema lehiaketako sari banaketa ekitaldia egingo dute (19:00)

Juan Martin Elexpuru eta Toti Martinez de Lezea etorriko dira berbaldiak ematera


Toti Martinez de Lezea idazlea etxean, idazten dabilen bitartean, txakurra lagun duela. GOIENKARIA

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Kultura Sailak eta Arkupe kudeatzeko ardura duen Ama-Lur kultura koordinakundeak apirileko egitaraua gertatu dute. Aste Santuko jai egunak tartean izanda ekitaldi gutxiago antolatu dituzte, baina guztiak oso interesgarriak.

Eguaztenean, apirilaren 1ean Leizarra musika eskolako ikasle eta irakasleek kontzertua eskainiko dute Korrika datorrela gogoan izanda (18:00). Eta eguenean, apirilak 2, ekitaldi bi izango dira Zaraia aretoan: batetik, umeek euskal ipuinak entzuteko aukera izango dute (16:45) –derrigorrez gonbidapena behar da–. Bestetik, Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultateak antolatutako II. Huhezinema lehiaketaren sari banaketa egingo dute (19:00). Lehiaketara aurkeztutako film labur eta dokumentalik onenak sarituko dituzte ekitaldian. Hortaz, egun horretan ez dute zine-klubari dagokion filmik emango.

Umeek beste ikuskizun bat ere izango dute hilabete bukaeran; Iker Diazek *Kontu kontari kanta kantari* ipuin kontaketa eskainiko die apirilaren 25ean, zapatua, (11:30) liburutegian.

**ELEXPURU ETA MARTINEZ DE LEZEA**
Antolatutako ekitaldien artean bi idazle interesgarriren berbaldiak daude. Juan Martin Elexpuru bergararrak azken hilabeteotan hainbeste zeresan eman duen Iruña-Veleia (Araba) aztarnategiaren gainean jardungo du apirilaren 21ean martitzena, (19:30); *Iruña-Veleia benetakoa edo faltsua* izango da gaia. Eta apirilaren 29an, eguaztena, (19:30) Toti Martinez de Lezea idazle bizkaitarrak berbaldia eskainiko du: *Toti, charla con una escritora*. Eleberri asko idatzi dituen emakume ezagunak idaztearen gaineko kontuen berri emango die Zaraia aretoan elkartutakoei.

KULTURA PLANA

## Kultura plana egiteko herritarren laguntza

Kultura plana egiteko asmoa du Udalak datozen asteotan eta herritarren laguntza gura du horretarako. Horren berri ematen duen idatzia bidali du etxe guztietara egunotan eta izena emateko epea zabalik dago. Interesa duten herritarrek Inma Miguel kultura teknikariari jakinarazi behar diote Arkupera deituta (943 08 10 01) edo mezu bat bidalita posta elektroniko bidez: *kultura@aretxabaleta.net.*

Herriko bizitzaren eta kultura dinamikaren gaineko gogoeta egitea da kultura planaren helburu nagusia eta etorkizuneko ildoak definitzea. Horretarako kulturaren diagnostikoa egingo dute, lan-ildoak definitu eta 2010etik aurrerako planaren ildo nagusiak adostu. Lanerako bost talde osatuko dituzte: herritarrekin lau lantalde eta kultura eragileekin osatutakoa bosgarrena. Lantalde bakoitzak bi saio egingo ditu. Lan horren guztiaren ardura Elhuyar Aholkularitzak izango du.

## Zinema

### Zine-kluba

**Apirilak 16 (19:30)**
*Vicky Cristina Barcelona*
**Apirilak 23 (19:30)**
*Rocknrola*
**Apirilak 30 (19:30)**
*El patio de mi carcel*

### Gainerako filmak

**Apirilak 3 eta 4 (22:00)**
**Apirilak 5 (19:30) eta 6 (16:00)**
*El curioso caso de Benjamin Burton*
**Apirilak 5 (17:00)**
*Bonkers* (euskaraz)
**Apirilak 17 eta 18 (22:00)**
**Apirilak 19 (19:30) eta 20 (16:00)**
*La duda*
**Apirilak 19 (17:00)**
*Un chihuahua en Beverly Hills*
**Abenduak 24 eta 25 (22:00)**
**Apirilak 26 (19:30) eta 27 (16:00)**
*La clase*
**Apirilak 26 (17:00)**
*Space chimps*

**LANAK**

# Zazpi enpresa Mitarteko lanak egiteko

Astelehenerako osoko bilkuran esleituko ditu lanok Udalak, apirilean hasteko

**M.A.** > ARETXABALETA
Mitarte kaleko saneamendu lanak egin eta kaleari itxura berria eman gura dio Udalak. Horretarako Espainiako gobernuaren dirulaguntza jasoko du; 793.916 euro hitzartu dute. Lanok, baina, apirilean hasita egon behar dute eta lehenbailehen esleitu gura dituzte. Zazpi enpresa aurkeztu dira Udalak egindako lehiaketa deialdira eta astelehenean, hilak 30, egingo duten ohiko osoko bilkuran hautatuko dute zeinek egin.

**BIDEGORRIA ETA FAROLAK**
Aozaratzan egin gura duten bidegorriak ere Estatu Fondoko dirulaguntza jasoko du; 303.420 euro hain zuzen. Lan hori egiteko ez du lehiaketa deialdirik egin Udalak, inguruko hainbat enpresekin egin du berba eskaintzak egin ditzaten. Horietako bik bakarrik aurkeztu dituzte eskaintzak eta hirugarren batek esan du ez dela nahikoa diru halako lana egiteko. Aurkeztu dituztenak dira: Excavaciones Arrasate eta Amaral. Egunotan zabalduko dituzte eskaintzak eta zeini eman erabaki. Bidegorria Larrinoko bidegurutzetik Matikua jatetxeraino joango da.

Hirugarren proiektu bat egiteko ere jasoko du dirulaguntza Estatu Fondotik. 54.288 euro izango dira eta herriko 100 bat farolei txapelak aldatzeko erabiliko dute. Txapelok aldatuta energia eraginkortasun handiagoa izatea farolek da asmoa eta argi kutsadura murriztea. Diru horrekin, baina ezingo dituzte herriko farola guztiak egokitu.


Mitartegarai
Baserri turismoa eta taberna
• Batzar gela.
• Jangela.
• Logelak.
• Etxeko produktuen salmenta.
Areantza auzoa ARETXABALETA Tel.: 943 79 17 51



Makai enpresako lorezaina Herriko Plazako lorategia txukuntzen. M.A.

**LANAK** > HERRIKO PLAZA

# Zintarria jarri diete Herriko Plazan dauden lorategi guztiei

Lanak guztiz bukatzeko Telefonica enpresak hainbat kable estali behar ditu; arkupeetako aurrealdeak zelan berritu pentsatzen dabil Udala

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Herriko Plazako lanak abenduan bukatu zituzten, baina oraindik txikikeria batzuk konpontzeko daude eta beste kontu batzuk hobetu egin gura izan dituzte. Hala, plaza erdian dauden sei arteen inguruko lorategiek ez zuten zintarririk, ertzik, eta egunotan ibili dira jartzen Makai enpresako lorezainak. Zintarri barik loratagiko lurra plazan zabaltzen zen euria egiterakoan edo ureztatzerakoan; horregatik, txukunago egon daitezen egurrezko zintarria jarri dute guztien inguruan: "Babes lanak egingo ditu zintarriak eta urak ez du lurrik eroango", argitu digu lorezainak.

Era berean, iaz udazkenean landatutako sei arteek oso itxura ona dutela jakinarazi digute, landatutako lekura egokitzen dabiltzan seinale.

**KABLEAK EZKUTATZEKO**

Lanak guztiz bukatzeko, ostera, telekomunikazioen kable guztiak behar bezala ezkutatzea geratzen da. Telefonica konpainiarenak direla kable horiek jakinarazi digute Hirigintza Saileko arduradunek: "Behin eta berriz esan diegu lanok bukatzeko, baina badirudi ez dagoela euren lehentasunen artean".

Arkupeen artean dauden fatxaden kasuan, diote jabeei dagokiela konponketa lanak egitea. Hala ere, plazako fatxada guztiak dabiltza aztertzen eraberritzeko eta diseinu berria proposatzeko bizilagunei.

## Korrika 16k txokoa dauka Arkupen

Txokoa egin diote 16. Korrikari Arkupe kultura etxean eta dirua batzeko kutxatxoa jarri dute sarrera nagusian. Trukean hainbat koloretako eranskailuak har daitezke. Gainera, gogoratu behar da oraindik kilometroak erosteko aukera dagoela. Lehenbailehen egitea komeni da, lekukoaren banaketa egin behar dutelako gero antolatzaileek. Horretarako, deitu Arrasateko AEKra (943 77 03 69). Kilometroak 380 euro balio du eta erdibana eros daiteke.




M.A.

**KIROLA** > ARETXABALETA KIROL ELKARTEA

# UDAko zuzendaritza osatzeko epea bukatzekotan

Apirilaren 3rako aurkeztu behar dituzte interesatuek hautagai-zerrendak

**M.A.** > ARETXABALETA
Hurrengo egubakoitzean, apirilak 3, bukatuko da Aretxabaleta Kirol Elkarteko zuzendaritza batzordea osatzeko hautagai-zerrendak aurkezteko epea. Otsailean egin zuen deialdia ordura arte egondako zuzendaritzak –dimisioa aurkeztu ostean–, baina oraindik ez dute hautagai-zerrendarik jaso.

Bi urte egin ditu Jokin Antxia presidente izan duen zuzendaritza batzordeak, eta, hainbat desadostasunengatik, dimisioa aurkeztu zuten kide guztiek otsailean. Hauteskunde deia egin zuten orduan, eta maiatzean izango zirela iragarri. Elkarteak lanean jarraitzeko eta eguneroko jardunean inolako gorabeherarik ez izateko batzorde kudeatzailea eratu zuten, hauteskundeak egin bitartean. Hain zuzen ere, zuzendaritza kargua utzitako sei lagunek osatu dute batzorde kudeatzailea.

**HAUTESKUNDEAK MAIATZEAN**

Aretxabaleta Kirol Elkartea zuzentzeko interesa duten hautagaiek taldea osatu behar dute lehenengo; bost laguneko taldea bi ordezkorekin. Zerrenda hori itxia izango da, eta aldaezina. Aretxabaletako 10. posta-kutxara bidali behar da hautagai-zerrenda hori.

Hautagai bat baino gehiago aurkeztuz gero, bozketa egingo dute maiatzean. Bazkideen boto gehien jasotzen duen zerrendako kideek osatuko dute zuzendaritza batzordea eta zerrendaburua izango da presidentea. UDAk 650 bazkide inguru ditu eta batzorde horren ardurapean geratuko dira herriko futbol talde guztiak, areto futbola, karate taldea, pilota taldea eta txirrindularitza saila.

Azken urteotan presidente izan den Jokin Antxiak joan den astean GOIENKARIAri adierazi zion baloratzen dabilela berriro aurkeztu edo ez. Zuzendaritza kargua hartu zuenean abian jarritako proiektua ez duela bukatu uste du Antxiak, eta konfiantzazko taldea osatu eta berriro aurkeztea pentsatzen dabil: "Gure proiektua erabat egonkortzeko bi urte behar ditugu", zioen.

ALE
ARETXABALETA
Lanbide Eskola
Goi mailako Lanbide Heziketarako
Berariazko Institutua

**Bi baldintza hauek betetzen badituzu:**
> Gutxienez 18 urte izatea
> Honako ikasketaren bat gaindituta izatea:
- 2. BBB
- LH-1
- 2. IEE
- DBH
- Sarbide proba gaindituta izatea

**Lan egiten duzun bitartean KARROZERIA titulu ofiziala ateratzea erraza izango da zuretzat.**

**Goi mailako heziketa zikloetarako sarbide proba prestatu nahi duzu?**
Nahikoa duzu 18 urte edukitzea.
Etor zaitez Aretxabaleta Lanbide Eskolara eta informatu
Inskripzioak apirilaren 24 arte.

Etxebarri auzoa z/g
20550 ARETXABALETA (Gipuzkoa)
tel.: 943 79 79 00 / 943 79 79 43
webgunea: *www.iaretxabaleta.com*
e-posta: *ia@iaretxabaleta.com*

Manolo Urtubi > Argazkilaria

# "Argazki artxibo dotorea daukagu, herrian egindako aldaketa guztiak daude jasota"

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

**Asteon jarri dituzte ikusgai Manolo Urtubiren hainbat argazki Arkupeko erakusketa aretoan. Argazkiak ateratzea du zaletasun, eta paisaiak ditu gustuko. Aretxabaleta eta inguruko paisaiak dira ikusgai jarri dituen argazki gehienak.**

**Jarritako 20 argazkietatik gehienak paisaiak dira.**

Bai, paisaiak ditut gustuko. Jaietan, ospakizunetan… ere ateratzen ditut, baina horiek argazki artxiboan gordetzearren dira.

**Eta paisaien artean perretxiko batzuk sartu dituzu.**

Bai, perretxikozalea naizelako, askotan joaten naiz bila.

**Aretxabaletako argazkiak dira erakusketako asko. Argazki asko atera daitezke gurean?**

Egia esateko, ez, momentu egokiak bilatu behar izaten dira argazki esanguratsuak egiteko: argitasuna zaindu, zeruaren ikusgarritasuna topatu… Hala, argazki ezberdinak atera daitezke. Nik neuk zeruak ditut oso gustuko, hodeien itxura, kolorea… guztia ematen diote argazkiari.

**Zelako argazki kamera duzu?**

Bi ditut: Zenza Bronica 6x6 formatu ertainekoa eta Nikon D-200 digitala.

**Photoshop programa erabiltzen duzu argazkiok hobetzeko?**

Oso gutxi, ez dakidalako erabiltzen. Ahal den gutxien ukitzearen aldekoa naiz.

**Noiz hasi zinen argazkiak ateratzen?**

20 bat urte nituenean; ordutik beti daramat aldean kamera.

**Aretxabaletako argazki taldeko kide zara.**

Bai; herriko argazki artxiboa egin dugu Udalarekin eta 6.000 bat argazki izango ditugu. Aretxabaletan ateratzen ditudan argazki guztiak artxibora doaz.

**Hortaz, artxibo dotorea daukagu herrian…**

Bai, zalantza barik. Argazki gehienak 1980tik hona ateratakoak dira, baina zaharragoak ere badaude. Horretarako, herritarrek etxean dituztenak ekartzea komeni da; eskaneatu eta itzuli egiten ditugu eta artxiboan gordeta geratzen dira betiko. Amaia Murgiondok sailkatu eta izendatu egiten ditu guztiak, eta oso lan polita egiten dabil.

**Herriaren historia argazkitan daukagula esan genezake?**

Bai; baserri guztien argazkiak ditugu, eta kaleko etxe guztienak. Herrian egindako aldaketa guztiak jasotzen ditugu. Halako baten badut gogoa argazki horiekin ikus-entzunezko bat gertatzeko, baina denbora behar dugu horretarako.



Manolo Urtubi, erakusketako argazkien alboan. M.A.

**"Paisaiak ditut gustuko, eta batez ere zeruak, guztia ematen diote argazkiari"**

**"Herriko argazki artxiboan 6.000 bat argazki ditugu; baserri eta etxe guztiak daude"**

> BERBALDIA

## Truke programako kideen berbaldia astelehenean

Mundukide fundazioak eta Lanki institutuak dute Truke programa antolatu dute 10. aldiz. Hego Amerika, Ertamerika eta Afrikatik etorritako kideak dabiltza gurean eta Mexikoko bi emakumek berbaldia eskainiko dute astelehenean, hilak 30, Arkupen (18:30).

Carmen Magdalena Campos Mukul eta Angeles Lopez Gartzia kideek euren herrietan abian jarritako proiektuen berri emango dute. Biak dira adituak garapen proiektuetan, eta hainbat taldetako kide dira.

> PARROKIA

## Arantzazuko ibilaldira joateko izenematea zabalik

Apirilaren 4an, zapatua, Arantzazuko ibilaldia egingo du Donostiako Elizbarrutiak, urtero legez. Aurtengo leloa da *Familia gara, familian gara*. Ibilaldi horretara autobusez joan gura dutenek izena eman behar dute eta 12 euro ordaindu parrokiako sakristian. Azken eguna domeka da.

Bihar, ostera, kafe tertulia egingo dute parrokiako lokaletan (16:30). *Katolikoa, eta zer?* da gaia eta interesa duen edonor joan daiteke.

> UDALEKUAK

## Aldundiaren udalekuetarako izenematea zabalik

Urtero legez, Foru Aldundiak udalekuak antolatu ditu 7 eta 13 urte arteko neska-mutikoendako. Izena emateko epea zabalik dago apirilaren 3a bitartean. Aretxabaletarrek Gazteria Zerbitzuan (astelehen eta eguaztenetan, 09:00-13:30 eta 14:00-17:00) eta Atxagazte gaztelekuan eman dezakete izena (943 08 10 01).

Internet bidez ere eman daiteke, Aldundiko webgunean: *www.gipuzkoa.net/oporraldi*.

HEZKUNTZA > LITERATURA ASTEA

# Literatura Astea hasiko dute Kurtzebarrin

'Literaturari lekua' lelopean egingo dute astea; ekitaldien artean 'Txiliku'-rekin solasaldia dute

M.A. > ARETXABALETA

Literatura Astea hasiko dute gaur, egubakoitza, Kurtzebarri eskolan. Urtero egiten duten astea da eta aurten *Literaturari lekua* izena jarri diote. Apirilaren 2a bitartean hainbat ekitaldi izango dituzte eskolan Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasle eta irakasleek.

**TXOTXONGILOAK ETA SOLASALDIA**

*Hitzen lapurra* bertsotxongilo emanaldiak hasiko du gaur Literatura Astea. 3 eta 8 urte arteko ikasleek ikusiko dituzte bertsoetan oinarritutako txotxongiloen gorabeherak. Ikasle nagusiagoek, ostera, liburuetan topa daitezkeen altxorren bila jardungo dute liburutegian. Lehen Hezkuntzako seigarren mailakoek gertatu diete jokoa.

Datorren astean, astelehenetik eguaztenera bitartean, beste hainbat ekitaldi izango dituzte. Jesus Mari Olaizola *Txiliku* idazlea izango dute solaskide 6 eta 11 urte arteko ikasleek. Osaba Bin Floren liburuaren idazlea gaztetxoen galderen zain izango da. Ikasle txikienek, ostera, ipuinak entzungo dituzte. Bertako irakasleak eta Irati Pagoaga aretxabaletarrak jardungo dute kontu kontari.

Gainera, ikasleek eurek egindako lanak trukatuko dituzte egun horietan. Eta eguenean, apirilak 2, XVIII. Irakur Maratoia egingo dute.

**DBH-KOAK, APIRILAREN 22TIK 28RA**

DBHko ikasleek apirilaren 22tik 28ra egingo dute Literatura Astea. Eta ingelesez gertatutako hainbat ekintza izango dituzte.



Irati Pagoaga aretxabaletarra, iazko Literatura Astean ipuinak kontatzen. M.A.



KIROLA > ALOÑAKO IGOERA

# Aloñako Igoerako izenemate epea bihar zabalduko dute

Izenak Turismo Bulegoan eta 'www.aloina.net' webgunean eman daitezke

Izenematea apirilaren 18ra arte egin daiteke eta proba apirilaren 26an egingo dute

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Apirilaren 26an jokatuko duten Aloñako V. Igoerarako izenemate epea bihar zabalduko dute, apirilaren 18ra arte. Izenemate epetik kanpo ez dituzte korrikalaririk onartuko. Parte-hartzaileek bi bide dituzte izena ematea: alde batetik, Oñatiko Turismo Bulegora dei dezakete (943 78 34 53), astelehenetik egubakoitzera 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era; zapatuetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 18:30era; eta domekatan 10:00etatik 14:00etara. Beste alde batetik, *www.aloina.net* webgunean eman dezakete izena. Mendiko federatu txartela dutenek 15 euro ordainduko dituzte, eta federatu txartela ez dutenek 20 euro. Euskadiko Kutxako eta Kutxako kontu korronteetan dirua sartzerakoan korrikalariaren izena jartzea ezinbestekoa dute, dortsala jasotzeko orduan arazorik izan ez dezaten.

Igoeran parte hartzeko 18 urte beteta izatea ezinbestekoa da, baina ez da derrigorrezkoa mendiko federatu txartela edukitzea. Igoerako antolatzaileek gehienez 300 korrikalari onartuko dituzte apirilaren 26ko proban.

Lasterketa bukatu ondoren, korrikalariek dutxatzeko aukera izango dute kiroldegiko aldagelatan. Helmugako kontrola 13:30ean itxiko dute eta ondoren egingo dute sari banaketa ekitaldia plazan.

**15 KILOMETRO**

Aloñako Igoerak ez du berrikuntzarik. 15,5 kilometroko luzera du, eta horietatik hiru kilometro asfalto gainean egingo dituzte korrikalariek. Lasterketak 2.200 metroko desnibela du, eta ibilbidean denborak kontrolatzeko hiru gune jarriko dituzte; hain zuzen, Urtiagainen, Belarren eta Aloñan. Azken denbora plazako helmugan hartuko dute. Bestalde, hainbat gune jarriko dituzte jatekoarekin eta edatekoarekin: Urtiagainen edariak jarriko dituzte, Belarren edariak eta janaria, Aloñan edaria eta helmugan, edaria eta janaria.

## Gosari osasungarriak Elkar Hezi ikastetxean


ELKAR HEZI

Bihotz Bizi elkarteak antolatuta gosari osasungarriak dastatu zituzten Elkar Hezi ikastetxeko bosgarren mailako 35 neska-mutikok. Gosaltzeko esnea, kakaoa, ogia, hestebetea, oliba-olioa eta fruta jan zituzten hamar minututan. *Gosari bihotz osasungarriak* kanpainaren helburu nagusia gosari on batek duen garrantzia azaltzea da. "Eskolan ikasiko dute hamar minututan gosari orekatua jan dezaketela", dio Elkar Heziko zuzendari Sor Mari Carmen Galdosek.

ERAKUSKETA > INTXORTA 1937 KULTUR ELKARTEAK ANTOLATUTA

# Harrera ona izan du Gerra Zibilaren gaineko erakusketak: 1.030 lagunek bisitatu dute

Bestalde, gerraren gainean Intxorta 1937 Kultur Elkarteak antolatutako bi hitzaldietan 145 lagun elkartu ziren

M.B. > OÑATI

Intxorta 1937 Kultur Elkarteak antolatutako *Izen guztiak, aurpegi guztiak* delako erakusketak harrera ona izan du herritarren artean. Antolatzaileek balorazioa positiboa egin dute. "Guztira, 1.030 lagun egon ziren erakusketako panelak ikusten, eta 145 lagun hiltzaldietan. Bisitari gehienak pertsona nagusiak izan diren arren, Zuazola-Larraña Institutuko 30 ikasle egon ziren. Kopuru horiek ikusita oso gustura gaude oñatiarrek emandako erantzunarekin", esan digu Intxorta taldeko Juan Ramon Garaik. Herritarren aldetik esker hitzak jaso dituztela esan digu.

**LIBURUA ETA IKUS-ENTZUNEZKOA**

Erakusketaren bigarren helburua argazkietako aurpegiak identifikatzen laguntzeko herritarren parte-hartzea bultzatzea zen, eta lortu dutela esan digu: "20 bat pertsona egon ziren erakusketan argazki eta dokumentu berriekin. 18 gerran galdutako senideen argazkiak ziren eta beste biak gerra irabazi zuten senideen argazkiak".

Bestalde, lanean jarraitzeko oñatiarrekin talde bat sortu dutela esan digute Intxortako kideek; hain zuzen ere, lau oñatiar eta arrasatear bat elkartu dira: hiru historialari, kazetari bat eta abokatu bat.

Aurrera begira egingo duten lana ere zehaztu dute; alegia, Gerra Zibilean eta Errepresio garaian desagertutako oñatiarren bizitza-memoriak batu, transkribatu eta argitalpen baterako idazlana egingo dute. Gainera, egindako elkarrizketekin ikus-entzunezkoa grabatzeko asmoa dute.

> MUSIKA

## Ganbara Txikiko talde guztiek kontzertua egingo dute bihar

Ganbara Txikiko talde guztiek udaberri kontzertua egingo dute bihar Santa Ana antzokian 19.00etan. Hain zuzen ere, kantu tailerreko lehen eta bigarren mailetako, Ganbara Txikitxo, Ganbara Txiki eta Ganbara Gazte taldeko neska-mutikoak igoko dira oholtza gainera.

Talde guztiek banaka abestuko dute, eta bukatzeko bost taldeek hiru kantu abestuko dituzte elkarrekin. Zuzendari lanak Aitor Biainek eta, lehen aldiz, Miren Plazaolak egingo dituzte. Piano-joleak Eli Mendiaraz eta Miren Plazaola izango dira.

Kontzertuko sarrerak aldez aurretik eros daitezke kultura etxean.

### oharrak

MENDIA

**> Aste bukaerako mendi irteera egingo dute**

Segurtasun teknikak praktikatzeko aste bukaerako irteera egingo dute. Autobusa bihar 05:30ean irtengo da parrokia aurrealdetik.

ANTZERKIA

**> 'Amama, zenbat urte?' antzezlana, erretiratuekin**

Udaberriari ongietorria egiteko astea bukatzeko, Pake Leku elkarteko Ikusi-Makusi taldeak *Amama, zenbat urte?*antzezlana eskainiko du Santa Ana antzokian gaur, egubakoitza, 21:00etan.

BIRZIKLAPENA

**> Birziklatutako olioa batuko dute zapatuan**

Etxeko olio birziklatua biltzen duen Puntu Berde Mugikorra plazako aparkalekuan egongo da bihar, 09:00etatik 13:00etara.

KINTO BAZKARIA

**> 1969an jaiotakoek 40 urteko bazkaria egingo dute**

Maiatzaren 23an egingo dute bazkaria Etxeberria Jatetxean 1969an jaiotakoek. Dagoeneko izenemate epea zabalik dute maiatzaren 11ra arte. 25 euro sartu behar dituzte Banco Guipuzcoanon 00420046050110103319 zenbakian, izen-abizenak ondo zehaztuta. Bestalde, txikitako argazkiak batu gura dituzte. Argazkiok Etxeberria Jatetxean utzi beharko dituzte.

HITZALDIA

**> Ahotsaren garrantziari buruzko hitzaldia**

Ganbara Txikik antolatuta *Ahotsaren garrantzia haurrarengan* delako hitzaldia egingo du Mirari Perez medikufoniatrak. Hitzaldia kultura etxean egingo du eguaztenean, apirilaren 1ean, 18:30ean.

**MAGIA** > HELDUENDAKO SAIOA

# Angel magoak magia eta umorea uztartuko ditu gaur unibertsitatean

Unibertsitatean izango da helduendako magia saioa, 22:30ean; horretarako sarrera librea izango da

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA
Magia gustuko dutenek hitzordua dute gaur, egubakoitza, gauean Huheziko eraikinean. Eskoriatzako Udalak antolatuta eta Kutxak babestuta eta ordaindu-ta, Angel magoak helduendako saioa eskainiko du unibertsitatean, 22:30ean. Horretarako sarrera librea izango da.

Angel magoak magia eta umorea uztartuko ditu gaurko ikuskizunean. Horretan ikusleek ere parte-hartzeko aukera izango dute. Nahasketa horri esker, partaideek umorearen eta magiaren artean sortzen den konplizitateaz gozatzeko aukera izango dute. Bada, esperientzia harrigarriz betetako emanaldi horrek txunditua utziko ditu unibertsitateko eraikinera joaten direnak.


Angel magoa, ikuskizun bateko irudian. GOIENKARIA

**EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ**
Magia eta umorea nahasteaz gain, euskara eta gaztelania ere erabiliko ditu ordubete inguru iraungo duen saioan.

**KULTURA** > LIBURUAREN EGUNA

# Bideo lehiaketa antolatu du Udalak

Liburuaren Egunaren harira Udalak urtero antolatzen duen 'Kataia eten barik' egitaraua berritasun batekin dator: bideo lehiaketa

**M.B.**> ESKORIATZA
Eskoriatzako Udalak bideo lehiaketa antolatu du aurten lehen aldiz. Ekimen hori azken urteotan *Kataia eten barik* izeneko egitarauaren barruan sartuta dago. Horren asmoa da Liburuaren Egunaren harira zenbait ekintza antolatzea, kultura artekotasuna, irakurtzeko zaletasuna eta generazio arteko harremana oinarri hartuta.

12 urtetik gorako edozeinek har dezake parte, bakarka edo taldeka. Gaia *Kanpotik nator, baina bertakoa naiz* da. Lanaren iraupena, gehienez, bost minutukoa izango da. Apirilaren 19an amaituko da bideoak aurkezteko epea.

Lanak *Euskaltube*, *Vimeo* edo *Youtube*-n kargatu beharko dira. Jarraian, *www.eskoriatza.net/kataia/formularioa* web orrian dagoen formularioa bete eta bidali egin beharko da. Lanek berriak izan beharko dute; hau da, 2008. urtetik gaur arte egindakoak. Udalak jakinarazi du, horren harira, ez duela onartuko beste sariketa batzuetan saria irabazi duen lanik.

**ADIN TXIKIKOAK**
Aurkeztutako lanean adin txikikorik agertuz gero, horien gurasoek edo tutoreek sinatutako baimen idatzia aurkeztu beharko du. Eredua *www.eskoriatza.net/kataia/baimena* helbidean aurki daiteke.

**300 EUROKO SARIA**
Lehiaketak sari bakarra izango du, 300 eurokoa. Sari banaketa apirilaren 24an egingo da, arratsaldean, plazan egingo den liburu azokak irauten duen bitartean. Informazio gehiago gura duenak *kultura@eskoriatza.net* helbidera idatz dezake.

**PINTURA** > LEHIAKETA

# Margo lehiaketan herria eta elizateak protagonista

Partaideek oihalak 09:00etatik 11:00etara zigilatu beharko dituzte kultura etxean

**M.B.** > ESKORIATZA
Eskoriatzako III. Margo Lehiaketa aire zabalean domekan egingo dute. Teknika librea izango da eta gaia: *Eskoriatza eta elizateak*. Nahi duenak parte har dezake; oihalak 09:00etatik 11:00etara zigilatuko dira kultura etxean eta margolanak 14:00ak baino lehen entregatu beharko dira Ibarraundin. Jarraian, 14:30ean, bazkaria egongo da parte hartzaileendako.

**SARIAK**
Epamahaiaren erabakia 18:30ean jakinaraziko da Ibarraundin eta ondoren sari banaketa egingo da. Hiru sari mota egongo dira. Helduen atalean, irabazleak 500 euro irabaziko ditu; bigarrenak, 250; eta hirugarrenak, 150 euro. 16 urte beherakoetan, lehenak 100 euro, bigarrenak 50 eta hirugarrenak 30. Herriko lanik onenak, berriz, 150 euroko saria jasoko du. Epaimahaiak, baina, saririk ez ematea erabaki dezake, lanek ez badute kalitate artistiko nahikorik.

Margolanak astelehenetik (hilak 30) apirilaren 17ra egongo dira ikusgai Ibarraundin.

**GAZTEAK** > IKASTAROA

# Gatazkak konpontzeko ikastaroa antolatu dute, gurasoei zuzenduta

**M.B.** > ESKORIATZA
Apirilean eta maiatzean, gurasoei zuzenduta, *Ez didazu entzuten ezta ulertzen ere. Agian ez dut argi hitz egiten?* ikastaroa egingo dute. Interesa dutenek ahalik eta azkarren eman behar dute izena Udaleko Gizarte Zerbitzuetan edo 943 71 31 36 telefono zenbakian. Matrikularen prezioa hamar euro da.

Ikastaroak lau saio praktiko izango ditu; Gizagune fundazioko kide Maria Eugenia Ramosek zuzenduko ditu horiek. Apirilaren 2an, *Nola ulertu gatazka egoera: dituzten elementuak eta nola bideratu* izeneko saioa eskainiko dute. Apirilaren 23an, *Komunikazioa aztertzen: esaten dudana eta nola ulertzen den; komunikazio probokatzailea eta ikertzailea*-ren gainean jardungo dute; apirilaren 30ean, *Portaerak ulertzen: norberarenak eta inorenak* tratatuko dituzte; eta maiatzaren 7an, *Gatazkak konpontzeko prozedurak*. Saioak kultura etxean izango dira, 18:00etatik 19:30era.



Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa
Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45

**EUSKARA** > KORRIKA

# Korrika iritsi arte, herrian ekimen asko gertatu dituzte

Datorren eguenean, apirilak 2, ikastetxeetako umeek Korrika txikia egingo dute arratsaldean

Eskoriatzara apirilaren 5eko goizaldean iritsiko da: 06:22ean; hortik Gasteizerantz abiatuko da



Korrika 15 ere gauean pasa zen Eskoriatzatik. GOIENKARIA

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Atzo, eguena, Korrikari hasiera eman zioten Tuteran. Hamaika egunez eta gelditu gabe, Euskal Herria zeharkatuko du lasterketa ezagunenak hamaseigarrenez. Guztira, 2.000 kilometrotik gora egingo ditu euskararen alde. Eskoriatzara azken txanpan iritsiko da; apirilak 5eko goizaldean, hain zuzen. Aretxabaletatik sartuko da, 06:22ak inguruan, eta herriko kaleak zeharkatu ondoren Gasteizerako bidea hartuko du. Han milaka euskaltzale izango ditu zain.

Korrikaren harira, hainbat ekimen antolatu dira herrian datozen egunotan. Apirilaren 2an, eguena, hasiko dira horiek, Korrika txikiarekin. Etxeko txikienek 15:00etan eskolak albo batera utziko dituzte eta herriko kaleak hartuko dituzte, korrika egiteko asmoz. Jarraian, indarrak behar bezala berreskuratzeko, txokolatea hartu ahal izango dute parte hartzaileek herriko plazan. Antolatzaileek gorarazi dute, horren harira, bakoitzak bere edalontzia eraman beharko duela txokolatea probatu gura badu.

Musikak ere bere tokia izango du egun horretan; bertso saioa izango da eta 17:00etan. Ikastetxeetako umeek kantuan egingo dute herriko plazan.

**JOLASAK ETA TXISTORRA**

Barikuan lasai egon ostean, zapatu arratsaldean ekimenak itzuliko dira; 18:00etan, haurrendako herri jolasak egingo dituzte plazan eta ordubete beranduago, txistorra pintxoak jarriko dira salgai toki berean. Azken ekimen horrekin ateratako diru kopurua Korrikarako izango dela jakinarazi dute antolatzaileek. Txistorra banatzen duten bitartean, kantu-poteoa egongo da ingurunean. 20:00etan, berriz, aurreko Korrikaren edizioetako bideoklipak botako dituzte plazan.

Hortik aurrera, etxera goiz joatea edo alderantziz, parranda luzea egitea komeni da; Korrika, esan bezala, 06:22ean iritsiko dela aurreikusita dagoelako. Hori bukatutakoan lasterkari denondako txokolate beroa eta gailetak egongo dira plazan.

ESKAINTZA BEREZIA

Martxoaren 27tik apirilaren 30era

FOTODEPILAZIOA

HORTZ-FOTOZURITZEA





Hanka osoak + izterrondoak: 250 €

Hortz-fotozuritzea: 150 €

EDURNE

ESTETIKAN ESPEZIALIZATUTAKO ZENTROA

ESKORIATZA
943 71 51 54

**EUSKARA** > KORRIKA 16

# Antzuolarrak Aiherrara joango dira Korrika lehen aldiz hartzera

Domeka arratsaldean ailegatuko da Korrika Antzuolarekin senidetutako herrira

Antzuolara apirilaren 4an helduko da eta Korrika Txikia egubakoitzean egingo dute

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA
Atzo, eguena, hasi zen Korrika 16 Tuteran. Antzuolara apirilaren 4an ailegatuko da euskararen aldeko lasterketa, baina aurrez herri mordoa pasatuko ditu, tartean baita Antzuolarekin senidetuta dagoen Aiherra ere. Martxoaren 29an, 18:03rako iritsiko da Korrika Aiherrara, aurreikuspenen arabera, eta lehen aldia da, gainera, Korrika Aiherratik pasatuko dena. Antzuolarrei gonbidapena egin diete parte hartzeko eta Korrika batzordekoek esan digutenez, "detaile polita izango litzateke hara joatea". Hortaz, domekan, 15:00etarako Antzuolako plazan egin dute hitzordua eta Aiherrara joatera animatzen direnak han elkartuko dira, gero autoetan joateko.

Antzuolan Korrikaren harira egin da ekintzarik, eta hurrengo aste bukaerarako ere iragarri dituzte ekitaldi gehiago.

Egubakoitzean, apirilaren 3an, Korrika Txikia egingo dute goizean, 11:30ean; arratsaldean, berriz, triki-bertso poteoa izango da, 19:00etan hasita.

Apirilaren 4an, zapatuan, 11:00etatik 13:00etara bitartean umeendako jolasak izango dira frontoian: puzgarriak, txapak, aerobika… Umeek arratsaldean ere izango dute zerekin gozatu, zinema saioa izango baita eurendako, 16:30ean, Olaranen.

Ondoren, film laburren emanaldia egingo dute, 19:00etan, eta Olaranen izango da hori ere.

**AFARIRAKO TXARTELAK SALGAI**
Gauerako herri afaria antolatu dute. 21:00etan izango da, frontoian, eta txartelak aurrez salgai egongo dira Gailur, Arin, Larrea eta Mox tabernetan, Altzarte gozotegian, Martin okindegian eta gaztetxean 12 euroren truke, martxoaren 29ra bitartean. Afaritarako gertatu duten menua honako hau da: marmitakoa, oilasko errea entsaladarekin, etxeko hostopila, kafea eta kopa.

**KARAOKEA GAZTETXEAN**
Afalosteak luze joko du; izan ere, 01:05erako dago iragarrita Korrika Antzuolara iristea. Bergaratik datorrenean, herrian ongietorria egingo diote. Ondoren, opari sorpresa eta txokolate beroa egongo dira plazan.

Korrika pasatu ondoren, jaiarekin jarraitu nahi dutenek gaztetxean izango dute parrandarako aukera, karaokea eta jolasak antolatu baitituzte.

**INGURUMENA** > MENDI IRTEERA

## Ilunpe eta Aizpurutxo arteko ibilaldia domekan

Antzuolako herrigunetik urrutien dauden eta ezezagunak diren inguruak ezagutuko dituzte

**I. A.** > ANTZUOLA
Domekan, martxoaren 29an, *Antzuola ezagutzen* egitasmoaren barruko bigarren ibilbidea egingo dute Ilunpe eta Aizpurutxo artean, Ugarrixa eta Gorlan barrena.

Hitzordua 09:00etarako egin dute Sagastin, eta autoz joango dira irteera gunera. Gutxi gorabehera, lau orduko ibilaldia izango da, irteeraren antolatzaile en esanetan. Udala eta Arrola mendizale elkartea arduratu dira, hain zuzen ere, irteera gertatzeaz.

Ibilbidean barrena ikusiko dituzte Bergara eta Antzuola bitarteko hamar mugarri, Txangala auzoko baserriak, Ameztiko elur-zuloa, Itsumendi gaina, Azkueko herri sailak eta Iturri Berri eta Gorlako eta Oritzako iturriak.

Antzuolako herrigunetik urrutien dauden eta, beharbada, herritarrendako ezezagunenak diren inguruak eta baserriak ikusteko aukera izango dute ibilaldian parte hartzen dutenek.

**AZKENA MAIATZEAN**
*Antzuola ezagutzen* egitasmoko hurrengo ibilbidea, azkena hain zuzen ere, maiatzaren 10ean izango da, Aizpurutxo eta Deskarga artean.



Lakiolan, Antzuola ezagutzeko egindako lehen irteeran. GOIENKARIA



Pello Bilbao, iaz Uzarragako helmugan lehena. JOSETXO ARANTZABAL

**KIROLA** > TXIRRINDULARITZA

## Uzarragako igoera zapatu arratsaldean jokatuko da

Helmugan gogoan izango dute irabazle guztiei sariak eman zizkien Alfonso Agirre

**I. A.** > ANTZUOLA
Aiastui txirrindulari taldeak antolatuta Uzarragako Igoera jokatuko da zapatuan, martxoaren 28an. Junior mailako lasterketan 100 txirrindulari inguruk hartuko dute parte, gehienak gipuzkoarrak.

**81 KILOMETROKO IBILBIDEA**
16:00etan Sagastin abiatu eta Bergara-Elorregi (San Prudentzio)-Zubillaga-Elorregi-Bergara-Antzuola ibilbidea egingo dute hiru aldiz; hirugarren itzulian, Zubillagatik Oñatira joango dira txirrindulariak eta Zubillaga, Elorregi eta Bergaratik buelta egin ostean, helmuga Uzarragako gainean izango dute; 81 kilometro guztira.

Antolatzaileek, txirrindulariek eta zaleek gogoan izango dute aurten helmugan faltako den Alfonso Agirre. Hura izan zen lasterketako irabazle guztiei sariak eman zizkiena, eta, falta den honetan, harekin akordatuko dira haren bidea jarraitu dutenak, batez ere.

### oharrak

KIROLA
**> Pilota txapelketa**
Frontoi txikiko pilota txapelketa iritsi da amaierara. Joan den aste bukaeran finalerdiak jokatuta, oraingoan Untzarrik Iñurrigarroren aurka jokatuko du hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partidua. Norgehiagoka gaur, egubakoitza, 18:00etan izango da; eta finala horren ostean jokatuko dute Zubik eta Irimok. Finalaren ondoren, afaria izango dute Olalde elkartean frontoi txikiko txapelketan parte hartu duten pilotari guztiek.

IKUSKIZUNA
**> Txotxongiloak**
Domekan, martxoaren 29an, txotxongilo emanaldia izango da, 18:00etan, Olaran etxean. Txotxongilo taldeak *Erreka Mari* ikuskizuna eskainiko du umeendako. Euskal mitologiako lamiak istorioaren oinarri hartuta kontatuko dute Erreka Marik eta Martinek zein arazo dituzten herriko biztanleekin, ez direlako besteak bezalakoak. Maitasunari, ingurumenaren zaintzari eta besteekiko begiruneari buruz hitz egingo dute ikuskizunean, umeek ulertzeko moduan. Sarrera doan izango da.

MUSIKA
**> Trikitixa Eguna**
Antzuolako trikitilariak elkartzeko asmoz, martxoaren 31n 19:00etan Olaranen izango den batzar irekirako dei egin dute Debagoieneko Trikitixa Egunaren antolatzaileek. Asmoa da herrian trikitia ikasten ibilitakoekin edo gaur egun trikitia jotzen dutenekin berba egitea egun horretarako gauzak antolatzeko eta, bide batez, eurak ere parte hartzera animatzeko.

KULTURA
**> Antzerkia egubakoitzean**
Apirilaren 3an, egubakoitzean, Oñatiko Ikusi-Makusi erretiratuen taldeak *Amama, zenbat urte?* lana eskainiko du. Torresoroako auditoriumean izango da, 19:00etan. Antzuolako erretiratuen elkarteak antolatu du.

MUJIKA HARATEGIA
*Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak*
Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

KIROLA > HERRI KROSA DOMEKAN

# Helduendako krosa ere egingo du domekan Egokik

## 11:00etan haurrak hasiko dira lasterka eta jarraian etorriko da helduen txanda

L.Z. > ELGETA
Eguraldiak eragozpenik sortzen ez badu, domekan, hilak 29, bi kros egingo dira herrian, Egokik eta Udalak antolatuta.

Bi taldetan banatuta, lehenengo, 8-12 urte bitarteko gazteek egingo dute lasterka. 11:00etan benjaminak –3. eta 4. mailetako gazteak– abiatuko dira 800 metroko zirkuitua betetzera. Eta jarraian, alebinen –5. eta 6. mailetako gazteak– txanda izango da.

**HELDUAK ERE LASTERKA**
Aurtengo berrikuntza, baina, helduendako herri krosa izango da; gazteen probak amaitutakoan abiatuko dira helduak.

Bolatoki inguruan bi kilometroko zirkuitua egin beharko dute, bikoteka. Bikote horiek mistoak izan beharko dute. Herri krosa, beraz, berezia izango da aurten. Azken orduan bikoterik animatzen bada, izenematea zabalik dago oraindik ere.

ERRETIRATUAK > URTEKO BATZAR OROKORRA

# Zuzendaritza batzordeak errelebua eskatuko du

## Gaur, hilak 27, egingo dute batzarra, 17:00etan hasita, Ozkarbi elkartean

L.Z. > ELGETA
Elgetako erretiratuek hainbat gai izango dituzte aztergai gaurko batzar orokorrean. Zuzendaritza batzordeak aurkeztutako gai zerrendan, diru kontuak, egoitzaren gainean Udalak eta Ozkarbi elkarteak duten akordioa eta elkartearen izen aldaketa nabarmentzen dira.

Orain arte *Zaharren biltokia* izenarekin deitua izan dena *Xalbadorpe Erretiratuen Elkartea* deitzea proposatuko dute batzarrean. "Egungo deitura ez zaigu gustatzen", adierazi du Zezilio Totorikaguena presidenteak. "Ez zaigu egokia iruditzen. Lau izenekin bueltaka ibili ostean, *Xalbadorpe Erretiratuen Elkartea* izenak harrera ona izan du zuzendaritzan".

Zuzendaritza berritzeko beharra ere azpimarratu du presidenteak. "Bi kide berritu gura genituzke. Neronek hiru urte daramatzat presidente karguan eta aldaketa beharrezkoa dela uste dut. Ez dago boluntariorik, baina nire azken urtea da hau".

**MAHAI JOKOAK**
Hurrengo barikurako ere hitzordua antolatu dute erretiratuek. Urteroko mahai joko saioa egingo dute. 16:00etan hasita, briskan, musean eta tutean arituko dira Ozkarbi n. Parte hartu nahi duten erretiratuek hilaren 3an elkartera hurbildu besterik ez dute.



Idoia Iriarte odontologoa eta Vicky Gonzalez erizaina. L.Z.

**Idoia Iriarte** > Odontologoa

# "Aurreko astean hasi gara Elgetako lehenengo bezeroak artatzen"

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA
**Hortz klinika zabaldu berri du Idoia Iriarte odontologo elorriarrak Torrealdean. Ekainean beteko dira 18 urte Bergaran kontsulta zabaldu zuena. Aurrerantzean, Elgetan ere egingo du lan. Vicky Gonzalez erizainaren laguntzarekin hartuko ditu elgetarrak.**

**Elgetan kontsulta zabaltzera animatu zara. Zergatik?**

Elgetan ez dago hortz klinikarik, eta, denbora daukadanez, erabaki dut herrian kontsulta zabaltzea. Ordutegi moduko bat antolatu dugu, baina gauzak zelan doazen ikusita erabakiko dugu gure jarduna zenbatekoa izango den. Oraingoz, Vicky erizaina astelehenetik eguenera egongo da Elgetako kontsultan, 17:00etatik 19:00etara. Hitzorduak hartu, jendearen kontsultak artatu, tratamendu puntualak egin... Hori izango da haren lana asteko egun horietan. Ni, hasiera baten, eguazten arratsaldeetan egongo naiz Elgetan, eta, behar izanez gero, eguen goizetan ere bai.

**Zein tratamendu mota egiten dituzu?**

Odontologia orokorra egiten dut: endodontziak, protesiak, zorroak edo fundak, zubiak, hortz estetika, garbiketak, hortzetako enpasteak, hagin berregiteak, haginen ateratzeak... Datorren urtetik aurrera, gainera, Eusko Jaurlaritzaren *Padi* izeneko programan sartu nahiko nuke. 7-14 urte bitarteko umeendako programa berezia da, eta izena emanda nago dagoeneko.

**Hasi dira honezkero lehenengo bezeroak Elgetako kontsultara hurbiltzen?**

Bai. Kontsulta prest genuen martxo hasierarako, baina lehenengo bezeroak aurreko astean artatu ditugu. Aurrerantzean, Torrealdean aurkituko gaituzte, 2. zenbakian. Ni neu ez banago ere, Vicky erizaina bertan aurkituko dute arratsaldero astelehenetik eguenera bitartean.

bere ustez



Beatriz Zabalondo

# Oles udaberri argiari

Halako negurik horregatik! Gogorra, iluna, txakurra, makurra, hitsa, gaitza! Zerua itxi digun geruza gotorra begietako argia irentsi eta etxekoak eramatera eta auzokoak kolpatzera etorri zaigu, amets gozo apurrak lurpean estalita.

Eguraldia beltzean beltz izan dugu, etxe zulotik irteteko adore izpi oro kamusteko helburu zikoitzarekin. Hala irudi niri, behintzat.

Goibeltasun horrek toki gutxi utzi du baikortasunerako. Geure barrura bilduta, indar meharrak ahalik eta gutxien erreta, saminari lekua egin eta denborari igarotzen utzi behar. Ez dut ezabatu gura bizipen tristeen unea, ez dut gaitzetsi gura nahigabeak utzitako hutsa. Mina gutxiesteak ere ez du arintzen barrua.

**"Aurten, udaberriko izerdi berria bizi guztiko oroitzapenez jantzia datorkigu"**

Lehen eguzki printzen berora, bihotzak non urtu baduen besoetara irekita, hasi dira berriz bizi-errekak higitzen. Aurten, udaberriko izerdi berria bizi guztiko oroitzapenez jantzia datorkigu, behinola gure ondoan izandakoak orain ere gertu ditugula gogoraraztera, maitasunaren ferekaz gure zauriak laztantzera. Halaxe onartu eta gordeko ditugula sentitu dugunean ernatu zaizkigu hazi inoizko maiteenak.

> ANTZERKIA

### Preso talde baten istorioak gaur, 22:30ean, Espaloian

Zanguango taldeak *Tocata y fuga en fu renol* izeneko antzezlana egingo du gaur, barikua, Espaloian.

Preso talde baten istorioak jasotzen ditu antzezlanak. Egindako kalteak gizarteari ordaindu eta errehabilitazio edo bergizarteratzeko bidea hasteko talde koral bat osatuko dute kartzelan. Pertsonok ditugun ardurez jardungo dute Zanguango taldekoek, 22:30ean hasita.

Antzerkia, zuzeneko musika-dantza, txotxongilo jolasak... tragikomedia baten nahastuko dituzte guztiak.

frontenis txapelketa

# Aste bukaeran frontenis partidurik ez

Aste bukaeran atseden hartuko dute Elgetako I. frontenis txapelketan lehian diharduten bikoteek.

Txapelketa erregularra azken txanpan sartu da dagoeneko, eta zenbait bikoteren artean zabalik jarraitzen du oraindik ere finalerdietarako txartelak lortzeko lehiak.

Gizonezkoetan txapela jantzeko faboritoen artean Eñaut Arantzeta eta Haritz Gallastegi nabarmentzen dira. Ez ditu oraindik inork mendean hartu. Emakumezkoen txapelketan gauzak estuago daude.

**SAILKAPENAK**

| Gizonezkoen txapelketa | J | I | G | T.A. | T.K. |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Eñaut Arantzeta-Haritz Gallastegi | 8 | 8 | 0 | 200 | 99 |
| 2. Hodei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga | 7 | 6 | 1 | 170 | 108 |
| 3. Asier Morales-Asier Osoro | 8 | 5 | 3 | 174 | 163 |
| 4. Ibon Untzetabarrenetxea-Ander Gorosabel | 8 | 4 | 4 | 169 | 157 |
| 5. Josu Arantzabal-Fernando Zenitagoia | 8 | 4 | 4 | 166 | 149 |
| 6. Mikel Arkarazo-Josu Olasolo | 8 | 4 | 4 | 165 | 175 |
| 7. Adrian Gorostiza-Sergio Bouzas | 6 | 4 | 2 | 128 | 117 |
| 8. Oskar Sarasua-Roberto Mora | 7 | 2 | 5 | 126 | 154 |
| 9. Jose Monterroso-Antton Pierrugues | 8 | 1 | 7 | 121 | 190 |
| 10. Josu Urizar-Jabi Gamarra | 8 | 0 | 8 | 93 | 200 |
| **Emakumezkoen txapelketa** | | | | | |
| 1. Nagore Ojanguren-Idoia Serna | 4 | 3 | 1 | 97 | 58 |
| 2. Mireia Berriozabal-Rebeka Ubera | 4 | 3 | 1 | 95 | 77 |
| 3. Idoia Elkoro-Garbiñe Sarasketa | 4 | 3 | 1 | 95 | 81 |
| 4. Nagore Morales-Janire Lazkano | 4 | 2 | 2 | 80 | 75 |
| 5. Miren Argi Zeziaga-Idoia Lasa | 4 | 2 | 2 | 69 | 85 |
| 6. Mari Carmen Salas-Izaskun Ojanguren | 4 | 1 | 3 | 61 | 95 |
| 7. Amaia Iribar-Alizia Gartzia | 4 | 0 | 4 | 63 | 100 |

oharrak

ERAKUSKETA
**> Alizia Gartziaren argazkiak**
Azken egunak dituzue Elgetako 20 emakume lanean jasotzen dituen argazki bilduma ikusteko. Espaloia Kafe Antzokian.

KONTZERTUA
**> Gaztetxean, hilaren 4an**
Elgetako gaztetxean izango dira Plan B, Obligaciones eta Des-kontrol taldeak.

**Manex Agirre** > Bertsolaria

# "Txapelketa txapelketa da eta hanka sartuz gero, txapela badoa"

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

**Manex Agirre bertsolaria izango da Arabako Bertso Txapelketako finaleko aramaioar bakarra. Ez da finalera iristen den lehen aldia, baina aurrekoetan ez du lortu txapela Aramaiora ekartzerik.**



Manex Agirre. GOIENKARIA

**Zergatik merezi du Manex Agirrek txapela?**

Nik uste dut oraindik ez duela merezi. Hori finalean abestu ostean merezi beharko du, eta, saio ona egiten badu, mereziko du. Baina, esan bezala, oraindik ez du merezi; hori argi dago. Oraindik garrantzitsuena falta da. Finala saio luzea eta gogorra izaten da. Ondo kantatzen badu, orduan bai, mereziko du.

**Badirudi garesti dagoela Arabako txapelketako txapela.**

Bai. Duda barik. Garesti dagoen gauza bat da, urtero garesti dagoena. Azkenean, txapelketa txapelketa da eta hanka sartzen baduzu, momentu batean burua joaten bazaizu edo egun horretan behar den moduan jaikitzen ez bazara, txapela badoa. Txapela eta baita saioa ere. Askotan, finaletan zaila izaten da saio onak egitea.

**Tira, baina aurten txapela Aramaiora ekartzeko ordua da, ala?**

Ordua aspalditik da [barre]. Hori duda barik, baina ez da erraza. Saiatzen gara eta urte askoan dihardugu horretan. Aurten lau aramaioarrek hartu dugu parte txapelketan, baina, ikusi duzuen moduan, ez da batere erraza. Saiatuko naiz.

**Lauk hasi zenuten bidea, baina, azkenean, aramaioar bakarra izango zara finalean...**

Bai. Denok dakigu txapelketa bat zer den, eta ez du konfiantzarako aukera askorik uzten; sekula ez dakizu zer pasatuko den. Andere iaz finalean izan zen eta aurten ez da sartu. Baina oso saio polita egin zuen Aramaion. Txapelketetako kontuak dira horiek, eta ezin dira ekidin. Gero, Xabi Igoa dago; oso pozik nago harekin. Lehen txapelketa zen harendako, 16 urte ditu eta hemendik aurrera beste pila bat izango ditu. Gainera, bere herrian jardun zuen, kultura etxea jendez lepo zegoen, eta, horrek dakarren presio guztiaren gainetik, oso seguru eta ondo ikusi nuen, hura den moduan. Nik uste dut Andere eta Xabi ezin direla kexatu egin duten txapelketarekin. Beste aukera batzuk ere egongo dira.

**"Oraindik ez dut txapelik merezi; finalean ondo kantatzen badut, bai"**

**"Txapela lortuz gero, ibilbide honetan lagun izan ditudanak etorriko zaizkit burura"**

**Eta zu zeu nola ibili zara?**

Ondo. Ez naiz saioetan lehenengo geratzen naizenetakoa. Aurten, kanporaketan eta finalerdian lehenengo geratu naiz eta horrek konfiantza apur bat ematen dit; baina, betiere, puntu bateraino, sekula ez dakizu-eta zer pasatuko den.

**Sei izango zarete oholtza gainean finalean. Aurkari arriskutsurik bai?**

Oso zaila da hori esatea, baina Asier Otamendi hor dago; kontatu ezin daitezkeen beste txapel dituen bertsolaria da, oso bertsolari segurua eta ona; Oihana Pereak ere oso saio ona egin zuen Aramaion eta Iñaki Viñaspre ere oso gogor dator. Denek dauzkate euren bertuteak; beraz, ikusiko dugu...

**Txapela lortuz gero, ze pasako da zure burutik? Zeini eskainiko diozu?**

Ez naiz egoera horretan ipini, baina seguruenik ibilbide honetan bidelagun izan ditudan guztiak etorriko zaizkit gogora: bertso eskolako lagunak. Eta eskaini, ez dakit... Baina, hori ez da nire kezka. Nire kezka da finalera lasai iristea, aurreko gauean ondo lo egitea eta, garrantzitsuena, ondo kantatzea.

# Maite Franco idazlearen bisita izan zuten eskolako umeek

Martitzenean ipuinen fantasiazko munduan murgildu ziren eskolako umeak Maite Franco idazlearen eskutik. Liburutegian idazlearen istorioak entzuten eta jolasak egiten gustura ibili ziren gaztetxoak. Umeen arreta erakartzeko abilezia handia daukan idazlea da Maite Franco.



SAN MARTIN ESKOLA

**ZINEMA**

## Apirileko filmen egitaraua

Apirilean zinema onenaz gozatzeko aukera egongo da barikuetan. Apirilaren 10ean, baina, ez da filmik eskainiko Aste Santuko oporrak direlako. Sarrera euro bat ordaindu beharko da.

### Emanaldiak

**Apirilak 3, barikua**
*Mamma mia*
Zuzendaria: Phyllida Lloyd
7 urtetik gorakoendako

**Apirilak 17, barikua**
*In this world*
Zuzendaria: Michael Winterbotton
18 urtetik gorakoendako

**Apirilak 24, barikua**
*Old boy*
Zuzendaria: Park Chan Wook
18 urtetik gorakoendako

Emanaldi guztiak 22:15ean izango dira, kultura etxean.

> UDALEKUAK

## Apirilaren 3an amaitzen da izena emateko epea

Arabako Foru Aldundiak ireki du dagoeneko udalekuetarako izenemate epea. Honakoak dira aurtengo aukerak: udalekuak, ingelesezko udalekuak, udako barnetegia eta gazte bidaiak. Izena eman daiteke Gazteriaren Foru Erakundean (Gasteiz) edo *www.alava.net/ifj* atarian.

> HAURRAK

## Bertso barnetegia egingo dute apirilaren 15ean, 16an eta 17an

Zuiako Koadrilak 9 eta 12 urte bitarteko haurrendako bertso barnetegia antolatu du. Interesa dutenek apirilaren 2a baino lehen eman beharko dute izena. Bertso jokoak, dantzaldia eta akelarrea egingo dituzte, besteak beste, eta bertsolarien bisita ere izango dute barnetegian.

> ALAIAK ELKARTEA

## Arabako erretiratuen elkarteen bilkura apirilaren 2an

Las Cuatro Torres elkarteak urteko bilkura egingo du datorren eguenean. Gasteizko Mendizorrotza kiroldegian izango da eta bertara joan nahi dutenek Aramaioko erretiratuen elkartean eman beharko dute izena. Autobusa 15:45ean irtengo da Aramaioko kiroldegitik.



Orain arte zerbitzuaren ardura izan duen Aitziber Gorosabel hainbat azalpen ematen gatz museoko bisitariei. M.A.

**ZERBITZUAK** > GATZ MUSEOA

# Zabalduta gatz museoa kudeatzeko eskaintza

Eskaintza bakarra jaso du Udalak eta orain aztertzen dabil; hamabost bat egun barru egingo duen osoko bilkuran esleituko du zerbitzua

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Otsailean argitaratu zuen Udalak gatz museoa, turismo bulegoa eta Labidea denda kudeatzeko lehiaketa deialdia. Eskaintza bakarra jaso du, gatzagar batek egindakoa, eta aurkeztutako agiri eta txostenak aztertzen dabiltza egunotan.

Orain, 15 eguneko epea izango du eskaera egindakoak dokumentazio guztia aurkezteko, eta ondoren kudeatzeko ardura esleituko dio Udalak osoko bilkura baten. Apirileko lehen astean elkartuko da udalbatza. Eusebio Villar alkateak pozik hartu du eskaintza: "Eskertzekoa da hartutako konpromisoa, herriak behar du-eta halako denda".

**BI URTERAKO ESLEIPENA**

Eugenio Otsoa gatz museoa 2000. urtean zabaldu zuen Udalak. 2002an lehiaketa bidez esleitu zuen museoaren, turismo bulegoaren eta dendaren ardura eta Aitziber Gorosabelek eta Amaia Olabek hartu zuten. 20 urterako eman zien, baina, sei urte egin eta gero, iazko udazkenean utzi egin zuten.

Udalak aldaketa bat egin du lehiaketa oinarrietan: 20 urterako beharrean bi urterako ematea ardura, beste bi urte luzatzeko aukerarekin. Betebehar batzuk izango ditu zerbitzuaren ardura hartzen duenak: hiru hilabetean behin, dendaren eta museoaren diru kontuen berri ematea Udalari; Euskal Herriko turismo bulegoekin elkarlanean jardutea; gatz museoko ekintzen txostena aurkeztea; eta beste batzuk.

Era berean, zerbitzua emateko behar dituen udal instalakuntza guztiak erabiltzeko eskubidea izango du, baita behar bezalako ordain ekonomikoa jasotzeko ere. Udalak ere baditu betebehar batzuk: uraren, argiaren eta zabor tasaren kargu egingo da; babesa emango dio; oreka ekonomikoa izaten lagunduko dio eta zerbitzuan aldaketaren bat egiteko eskatuz gero, ordaindu egingo dio.

**URTERO EKARPEN EKONOMIKOA**

Azken bi urteotako jarduna aztertu du Udalak eta hainbat ondorio atera ditu; jakin du bi eratako bisitariak dituela museoak: eskoletatik datozen taldeak eta norbanakoak. Hala, lanegunetan ez dagoela zertan zabalik izan erabaki du, eskoletako taldeek aurrez egiten dutelako hitzordua. Zapatu, domeka eta jaiegunetan eta opor sasoian izango da zabalik.

Turismo bulegoa aste bukaera, jaiegun eta opor egunetan izango dute zabalik. Eta oinarrizko produktuak –ogia, esnea eta egunkariak– saltzen dituen denda egunero zabalduko dute. Gainera, iazko udazkenetik hona diru kontuei egindako azterketek ondorioztatu dute zerbitzuaren bideragarritasuna, jarraipena eta oreka ekonomikoa bermatzeko urtero ekarpen ekonomikoa egin beharko litzatekeela.

**LANAK** > SANTA KOLUNBAKO ERMITA

# Razkin enpresak egingo ditu Santa Kolunbako lanak, eta apirilean hasiko dira

**M.A.** > LEINTZ GATZAGA

Eskoriatzako Razkin eraikuntza enpresari eman dio Udalak Santa Kolunba ermitako lanen ardura. Apirilean hasiko dituzte lehen faseko konpontze lanok.

**KONPONKETA GUTXI**

Espainiako Gobernuak 44.216 euroko dirulaguntza agindu zion Gatzagako Udalari Estatu Fondotik –Debagoienean diru gutxien jaso duen herria–. Diru hori Santa Kolunbako ermita konpontzen hasteko da, hasi bakarrik, ezingo dute-eta gehiago egin: "Pentsa diru horrekin zer egin daitekeen, seguru asko teilatua konpondu; askoz gehiago ez, behintzat", esan digu Eusebio Villar alkateak. Hortaz, ermita txukundu besterik ez dute egingo. Gainera, lanok derrigorrez hasi behar dituzte apirilean, Madrilgo Gobernuak jarritako baldintza bat da-eta.

Lehenengo fase hori bukatutakoan, beste bi geratuko liratekeke egiteko, ermita guztiz konpondu eta gatz museoko sarrera bihurtzeko. Fase horiek, baina, ez dakite noiz egingo diren, oraingoz, behintzat, ez dutelako dirurik lortuko: "Ahal den moduan dirua lortzea da gure asmoa; hau da, lanokin ez ahaztea eta lehenbailehen egin ahal izatea. Baina egoera ez da onena, eta ez dakigu noiz izango den", argitu du.

**INFORMAZIOGUNE**

Elizak Udalari eman zion gatz museora bidean dagoen Santa Kolunbako ermita. Ez dauka santuaren irudirik orain, baina barruan aldaretxo bat dauka. Udalaren asmoa da ermita hori gatz museoko informaziogune eta sarrera bihurtzea. Bisitariak hartuko lituzkete bertan eta handik hasiko lukete gatza egiteko prozesuaren bisita. Horrek, baina, itxaron egin beharko du.

> KORRIKA

### Korrika afarirako txartelak salgai astelehena arte

Herri afaria antolatu du Korrika Batzordeak apirilaren 3rako, egubakoitza, Korrikaren etorrera girotzeko –domekan, 07:00ak inguruan–. Bertso afaria izango da gainera, Mañukorta bertsolari bizkaitarra eta Jokin Labayen arrasatearra izango dituztelako lagun afalordua girotzen.

Korrika Batzordeko kideek jakinarazi dute afarirako txartelak oraindik salgai dituztela. Interesatuek Labidea dendan dauzkate, datorren astelehena bitartean.



Makalu (8.463 metro), munduko bosgarren mendi garaiena, Everestetik egindako erretratuan. HARRY KIKSTRA

**MENDIA** > MAKALURA ESPEDIZIOA, BASQUE TEAM DESAFIOA

# Iñurrategi: "1991n joan ginen ilusio berarekin goaz orain ere"

Alberto Iñurrategi astelehenean abiatuko da Himalaiara, Makalu igotzeko asmoz

Makalu mendebaleko pilaretik igotzea da erronka, estilo alpinoan

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Alberto Iñurrategi (Aretxabaleta, 1968) hemezortzi urte igaro ostean itzuliko da Makalura, lehenengo zortzimilakoa egin zuen mendira. Baina orduko erronka eta oraingoa erabat ezberdinak dira: "Mendi bera da, baina orain egin behar dugun igoerak ez du zerikusirik 1991n egin genuenarekin. Hori bai, orduko ilusio berarekin goaz orain ere".

Aretxabaletakoak Mikel Zabaltza nafarra eta Juan Vallejo arabarra izango ditu sokalagun, eta Makalu mendebaleko pilaretik igotzen saiatuko dira; gainera, estilo alpinoan. Zenbakiek erakusten dute munduan hamasei lagunek jo dutela Makaluko gailurra mendebaleko pilaretik igota, eta tartean euskaldun bakarra izan da, Manu Badiola; zoritxarrez, jaitsieran istripua izan zuen: "Carlos Vallesekin batera egin zuen igoera hura, oso polita izan zen, baldintza gogorretan egindakoa; izan ere, udazkenean egin zuten, eta ordutik hona, inork ez du urteko sasoi horretan Makalu mendebaletik igo".

Mendebaleko pilaretik igotzearekin batera, Iñurrategik, Vallejok eta Zabaltzak are erakargarriagoa egin dute espedizio hori, estilo alpinoan igotzea dutelako helburu, inork lortu ez duena: "Estilo alpinoak esan gura du ez dugula soka finkorik erabiliko, ez dugula garaierako kanpaleku finkorik izango eta ez dugula oxigeno artifizialik eramango. Hau da, kanpaleku nagusitik irten eta gailurreraino saio bakarrean igotzea da asmoa".

**IGOERA AZKARRA**

Horrelako igoera bat egiteko espedizioak hainbat ezaugarri izan behar ditu: "Talde txikiak izaten dira, oso ondo neurtu behar da aldean eraman beharrekoa eta igoera azkar egiten da". Hala, helburua betetzeko jarraitu beharreko detaileen gainean egin du Aretxabaletakoak berba: "Himalaian eguraldi onak ez du askorik irauten, eta horrelako igoera baten azkar ibiltzeak sekulako garrantzia dauka. Horrekin batera, igoerak hainbat zailtasun tekniko ditu, baina zailtasun horiek baino gehiago arduratzen gaitu tarte errazak gainditzeko gal dezakegun denborak. Hori dela-eta, oso zorrotz zaindu dugu soinean eraman behar dugun pisua, baita janaria ere".

**BARUNTSE, MOTIBAGARRI**

Makalura ondo igotzeko ezinbestekoa da garaierara ondo moldatzea, eta lan horretan, mendizaleek begiz jo dute Baruntse (7.235 metro): "Makaluko igoeran ez dugu garaierara moldatzerik izango, estilo alpinoak ez duelako horretarako tarterik uzten, lehen esandako moduan aurrez ibili gabeko bidean saiakera bat eginez igotzea delako asmoa. Hori dala-eta, Baruntse igotzea da asmoetako bat; gainera, horrek motibatzeko ere balio dezake. Hau da, garaierara moldatzeko beharko ditugun hiru aste horietarako bizigarri bat".

Eta Makalu bide normaletik ere igo gura dute: "Izan ere, komeni zaigu 7.400 metro inguruan pare bat gau igarotzea, eta Baruntsen ezin dugu hori egin, mendi horretan gehienez 6.700-6.800 metroan egin dezakegulako lo".

**ERREFERENTZIA ASKOREKIN**

Erronka ausarta bada ere, Iñurrategik, Vallejok eta Zabaltzak zuhurtasun handiz prestatu dute igoera, eta, alde horretatik, igoera inoiz baino antolatuago dutela azpimarratu du Iñurrategik: "Batetik, daukagun abantaila txikia da Juan Vallejok 7.400 metro ingururaino bide hori ezagutzen duela, 2002an *Al filo de lo imposible* saioko taldearekin izan zelako han; eta bestetik, seguruenik beste espedizioetako aztarnak ere aurkituko ditugu: soka zaharrak, iltzeak... Noski, ez dira erabiltzeko moduan egongo, baina erreferentzia moduan oso baliagarriak izango dira. Gainera, beste espedizioetako erretratuak eta informazioa ere lortu ditugu; hortaz, inoiz baino erreferentzia gehiago ditugula esango nuke".

Aurreratu moduan, astelehenean abiatuko dira Himalaia aldera, eta maiatzaren erdi inguruan ahaleginduko dira tontorrera igotzen: "Maiatzeko lehenengo astetik aurrera gertu egon beharko genuke, bai". Eta ekain hasieran izango dira bueltan, hango kontuen berri ematen.

DATUA

**18**

**URTE**

Hamazortzi urte igaro dira Alberto Iñurrategik lehen zortzimilakoa egin zuenetik. Makalu igo zuen orduan ere, "baina erronka erabat ezberdina zen".

ESANAK

**"Estilo alpinoan igotzeko zorrotz zaindu dugu eraman beharreko pisua; azkar ibiltzea ezinbestekoa izango da"**

**Alberto Iñurrategi** > Mendizalea




Aurtengo BAT beka eskuratu duten Alberto Iñurrategi, Jonathan Larrañaga, Mikel Zabaltza eta Juan Vallejo. BAT

## "Batzuetan ezinbestekoa izaten da zarata apur bat ateratzea"

Astelehenean abian jarriko duten espedizioa aspaldian egin duen mediatikoena izango dela onartu digu Iñurrategik, eta badaude arrazoiak horretarako: "Batetik, alpinismoaren ikuspuntutik erronka erakargarria dela esango nuke; eta bestetik, BAT fundazioaren laguntzarekin joateak duen ondorioa da. Izan ere, BAT fundazioaren barruan dago EITB. Alde horretatik bai, normalean baino zarata handiagoa ateratzen ari gara, baina gu bestelako mentalitate batekin goaz hara, eta hegazkina hartzen dugunean gure lanean zentratuko gara. Hain zuzen, horretarako dator Aitor Elduaien gurekin, kazetari lanez ardura dadin".

**ZIKLISMOA** > 40. GORLAKO IGOERA

# Domekan egingo duten Gorlako igoerarako ez dago faboritorik

## 23 urtez azpikoen kategorian orain arte inork ez du nagusitasun nabarmenik erakutsi

## Gorlakoa ez da ziklismoko hitzordu bakarra izango: bihar egingo dute Uzarragako igoera, Antzuolan

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Aurten ere egutegiak batera ekarriko dizkigu Uzarragako eta Gorlako igoerak, zapatuan lehena (16:00) eta domekan bigarrena (10:00). Zapatuko lasterketan gazte mailako ziklistak elkartuko dira eta domekako hitzorduak amateur mailan 23 urtez azpiko puntuko ziklistak batuko ditu –iaz 160 ziklista izan ziren–. Hori bai, iazko lasterketarekin alderatuta, aurten ez dago faborito garbirik.

Azkeneko urteotan moduan, iaz ere eguraldiak ez zuen lagundu, baina lasterketa ez zen 2005ekoa edota 2007koa bezain gogorra izan, edizio haietan ziklistak zuri-zuri zegoen Gorla igo behar izan zuten-eta –igoerak baino okerragoak izan ziren jaitsierak–. Lasterkariei dagokienez, azken edizioan Andrey Amadorrek (egun Caisse D'epargne taldean) erabateko nagusitasuna erakutsi zuen denboraldi hasierako lasterketetan, bai Soraluzen, bai Lauskizen eta baita Gorlan ere. Baina aurten inor ez dator horren indartsu, inork ez duelako garaipenik errepikatu. Soraluzen Mikel Landa (Naturgas Energia) izan zen onena, Aranguren Bailara sarian Unai Iparragirre (Bidelan Kirolgi) gailendu zen eta Muskizen, berriz, Mario Gutierrez (Lizarte) izan zen azkarrena.

Lasterketa horietan guztietan, baina, aurrealdean ibili dira iaz ibarreko lasterketa ezberdinetan besoak altxa zituzten Garikoitz Bravo (Caja Rural), Jon Pardo (Seguros Bilbao) eta Aitor Ocampos (Belca) ziklistak. Aurten, gainera, Caja Rural taldeko ziklistak gertutik jarraitu beharko ditugu, tropelean haiek izango direlako erreferentzia.

### GURE ORDEZKARIAK

Urte gutxian, amateur mailan dabiltzan ibarreko ziklista kopuruak behera egin du nabarmen, 2007ko edizioan esku hartu zuten Larrea, Mugurutza, Arantzabal –iaz laugarrena Gorlako igoeran–, Perez, Nafarrate, Anduaga eta konpainia erretiratuta daude-eta. Baina, kopuru txikiagoa izango bada ere, domekako lasterketetan parte hartzekoak dira Asier Penabad (Debabarrena) eta Iban Caballero (Debabarrena) bergarararrak eta Xabier Arnaiz oñatiarra (Bruesa). Eta esan gabe doa etxeko errepideetan lehiatuta tropelean gutxik hasiko dutela proba haiek baino motibatuago.

### ZAPATUAN UZARRAGAKO IGOERA

Gazte mailako lasterkariek, berriz, Uzarragako malda gogorrei egin beharko diete aurre zapatu arratsaldean (16:00).

Eta proba horretan ibarreko ordezkari gehiago izango dira, Dorletako Amako, Sumofic Lokatzako eta Ulmako ziklistak izango dira-eta. Gainera, ibarrekoen artean ezin ditugu aipatu barik utzi Xabier Arantzeta eta Aitor Laskurain, etxeko proban korrituko duten bakarrak izango dira-eta.



Domekan 10:00etan hasiko dute lasterketa, Bergarako plazan; irudian, lasterkariak irteera puntuan. JOSETXO ARANTZABAL






BERGARA
San Lorentzo
AZKEN ETXEBIZITZAK
ERRAZTASUNAK ORDAINTZEKO
APARTAMENTUAK 1 eta 2 logelakoak, garaje eta trastelekuak
Eraikitzailea INGESLAN CONSTRUCCIONES
Sustatzailea GRUPO Ormak
Argibide eta salmenta 943 42 44 30
www.ormak.es
Apartamentuak 152.000€-tik aurrera
25.300.000 pta

**MENDIKO ESKIA**> PIERRA MENTA 09

# Ibarreko lau ordezkari Pierra Mentan lehian

Oñatiko Iban Letamendik eta Aitor Otxoak osatu zuten bikote bat, eta Bergarako Joxu Aranak eta Unai Aranak bestea; helburu ezberdinekin, denak itzuli dira gustura



**MENDI ERTZEAN** Letamendi eta Otxoa, aurtengo Pierra Mentan. AITOR OTXOA

**XABIER URTZELAI.** > BERGARA

Alpeetan egiten den Europako mendiko eskiko proba esanguratsuenetako bat da Pierra Menta, eta Debagoieneko lau ordezkari izan dira aurten lehian, bi taldetan banatuta. Letamendik eta Otxoak 71. amaitu zuten lasterketa, eta *Aranatarrek* 119. postuan. Letamendik onartu du "gustura" itzuli direla handik, nahiz eta aurrerago ibiltzeko asmoarekin joan ziren: "Baina, lasterketan izan ditugun zailtasunak kontuan hartuta ezin dugu gehiagorik eskatu", adierazi digu Alpeetatik min hartuta itzuli den Letamendik.

Oñatiko bikoteak zalantza handiekin ekin zion probako lehenengo etapari: "Proba hasi aurretik sukarrarekin nengoen, baina aurrera egitea erabaki genuen eta ondo sentitu nintzen. Hori bai, lehenengo etapan jaitsierak oso-oso zailak ziren, eta elurra ez zegoen batere ondo. Hala, hainbat jaitsieratan lurretik bueltaka ibili eta gero iritsi ginen helmugara".

**INOIZKO ETAPA LUZEENA**

Bigarren etapa gorputzaldi onean hasi zuten, eta dena behar zuten debagoiendarrek, Pierra Mentaren historiako etapa luzeena zeukatelako aurrean (30 kilometro eta 2.700 metroko desnibela). Azkenaurreko jaitsieran, baina, beste eskiatzaile bat gainera etorri zitzaion Letamendiri: "Proba amaitzea lortu nuen, baina lepauztaia hautsi nuela uste nuen, min handia neukalako. Medikuak esan zidan ez nuela ezer hautsita, eta antiinflamatorioak hartuta egin nituen beste bi etapak". Hala, medikuak gaur esango dio Letamendiri ebakuntza egingo dioten ala ez: "Hezur txiki bat dut hautsita, eta baita tendoi bat ere".

Min hartuta ere, Oñatiko bikoteak argi dauka datorren urtean ere Beaufortain-en hasten den lasterketan izango dela: "Sekulako parajeak daude han eta ibilbide gogorra bezain polita antolatzen dute. Teknikoki zailtasun handia du, eta Pirinioetako lasterketetan aurkitzen ez diren mendi ertzetatik ibiltzen gara. Gainera, lau eguneko proba izanda, ondo jakin behar da indarrak gordetzen".

**PILOTA**

## Bergara edo Arrasate, Udaberriko finalera

**X.U.** > BERGARA

Domekan jokatuko dituzte Bergarako pilotalekuan (11:30) senior mailako Udaberri Txapelketako finalerdiak. Eta norgehiagoketako baten Arrasateko eta Bergarako pilotariak izango dira aurrez aurre –beste norgehiagoka Usurbilek eta Ozkarbik jokatuko dute–. Ibarrekoen arteko partiduari begira, Arrasateko bikotea osatuko dute Agirrek eta Uribarrenek eta Bergarakoa Mugurutzak eta Larrañagak. Irabazten duenak irabazten duela, ibarreko ordezkari bat izango da finalean.

**FUTBOLA** > PREFERENTEA

## UDAk laugarren dagoen Trintxerperen zelaira egingo du bihar bidaia

Mondrak eta Aloñak ere bihar, zapatua, arratsaldean jokatuko dute: Mondrak Ondarroan eta Aloñak Hondarribian

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Onerako eta txarrerako, Aretxabaleta (53) eta Mondra (26) dira liga amaierari emozioa jarriko dioten taldeak. Lehenengoek gauzak ondo egin dituztelako eta hirugarren mailara igotzeko lehiatuko direlako; eta bigarrenek alderantziz, urte petrala daramatelako eta jaitsiera postuak gura baino gertuago dituztelako. Hala, UDAk sailkapenean laugarren dagoen Trintxerperen (45) zelaian jokatuko du bihar 17:00etan.

Aloña Mendik nekez ahaztuko du aurtengo martxoa, hilabeteko makalaldia daramateeta. Hala, bolada txarra etetekо jokatuko dute bihar (17:30) Hondarribian. Mondrak gustura hartuko luke Aloñak sailkapenean duen lasaitasuna. Bihar jokatuko dute, 16:30ean, Ondarroan.

### asteburuko hitzorduak

**FUTBOLA**

**Bigarren maila**
Castellon-Reala
Zapatua. 19:30. Castalia.
Eibar-Rayo Vallecano
Domeka. 18:00. Ipurua.

**Gazteen euskal liga**
Aretxabaleta-El Pilar
Zapatua. 16:30. Ibarra.
Bergara-Alaves
Zapatua. 16:45. Agorrosin.

**Preferente maila**
Hondarribia-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Ondartza.
Ondarroako Aurrera-Mondra
Zapatua. 16:30. Zaldupe.
Trintxerpe-Aretxabaleta
Zapatua. 17:00. Pasai Antxo.

**Lehen erregionala**
BTLS-Orioko
Zapatua. 19:00. Ipintza.
Aretxabaleta-Eibartarrak
Domeka. 16:30. Ibarra.
Tolosa-Antzuola
Zapatua. 15:30. Usabal.
Mondra-Lagun Onak
Zapatua. 18:00. Mojategi.

**Bigarren erregion. Igoera**
Landetxa-Bergara
Zapatua. 15:30. Irun.

**Ohorezko mailako gazteak, Kopa eta jaitsiera**
Aloña Mendi-Tolosa
Domeka. 16:30. Azkoagain.

**Lehen mailako gazteak, igoera fasea**
Lengokoak-Mondra
Zapatua. 18:00. Donostia.

**Lehen mailako gazteak, Kopa**
Eibartarrak-Aretx.Arizmendi
Domeka. 17:30. Unbe.
Bergara-Amaikak Bat
Zapatua. 15:30. Ipintza.

**Ohorezko mailako kadeteak, igoera fasea**
Sanse-Bergara
Zapatua. 12:00. Donostia
Reala-Aretxabaleta Arizm.
Zapatua. 16:30. Zubieta.

**Ohorezko mailako kadeteak. Kopa eta jaitsi.**
Aloña Mendi-Hernani
Zapatua. 11:15. Azkoagain.
Arrasate-Zarautz
Zapatua. 12:00. Mojategi.

**Lehenengo kadeteak, igoera**
Aretxabaleta-Mundarro
Zapatua. 11:00. Ibarra.
Aretx.-Mundarro
Zapatua. 11:00. Ibarra.

**Lehenengo kadeteak, kopa**
Zestoa-Arizmendi
Domeka. 11:00. Iraeta.
Mutriku-Aloña Mendi
Domekan. 11:00. San Miguel.
Ikasberri-Bergara
Zapatua. 14:45. Azpeitia.

**Kadete Txiki**
Real Union-Arrasate
Domeka. 12:30. Gal.

**Infantilen ohorezko maila, kopa eta jaitsiera**
Hernani-Bergara
Zapatua. 12:30. Zubipe.
Zumaiako-Aretx.Arizmendi
Domeka. 12:00. Zumaia.

**Infantilen lehenengo maila, igoera**
Ilintxa-Aloña Mendi
Domeka. 12:00. Bikuña.

**Infantil txiki, txapeldun**
Tolosa-Arrasate
Zapatua. 11:00. Usabal.

**Emakumezkoak, igoera fasea**
Zumaiako-Arizmendi B
Zapatua. 15:15. Aita Mari
Mondra-Anaitasuna
Zapatua. 16:00. Mojategi.

**Emakumezkoen kopa**
Aloña Mendi-Eibartarrak
Zapatua. 16:30. Azkoagain.
Arizmendi-Segura Goierri
Zapatua. 16:30. Azkoagain.

**Emakumezko F11. Kopa**
Real Union-Mondra
Zapatua. 12:30. Irun.

**Emakumezko kadet. F11. Txapeldunen fasea**
Hernani-Bergara
Domeka. 10:30. Zubipe.

**Emakumezko kadet. F8. Kopa txapelketa**
Aloña Mendi-Amara Berri
Domeka. 10:30. Azkoagain.

**SASKIBALOIA**

**Lehenengo maila. Jaitsiera fasea**
UPNA-MU
Domeka. 10:00. Iruñea.

**Gipuzkoako seniorrak**
MU-COAATG
Zapatua. 16:00. Musakola.
Kevian Sport-Aloña Mendi
Zapatua. 20:15. Donostia.
Krafft Atco.-Soraluce BKE
Zapatua. 20:00. Donostia.
Allerru Euskos.-Aloña Mendi
Gaur. 20:00. Lezo.

**Gipuzkoako ligako senior maila, emakumezkoak**
Krafft Atletico.-Eskoriatza
Zapatua. 18:00. Donostia.

**Gazte maila, gizonezkoak**
Zarautz-MU
Zapatua. 16:00. Zarautz.
Transbretaña BKE-Erroibide
Zapatua. 17:00. Bergara.
Aloña Mendi-Oiarso
Zapatua. 11:45. Zubikoa.

**Gazte maila, emakum.**
Salletarrak-Soraluce BKE
Gaur. 20:45. Astigarraga.

**Kadeteak, gizonezkoak.**
Easo Basoa-MU Udalatx
Domeka. 12:00. Donostia.
MU-Aloña Mendi
Zapatua. 12:00. Musakola.
Take Tolosa-Kondepana. BKE
Zapatua. 12:00. Tolosa.

**Kadeteak, emakumezko.**
Take-Eskoriatza
Zapatua. 12:00. Tolosa.
Arizmendi Esko.-Ordizia
Zapatua. 10:00. Intxaurtxu.
Internacional-Aloña Mendi
Zapatua. 12:00. Donostia.

**Infantil, gizomezkoak.**
LEK Ointxe!-Gamon Libr.
Zapatua. 10:30. Musakola.
LEK Arizmendi-EPI Krist.
Zapatua. 10:00. Arrasate.
La Salle-Aloña Mendi
Zapatua. 10:00. Zarautz.
Servimasa BKE-Larramendi
Zapatua. 10:45. Bergara.

**Infantil emakumezkoak**
Aloña Mendi-TAKE Tolosa
Zapatua. 11:45. Zubikoa.
LEK Almen-Eskibel
Zapatua. 10:00. Intxaurtx.
Zast-LEK San Viator
Zapatua. 12:00. Zarautz.
LEK San Viator 2-Zarautz
Zapatua. 10:30. Musakola.
Take Tolosa-Kortazar BKE
Zapatua. 10:30. Tolosa.

**ESKUBALOIA**

**Euskadiko txapelketa**
Ford Mugarri Ar.-Askartza
Zapatua. 17:30. Iturripe.

**Euskadiko txapelketa, emakumezko preferentea**
Aiala Ostal.-Verkol Aloña
Domeka. 13:00. Zarautz.

**Euskadiko txapelketa, kadete emakumezkoak**
IMH Elgoibar-Verkol Aloña
Zapatua. 17:30. Olaizaga.

**Gipuzkoako lehen territorial maila**
Arrasate Esk.-Donibane Esk.
Domeka. 11:30. Iutrripe.
Leizaran Ernio-Aloña Mendi
Domeka. 10:15. Andoain.

**Federazio saria**
Aloña Mendi-Irungo gaztiak
Domeka. 12:00. Zubikoa.

**Udaberri torneoa**
Pneumax Elgoib.-Bergara
Domeka. 09:30. Olaizaga.
La Bacaladera-Bergara Txiki
Domeka. 10:00. Hondartza.

**Udaberri torneoa, gazte mailako neskak**
Citroen Chapime-La Salle
Domeka. 10:30. Iturripe.

**Udaberri torneoa, kadete mailako neskak**
Aiala Ostala.-Bergara
Zapatua. 11:30. Antonianos.

**PILOTA**

**Eskuz binaka gazteak eta nagusiak**
Gaur. 19:30. Eskoriatza
Eskoriatza-Lizardi
Eskoriatza-Bergara.

**Eskuz binaka nagusiak**
Bergara. 11:30. Udal pilotal.
Arrasateko-Bergara
Usurbil3-Ozkarbi..

**ZIKLISMOA**

**Gorlako 40. Igoera**
Domeka. 10:00. Bergara.

**Uzarragako 34. Igoera**
Zapatua. 16:00. Antzuola.



**Euskadiko ligan dabilen UDArendako partidu erabakigarria**
Euskal ligatik nazional mailara igotzeko lehian dabil UDA; hirugarren daude, eta El Pilarren kontra garaipena behar dute ( bihar, 16:30).



**> MUSIKA**
Fiachras taldeak kontzertua egingo du gaur, barikua, Arrasaten **> 38**



**> MUSIKA**
Oreka Tx taldearen 'Nömadak Tx, zuzenean' etzi, Arrasaten **> 39**

**> IZASKUN ARRESE**
Bergarako gazteak marketin ikasketak egin zituen arren, etxez-etxeko ile-apaintzaile egiten du lan. Gustuko du lana, eta bezeroekin hartu-emana **> 42**





Taldearen itzuleraren osteko kontzertuetan oso indartsu dagoela erakutsi du laukote bizkaitarrak. Irudian, Durangoko Plateruena Kafe Antzokiko kontzertua.

ASIER ARROITA

## AMA SAY

# Ziklo berria hasteko itzulera

Ama Say eta Yakuzi taldeek kontzertua egingo dute bihar Bergarako gaztetxean, 23:00etan

Txapa irratiak antolatu du kontzertua; Ortuellako Ama Say taldearen itzulerak ikusmina piztu du

**JOKIN BEREZIARTUA** > BERGARA

Film onen bigarren zatiak txarrak direla esan ohi da. Ezin musikan berdina gertatzen denik esan; izan ere, hainbat adibide daude zineman betetzen den *araua* apurtzen dutenak. Eta adibide horietako batek Ama Say du izena.

Debagoiena ere izango da Euskal Herriko rock talde esanguratsuenetariko horren itzuleraren lekuko; laukote bizkaitarrak bihar joko du Bergarako gaztetxean Elorrioko Yakuzi taldearekin. Txapa Irratia arduratu da *Euskal Herriko Pixies*-ak –hala deitzen zituzten lehen– ekartzeaz.

**DESAGERTU OSTEAN OSPETSU**

1990eko hamarkada izan zen Ama Sayren garaia, 1992an jaio eta 1997an desagertu. Bost urte izan ziren, baina utzi zuten euren arrastoa: bi disko eta single bat: *Ikusi ditut umeak kalean ametsak akatzen* (Esan Ozenki, 1993) eta *Say Ama* (Esan Ozenki, 1994) diskoak eta *No Iz Pop* (1994) zuzeneko singlea. Errekonozimendua eta ospea, baina, desagertu ostean heldu zitzaien, artista onenen antzera.

Musikari dagokionez, gitarra distortsionatuak, erritmo aldaketak eta melodia asko egiten zuen Ama Sayk; ezberdinak ziren euren garaian. Hala ere, hitzetan euskara eta ingelesa nahastea izan da Ortuellako laukotearen zeinu bereizgarri nagusia. Gontzal Bilbao taldeko bateria joleak –Ibon abeslariaren anaia da– gogoratzen duenez, "joko bat moduan hasi zen euskara eta ingelesa abesti berean nahastearena; anaiari bururatu zitzaion. Joko fonetikoak erritmo berezia ematen zien kantuei, eta asko gustatu zitzaigun".

**MUSIKA SORTZEKO GOGOZ**

Ama Sayren itzulera ez da kontzertuak ematera mugatuko. Taldeak ideia berriak ditu buruan eta musika sortzeko gogoz dabil. Lau edo bost abesti berri dituzte eta disko berri bat grabatzea ez dute albo batera uzten. Bilbaok dioenez, "musika sortzea da garrantzitsuena".

**YAKUZI, GONBIDATU BIKAINA**

Ama Say aurretik talde ezin egokiago batek egingo ditu girotze lanak. Izan ere, Elorrioko Yakuzi taldeak joko du euren aurretik. Elorrioko taldea Ama Say agertokietatik jaitsi eta gutxira, sortu zen Elorrion, 1998. urte bukaeran. Intentsitate ezberdinekin jokatuz, euren rock post rock doinuak eskainiko dituzte bihar. Urteotan laukoteak taldearen izen bereko bost kantuko mini CD bat eta 10 kantuko *Ibai lehorretan itota* lan luzea kaleratu dute.

### Ama Sayko kideak

## "Sekulako oparia da guretzat berriz ere Ama Say egitera itzultzea"

**J.B.** > BERGARA

**Indartsu itzuli da Ama Say, itzulera osteko kontzertuak ikusi besterik ez dago. Taldea oso pozik dago berriz ere batera jotzeaz eta itzulerako kontzertuetan jaso duten erantzunaz. Gainera, kontzertuetan belaunaldi berriak ikusteak asko harritu du taldea.**

**Zergatik itzuli da Ama Say?**

Kasualitatea izan da. Iboni [ahotsa eta gitarra] lan kontuek Bartzelonatik hilabetean behin edo birritan etortzeko aukera eman diote eta aukera aprobetxatu dugu hilabetean behin-edo kontzertuak emateko. Uda aldean kontzertu gehiago ematea pentsatu dugu.

**Zer izan da zuentzat berriz elkartu eta jotzera bueltatzea?**

Sekulako oparia da guretzat berriz ere Ama Say egitera itzultzea. Lagunartean sortu den proiektua izan da betidanik, eta oso berezia eta sakona da guretzat. Barruan daroagu.

**Nolako erantzuna izan duzue itzulerako kontzertuetan?**

Oso giro ona egon da kontzertuetan. Gainera, belaunaldi aldaketa egon dela konturatu gara; oso pozgarria da guretzat 20 urteko neskamutilak ikustea. Gainera, gure musikak ez du gaurkotasunik galdu; orain entzun edo duela 15 urte, berdin.

**Zer aldatu da, bada, Ama Sayn?**

Taldekideen bizimodua. Orain gehienok ditugu seme-alabak. Karlos gure betiko baxu joleak, adibidez, betebehar berri horiengatik ez du joko. Nahiko tristea da guretzat Karlosekin ez jotzea, lagun-minak garelako. Hala ere, Karlos ordezkatu duenarekin [Mikel Gonzalez, Zein taldeko baxu jolea] oso gustura gaude.

**MUSIKA** > ENBOSKADA TALDEA

# "Denbora eta ilusioa da falta zaiguna"

## Enboskada taldearen agur-kontzertua bihar izango da Arrasateko 3.60 aretoan, 23:00etan

1997an sortu zuten Enboskada taldea eta lehenengo kontzertua 1998an eman zuten

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

Arrasateko Enboskada taldeak agur-kontzertua emango du bihar 3.60 aretoan. Kontzertua 23:00etan hasiko da; ondoren, Dj Pottoko eta Dj Moek girotuko dute gaua. Sarrerak salgai daude Irati tabernan 3 euroren truke; leihatilan 5 eurotan salduko dituzte.

1997an sortu zuten Enboskada taldea. "Antzerako musika gustuko genuen bost lagun elkartu ginen. Gaztetxean galdetu genuen ea bazegoen lekurik guk entseatzeko, eta Arkada Socialekin batera hasi ginen", gogora ekarri du Oxel Arrieta Enboskadako kideak.

Bost lagunek osatzen dute Enboskada: Asier Salak (gitarra), Urtzi Madinabeitiak (baxua), Oxel Arrietak (ahotsa), Josu Zubizarretak (bateria) eta Mikel Arresek (gitarra).

**LEHENENGO KONTZERTUA**

1998ko maiatzaren 1ean egin zuten lehenengo kontzertua Elgetako Panaderokua tabernan Enboskada taldeko mutilek. Ordutik hona hainbat kontzertu egin dituzte, eta une onak eta txarrak pasa dituztela diote.

"Hasi gineneko garaia oso ona izan zen. Motibazio izugarria geneukan, eta horrek asko lagundu zigun lana egiterakoan", dio Arrietak. Leku berriak ezagutzeko aukera eman die musikak arrasatear musikarioi, eta hori da azpimarratu gura dutena. Gainera, urte hauetan bizi izandako esperientzia ere nabarmendu dute.

Euskal Herri osoan barrena ibili dira arrasatearrak euren musikarekin; baina, gure mugetatik haratago, Galizian ere izan dira, adibidez.

**DENBORA FALTA**

Taldea zergatik utziko duten galdetuta, Arrietak dio ez dutela denborarik elkarrekin egon eta entseatzeko. "Musika talde batek denbora eskatzen du, eta momentu hauetan ez gara askorik elkartzen. Baina, horrez gain, ilusio falta ere badago; bestela, egingo genuke zerbait aurrera egiteko", azaldu du Arrietak.

Gaineratu du gaur egun kontzertu gutxi ematen dabiltzala; baina horren harira dio Enboskada beti izan dela kontzertu gutxi emateko taldea.



Enboskada taldeko kideak. ENBOSKADA

**OI! MUSIKAREN EGOERA**

Enboskadak oi! musika egiten du. Batez ere 80eko hamarkadako musikaren eragina izan dute arrasatearrek. "80eko hamarkadako musika ingelesa eta Euskal Herriko musikaren eragina izan dugu; baina ez gara talde jakin batekin identifikatu izan", dio Arrietak.

12 urte hauetan oi! musikak izan duen bilakaera nabarmena izan dela onartu du Arrietak: "90eko hamarkadan Zakarrak, Iskanbila eta Lager 33 bezalako taldeak zeuden, gero Des-kontrol, Arcada... sortu ziren. Ordutik gero eta talde gazte gehiago ikusten da oi! mugimenduaren inguruan", dio Arrietak.

Biharko kontzerturako euren abestiak eta bertsioak gertatu dituzte. Eta gaineratu dute sorpresaren bat izango dela.

ESANAK

**"90eko hamarkadan oi! musika talde gutxi zegoen; orain, berriz, gero eta talde gehiago daude, gero eta gazteagoak"**

**Oxel Arrieta** > Abeslaria

**KULTURA**

# Iñaki Ugarteburu bergararra hil egin da

## 80ko hamarkadan literatura sorkuntzan ibili zen Ugarteburu

**A.E.** > BERGARA

Joan den aste bukaeran hil zen Iñaki Ugarteburu bergararra. 54 urte zituen Ugarteburuk, eta jaiotzez bergararra zen arren Erromon bizi zen aspaldian.

80ko hamarkada hasieran literatura sorkuntzan ibili zen Ugarteburu. Ondorioz, ipuin lehiaketaren bat ere irabazi zuen, baina gero baztertu egin zuen alderdi hori. Gizon jakintsua zela diote haren ezagunek. Medikuntza ikasi ondoren Euskal Filologia ikasi zuen Deustuko Unibertsitatean. Medikuntza Fakultatean hainbat urtean Euskara Teknikoko irakasle izan zen, eta, gainera, Euskara Zerbitzuan ere lan ikaragarria egin zuen.

**ITZULPENAK**

Euskalgintzan lan handia egindakoa zen, batez ere unibertsitate mailako euskarazko irakaskuntza bultzatzen. *Gazte hipokondriako baten egunkaria* gazte literaturako liburu arrakastatsua euskaratu zuen; ondoren, beste itzulpen batzuk egin zituen hainbat hizkuntzatatik. Gainera, Italo Calvino euskaraz itzuli zuen lehena izan zen. *Bizkonde erdibitua* lana euskaratu zuen.



GOIENKARIA

## Beterriko II. bertso finalean hiru debagoiendar izango dira

Indartsu dabiltza Aramaioko bertsolariak: Manex Agirre Arabako Bertso Txapelketako finalera iritsi da eta, gainera, Beterriko II. bertso txapelketako finalere bai, Andere Arriolabengoa eta Iñaki Viñasprerekin batera. Hirurek Arabako *Otsoak* taldea osatzen dute. Agirre eta Arriolabengoa aramaioarrek Jokin Labaien arrasatearra izango dute finalean aurrez aurre. Arabarrek Gipuzkoako '*Hontze*'-n aurka jokatuko dute finala zapatuan Oiartzungo Oianume jatetxean, 20:30ean.

**MUSIKA** > 3.60 ARETOA

# Rock eta folk doinuak gaur 3.60 aretoan Fiachras-ekin

## Kontzertua 22:30ean hasiko da; lehenengo, Los Galerna eta Black Lagun arituko dira

**A.E.** > BERGARA

Fiachras bergararren rock eta folk doinuak daude gaur 3.60 aretoan. Kontzertua 22:30ean hasiko da; bergararren aurretik, Los Galerna eta Black Lagun taldeek joko dute.

**HAINBAT BERRITASUN**

Gaurko kontzerturako hainbat berritasun gertatu dituzte bergararrek. Hiru abestitan Zigor Martinez saxofoi jolearen laguntza izango dute. Gainera, beste abesti baten Black Lagun taldeko Iñigo Cabezafuegok akordeoia joko du. "Gurekin akordeoia jotzen duenak hatza apurtu du, eta, horregatik, Cabezafuegoren laguntza izango dugu", azaldu du Aitor Aldanondo Fiachras taldeko kideak.

**DISKOA: 'FIACHRAS'**

Fiachras taldea orain dela bi urte sortu zen. Iazko azaroan diskoa atera zuten: *Fiachras* izenarekin. "Gustura geratu gara lanarekin, jendearen aldetik erantzun ona jaso dugu", dio Aldanondo.

Gainera, gaurko kontzertua grabatu egingo du Los Galerna taldeak.

**MUSIKA** > AMAIA ANTZOKIAN

# 'Nömadak Tx zuzenean' domekan Amaia antzokian, Oreka Tx taldearekin

Oreka Tx taldeko txalapartariek musika eta bidaietako irudiak uztartuko dituzte Amaiako agertokian, domekan, 19:30ean

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Oreka Tx taldeko Igor Otxoak eta Harkaitz Martinez de San Vicentek munduan barrena zabaldu zuten txalapartaren hotsa eta bira haren emaitza *Nömadak Tx* (2006) dokumental ederrean jaso zuten. Indian, Laponian, sahararren kanpamentuetan eta Mongolian ibili ziren orduan. Txalaparta lantzen jarraitu nahi zuten eta horretarako beste herrialde batzuetako musika, erritmoa, materialen sonoritatea eta tinbreak ezagutu eta esperimentatu nahi zuten. 1997a ezkero elkarrekin dihardute Harkaitz Martinez de San Vicentek eta Igor Otxoak.

Orain, bi urte kontzerturik eman barik egon ondoren, ikuskizun berritzailea dakarte. Estreinaldia joan den otsailaren 27an egin zuten Donostiako Victoria Eugenia antzokian. Oreka Tx taldeak gonbidatutako musikari eta lagunak izan zituen agertoki gainean: Mongoliatik, Ganzorig Nergui, Altai Hangai taldekoa, khoomi kantu armonikoa abestu eta Mongoliako Morin Khoor musika-tresna jotzen duena; abeslari berbere bat; eta azkenik, Aziza Brahim saharar abeslaria. Victoria Eugenian bildutakoak txundituta geratu ziren musikari guztiek eskainitako bidaia-kontzertuarekin. Izan ere, musika eta irudiak uztartzen dituen ikuskizuna da.


Domekako emanaldian zazpi musikari izango dira Amaiako agertokian. GOIENKARIA

Domekan, Arrasaten, Oreka Tx taldekoak bakarrik izango ditugu, gonbidatu barik, 19:30ean. Sarrerak 10 eurotan daude salgai.

**ZAZPI MUSIKARI**

Oreka TXk taldea handitu du ikuskizun horri begira. Martinez de San Vicenterekin eta Otxoarekin batera Mikel Ugarte txalapartan arituko da aurrerantzean. "Txalaparta birentzako tresna da, itxura batean, baina tarteka hirurak ariko gara", azaldu du Martinez de San Vicentek. Gutxienez, zazpi musikari izango dira agertokian, hala nola Iñigo Egia perkusioa jotzen, Juanjo Otxantorena bouzukia jotzen eta Ritxi Salaberria kontrabaxua eta baxua jotzen. Mixel Ducauk alboka, ttunttuna, saxofoi sopranoa eta klarinetea joko ditu. *Nömadak Tx* filmean Mikel Laboak parte hartu zuen, eta beti lagundu zion txalapartari bikoteari. Laboaren *Martxa baten lehen notak* joko dute, ziurrenik, domekan, omenaldi modura.

**ANTZERKIA** > ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN

# 'Tocata y fuga en fu renol' antzezlana gaur Elgetan

Burgosko Zanguango Teatroren lan horretan, bergizarteratze bidean dira San Dimas kartzelako presoak; emanaldia gaur Espaloian, 22:30ean

**E.M.** > BERGARA

Errehabilitazioa eta bergizarteratzea ukitzen ditu *Tocata y fuga en fu renol* gaur gauean Zanguengo Teatrok Elgetara ekarriko duen antzezlanak. San Dimas kartzelako presoak gizarteari egindako kalteak ordaindu eta bergizarteratze bidean dira, funtzionarioen begiradapean. Gizakiek duten erantzukizunaz ere jardungo dute Burgosko Zanguango Teatro taldeko kideek: nola egoera sozial, ekonomiko, politiko eta abarrekoek zer-nolako eragina duten... eta nola biktima eta borreroak izendatzen ditugun, besterik gabe. Antzerkia, zuzeneko musika, dantza, txotxongilo jolasak... nahasten dituzte "zapore oneko tragikomedia" horretan".

**AKTORE MULTZOA**

Ideia originala Miguel Muñozena da eta aktore lanetan Jorge Arche Fernandez, Raul Camuno, Helena Fernandez Moreno, Miguel Garces eta Begoña Martin Treviñok jardungo dute.

Ibilbide luzeko taldea da Zanguango. 1993an ekin zioten antzerkigintzari eta ordutik hona makina bat lan ekoiztu dute, kaleko ikuskizunak tartean. *La piedra de la paciencia*, *Pan con pan* (Max saria 2002an), *El cuarto tenor*, *Al fondo a la derecha*, *Pérez y Fernández* eta *El desahucio* (Valladoliden sarituA 2006an) dira haien lanetako batzuk.

Gaurko emanaldia 22:30ean da eta sarrerak 10 euroan izango dira salgai Espaloia Kafe Antzokian bertan.


Gaur Elgetan izango den antzezlaneko irudi bat. ZANGUENGO TEATRO

**MUNDUMIRA** > LAUGARREN EKITALDIA

# Macaco, Zura, Korrontzi Romina Goshtasbi eta 17 Hippies, Mundumiran

Maiatzaren 22tik 23ra ospatuko da Eskoriatzan eta etorriko diren musika taldeak aurreratu dituzte antolatzaileek

**E.M.** > BERGARA

Poliki-poliki antolatzaileak badoaz Mundumira jaialdiko egitaraua lotzen eta oraingo astean jakin dugu zein musika taldek hartuko duten parte maiatzaren 22tik 24ra ospatuko den jaialdian. Aurtengoa Mundumiraren laugarren ekitaldia izango da.

**TOKI ASKOTAKO DOINUAK**

Musikari dagokionez, honako hauek izango dira karteleko izarrak: Macaco (Katalunia), 17 Hippies (Alemania), Romina Goshtasbi (Iran) eta Korrontzi eta Zura (Euskal Herria).

Eskoriatzan joko duten beste taldeetako batzuk hauek izango dira: Mlomp (Senegal), Madera de Choro (Brasil), Bloque 53 (Venezuela), Candombe (Uruguai), La Fanfare P4 (Frantzia), Neila Benbey (Aljeria), Deschave (Argentina), Amama Luisa Brass Ban, Rude Kanka eta Iban Nikolai (Euskal Herria) eta Eskoriatzako Barua Banda.

Eskoriatzan ez da faltako kapoeira erakustaldirik, umeendako jolasik edo kirol jarduerarik. Antolatzaileek Aste Santuaren ostean emango dituzte xehetasun gehiago.



Aurtengo ekitaldiko kartela.

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**http://www.goiena.net/sailkatuak**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** 90 metroko etxea, 20 metroko terrazarekin. Eguzkitsua. Hiru logela, egongela handia, bi komun, sukaldea eta trastelekua. Garaje itxia. Jantzia. Bi urteko erabilera. Maria. 608 46 45 88.

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. 659 64 67 38.

### 102. EROSI

**Arrasate.** Etxebizitza erosiko genuke erdigunean edo inguruan. 69 eta 90 metro koadro artekoa. Garajea baldin badauka, hobeto. Prezioa etxearen egoeraren arabera adostuko genuke.Idatzi mezu bat konpuprest@gmail.com helbidera edo deitu 693 34 58 69 telefono zenbakira.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Bi logela eta egongela dituen etxebizitza ematen da errentan. 665 70 75 01.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Larrea plazan. 70 metro koadro. Bi logela, bi komun, egongela handia eta sukaldea. 656 75 00 94.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan erdialdean. 696 72 27 00.

**Bergara.** 80 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan Simon Arrieta plazan. Berogailuarekin. Jantzia. 664 73 49 60 edo 656 73 99 66.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aramaio.** Etxebizitza nahi dugu errentan. Bikote arduratsua. 615 73 79 11 edo 669 12 25 63.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan. 620 60 54 14.

**Arrasate.** Arrasatear batek logela bat ematen du errentan. 675 71 57 03.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Deitu 662 63 76 33 zenbakira.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan. Oso egoera onean. Telebistarekin. 696 53 36 44.

**Arrasate.** Malvinetan. Oso egoera onean dagoen etxebizitza batean pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. 616 05 97 92.

**Arrasate.** Pertsona batendako logela ematen da errentan. 636 91 93 81.

**Bergara.** Neska bat behar da Bergaran etxea osatzeko. 665 73 98 98.

**Bergara.** Pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. Deitu 628 45 10 37 telefonora.

**Donostia.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. Antiguan. Deitu 652 71 52 50 zenbakira.

**Oñati.** Gela ematen da errentan apiriletik aurrera. Deitu 617 14 39 41 telefonora.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** Garajea salgai Zurradero 4an. 699 75 52 21.

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Antzuola.** 80 metro koadroko lokala erdigunean. Egoera onean. Elikadurarako ezin hobea. Komunarekin. 6.000 euro eskualdatzeagatik eta 500 euro hilean. 600 03 86 80 edo 943 14 84 67.

## 4/ LANA

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke, goizez eta arratsaldez. Esperientzia daukat. Feli. 943 53 33 92.

**Arrasate,** Aramaio edo Aretxabaletan neska euskalduna gertu asteburuetan tabernan lan egiteko. 686 25 06 57.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu edozein lan egiteko. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakumezkoa edozein lan egiteko gertu, goizez edo arratsaldez. Dorisegatik galdetu. 943 77 02 14 edo 646 86 43 89.

**Arrasate.** Gizonezko gaztea gertu zerbitzari, garbiketa edo sukalde lanak egiteko, orduka edo jardun osora. 666 75 73 21.

**Bergara-Arrasate.** Neska euskalduna gertu garbiketa lanak egiteko eta umeak zaintzeko. 600 82 84 60.

**Bergara.** Bergarako emakume euskalduna lanerako gertu. Umeak zaintzen, etxeko lanetan edo garbiketan. Goizez. 665 70 03 74.

**Bergara.** Pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. Paperak ditut. 686 99 59 41.

**Bergara.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke 24 orduan. Era berean, etxeko lanak egingo nituzke. Esperientzia daukat. 606 05 07 93.

**Debagoiena.** Edozein lan egiteko gertu nago: garbiketak, nagusiak zaindu... Etxean bertan bizi izateko prest. Ana Luisa de los Santos. 943 25 07 53.

**Debagoiena.** Era guztietako jostun konponketak egiten ditut. 699 34 86 88.

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketa lanak egin, nagusiak zaindu edota tabernan lan egiteko. Alejandra. 608 34 36 11.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua edozein lan egiteko gertu: garbiketak, nagusiak edo umeak zaindu... Etxean bertan bizi izateko prest. 638 23 37 39.

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan lo egiten. Orduka ere lan egingo nuke. Erreferentziak. 628 40 58 27.

**Debagoiena.** Emakume euskalduna gertu edozein lan egiteko. Zerbitzari lanetan esperientzia daukat. 667 94 07 25.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egin eta ume zein helduak zaintzeko. 678 24 94 24.

**Debagoiena.** Emakumea gertu haurrak zaindu, etxeak garbitu eta adineko pertsonak zaintzeko gauez. Arrasaten, Aretxabaletan nahiz Eskoriatzan. Esperientziaduna. 618 00 08 28.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izateko prest nago. 606 64 16 09.

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. 649 70 51 74.

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. 667 20 56 29.

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. 680 67 74 96.

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Adinekoak zaintzen esperientziaduna. Etxean bizi izateko prest. 608 08 36 02.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Erreferentziak eta legezko paperak dauzkat. Etxean bertan bizi izaten ere lan egingo nuke. 686 52 15 98.

**Debagoiena.** Etxeko lanak egiten edo garbitzen arituko nintzateke. Socorro Mora. 627 14 63 79 edo 943 25 07 53.

**Debagoiena.** Garbiketa edo bestelako lanak egingo nituzke. 650 55 14 28 edo 627 10 98 43.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egiten edo ume zein nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia daukat. Ainhoa. 671 35 22 60.

**Debagoiena.** Garbiketak egin edo nagusiak zainduko nituzke, orduka. 679 06 12 99.

**Debagoiena.** Lan bila nabil. Garbiketa lanak egiteko, helduak edo umeak zaintzeko... 679 98 37 47.

**Debagoiena.** Langile gaztea naiz eta edozein jardueratan lan egiteko gertu nago. B gidabaimena daukat, eta auto propioa. Gonzalo. 696 48 42 50.

**Debagoiena.** Lehen mailako igeltseroa gertu sukalde edo komunak egiteko. Adreilu lanak, tabikeak egin, lurrak edo azulejuak ipini, eta abar. Autoa daukat. Legezko paperekin. 650 55 14 28 edo 627 10 98 43.

**Debagoiena.** Mutil gazte eta langilea gertu eraikuntza arloan lan egiteko. Esperientziaduna eta alikatatzaile aditua. 663 72 37 44.

**Debagoiena.** Mutil gaztea lan egiteko gertu. 647 25 04 61.

**Debagoiena.** Mutila edozein lanetan jarduteko gertu. 696 48 42 50.

**Debagoiena.** Mutila prest lanerako. Nekazaritzako lanak, pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. 650 96 23 08.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Esperientzia eta erreferentziak ditut. 627 21 08 93.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Etxean bertan bizi izateko gertu nago. 663 65 78 43.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzen, garbiketan edo sukaldean lan egingo nuke. Autoa daukat. 666 21 88 95.

**Debagoiena.** Pertsona nagusien zaintzan aditua eta esperientziadun neska lan bila dabil. Interesatuak idatzi helbide honetara *animilena1957@hotmail.com* edo deitu. 943 79 04 69.

**Debagoiena.** Sukaldaritzako lanak egiteko prest: sukaldari, laguntzaile edo zerbitzari. 646 25 59 19.

**Neska** euskalduna eta gaztea goizetan eta aste bukaeretan lan egiteko gertu. 697 41 66 24.

**Oñati.** Neska euskalduna prest uztailean umeak zaintzeko. Esperientziaduna. Deitu 651 70 85 13 zenbakira.

**Sukaldaria.** Bergarako mutil gaztea sukaldeko lanak egiteko gertu: erosketak egin, jana prestatu eta sukaldea batu. Galdetu Manurengatik. Deitu 610 80 07 39 telefonora.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Oñati.** Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak ematen dituen norbait behar dut. 635 70 91 12.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Arrasateko neska bat LH eta DBHko ikasleei eskolak emateko prest. 628 51 20 64.

**Arrasate.** Batxilergo, DBH eta LMHko ikasleei eskola partikularrak emateko gertu; bereziki, matematika, fisika, kimika, teknologia eta ingelesa. Ingeniaritza ikasita. 664 66 73 09.

**Arrasate.** Ingeniaritza ikaslea matematika, fisika, kimika, teknologia edota ingeleseko eskola partikularrak emateko gertu, batxilergo, DBH eta lehen hezkuntzarako. Koldo. 660 14 56 67.

**Arrasate.** Unibertsitateko ikasle euskalduna gertu astelehenetik eguenera eskola partikularrak emateko. 636 12 05 79.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Volkswagen Crafter** 2.500 TDI furgoneta. 136 ZP. 2006ko urrikoa. 45.000 km. Kristal-jasogailu elektrikoa, aire girotua, itxiera zentralizatua, trakzio kontrola eta 3,21 metro luzeko kaxoia. 14.000 euro. Deitu 620 62 83 41 telefono zenbakira.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Cocker ingelesa** salgai. Beltza. Emea. Txertoak jarrita dauzka. 200 euro. Deitu 618 00 08 28 telefonora.

**Setterrak.** Hilabete eta erdiko setter txakurkumeak salgai. Aita-ama ehiztariak. 80 euro. 649 33 38 01.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Agenda elektronikoa.** PDA, eskuko agenda elektronikoa salgai. WI-fia, bluetootha, GPSa... HP iPAQ 114 Classic Handheld. Berri-berria, zozketa batean irabazia dago, kaxatik atera gabe. 230 euro. 615 72 47 43.

**Altzariak.** Egoera onean dauden altzariak salgai. Prezio interesgarriak. Bi logela eta sofa berri-berria. Miren. 650 17 71 73.

**Bergara.** Bi logela eta sofa bat saltzea nahi dut. Miren. Deitu 650 17 71 73 telefonora.

**CPUa** salgai. 40 GBko FAT 32 disko gogorra, 128 MBko RAM memoria, Microsoft Windows 98, LG DVD_ROM, SONY CD-RW, teklatua eta sagua, Office instalatuta eta pantaila barik. Deitu 943 76 29 34 zenbakira.

**Dendarako altzariak** salgai. Esekitzekoak, manikiak, bustoak eta bitrinak. 627 96 19 22.

**Errepideko bizikleta.** Mendiz etxekoa. Ultegra osagaiak. Aurrealdeko urkila eta tija, karbonozkoak. 460 euro. Deitu 656 75 13 43 telefonora.

**Errepideko bizikleta** salgai. 54 neurrikoa. 628 00 76 62.

**Eskiak eta botak.** Eski alpetarrerako eskiak eta botak salgai. Eskiak: Dinastar 1,78 metro (60 euro) eta Head 1,70 metro (60 euro). Botak: 43 zenbakia (60 euro). 617 61 58 01.

**Lowepro CompuDaypack** motxila. Edukiera: reflex argazki kamera digitala, 2 edo 3 objektibo (tamainaren arabera), flash bat, 17 hazbeterainoko ordenagailu eramangarria. Deitu 667 95 73 16 telefonora.

**Nintendo Ds Lite** zuria. Jokoen kopiak erabiltzeko txipa, 2 GByte MicroSD (30 joko sartzen dira). 'Guitar Hero' jolas originalarekin. Funda, aurikularrak, garantia,... Nahi dituzun jokoak eta Interneteko wi-fia. 199 euro. *konpuprest@gmail.com*. 693 34 58 69.

**Ordenagailua.** Pentium 3. Windows 98. 256 MB RAM. Word, Excel, Access, Microsoft Publisher programak. Teklatua, sagua, CD irakurgailua, inprimagailua eta bozgorailuak. 150 euro. 666 24 86 40.

**Scalextric C4.** Oso gutxi erabilia. Prezio onean. Deitu 669 00 89 61 edo 686 81 03 23 telefono zenbakira.

**Snow taula.** Nitro Pro 59 etxekoa eta Drake fijazioak. 370 euro. 42.5-43 neurriko botak ere bai. 120 euro. Behin bakarrik erabiliak. 645 72 25 24.

### 802. EROSI

**Aretxabaleta, Eskoriatza edo Arrasate** inguruan lursaila erosi edo errentan hartuko nuke. Interesa izanez gero, deitu. Deitu 696 32 63 13 zenbakira.

**Lursaila.** Oñatin lursaila erosiko nuke. Deitu 656 79 88 12 telefono zenbakira.

### 803. EMAN

**Biberoiak** esterilizatzeko ontzia eta titietatik esnea ateratzeko aparailua opari egiten dira. Deitu 653 71 64 79 telefonora.

### 804. HARTU

**Altzari zahar** eta sofa bila joaten gara. Deitu 943 03 87 24 telefono zenbakira.

**Jaunartzea** egiteko mutilendako marinel jantzia hartuko nuke. Trukean, beste zerbait emateko prest nago. Aurten jaunartzea egiteko. Lurdes. Deitu 637 52 89 83 telefonora.

### 806. GALDU

**Bergara.** Betaurreko graduatuak galdu nituen aurreko eguenean, otsailaren 26an, herri erdian. Aurkitu badituzu, deitu, mesedez 685 70 85 87 telefono zenbakira.

**Eguzkitako betaurrekoak.** Martxoaren 20an, zapatuan, eguzkitako betaurreko graduatuak galdu nituen mendian, Besaiden. Aurkitu badituzu, deitu, mesedez 619 33 72 95 telefono zenbakira.

**Motxila.** Joan den asteartean, 17an, Arrasateko Munarreko parkean motxila galdu genuen, laranja kolorekoa eta loreduna. Barruan txankletak eta lepoko bat zeuden eta izena ipintzen du: Nahia I. Norbaitek aurkitu badu, deitu, mesedez. Deitu 619 87 57 48 telefonora.

### 807. AURKITU

**Bergara.** Otsail bukaeran Gabiria dorrearen inguruan zilarrezko erlojua aurkitu nuen. Galdu duenak dei dezala 943 76 26 82 telefonora.

**Txano buffa.** Aloña inguruan txano-buff grisa aurkitu dut. Galdu duenak dei dezala 670 61 77 27 zenbakira.

**Oñati.** Mexikar txanoa aurkitu nuen Oñatiko plaza inguruan Inauterietako martitzenean. Txanoan izena idatzia dago. Deitu 658 75 64 65 telefono zenbakira.

## 9/ HARREMANAK

### 901. AGURRAK

**Aurreko zapatuan** galdutako txaketa marroia ekarri zidan neska zoragarri aretxabaletarrari, eskerrik asko, bihotz-bihotzez.

### 904. BESTELAKOAK

**Arrasate-Gasteiz joan-etorria.** Egunero Arrasatetik Gasteizera joaten gara. 08:00etarako etortzen gara eta 17:00etan irten. Interesatuz gero deitu. Automobila banatzeko zerbitzua *www.compartir.org* webgunean edo 635 20 33 14 telefono zenbakira deituta.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 $m^2$, ondo.
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Matxiategi, 65 $m^2$, berritua eta aukera ona.
- Matxiategi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Artekale, 70 $m^2$, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 $m^2$, ondo, hortuarekin.
- Ibargarai 81 $m^2$, berria, eguzkitsua, garajearekin.
- Aranerreka, 87 $m^2$, oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Artzamendi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- San Lorentzo, 81 $m^2$, eraikuntza berria.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 $m^2$, berritzeko.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artzamendi 80 $m^2$, 2 terrazekin 60+30 $m^2$, eguzkitsua.
- Matxiategi, 73 $m^2$, berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 $m^2$, berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 $m^2$, oso ondo.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan eta Martokon.**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 $m^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Antigua 55 $m^2$, erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 $m^2$, ia berria.

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Matxiategi 82 $m^2$. Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 80 $m^2$. Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 $m^2$. Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 $m^2$. Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 $m^2$. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60$m^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- Aranerreka, 95 $m^2$, oso ondo.
- Masterreka. 46 $m^2$. Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 $m^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 $m^2$. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 $m^2$. Prezio ona.
- San Pedro 65 $m^2$. Ganbararekin.
- Osintxu 64 $m^2$. Berritua. 114.192 €.
- Zubiaurre 58 $m^2$. Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 $m^2$. Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 $m^2$. Oso ondo.
- Osintxu 62 $m^2$. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m2. Berritua.
- Zubiaurre 55 m2. Berritua. 114.192 €.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 $m^2$. Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 $m^2$. Berritua.
- San Roke 80 $m^2$. 80 $m^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 $m^2$. Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

## ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA
## Emakume Txokoko dinamizatzailea

**Oinarri-arauak:** BAZen, Maisu Arano 8, (goiz eta arratsaldez) eta *www.arrasate-mondragon.org* webgunean.

**Epea izena emateko:** martxoaren 21etik apirilaren 14ra arte (biak barne).

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Pertsonal Saila


ZABALIK
75 dendatik eta 200 produktutik gora.
merkatua.net Debagoieneko denda handiena. Etxetik bertatik eskura.
MERKATUA.net
Debagoieneko denda

**Izaskun Arrese** > Etxez-etxeko ile-apaintzailea

# "Berba asko egiten dut eta pertsona nagusiekin ondo konpontzen naiz"

"Badaezpada zerbait segurua eduki nahi nuen, eta baita gustukoa nuen hori egin ere", horregatik Arresek lehenengo marketina ikasi zuen eta gero ile-apaintzaile munduan sartu zen. Etxez-etxeko zerbitzua eskaintzen du: "Horretarako tresna guztiak nik eramaten ditut, eta horrela bezeroa ez da ezertaz arduratu behar", esan digu. Animaliak ere gustuko ditu.

**JASONE ZABALA** > BERGARA

**Izaskun Arrese bergararrak marketin ikasketak egin zituen, baina beti gustatu izan zaiona ile-apaintzaile lanetan ibiltzea da. Hainbat ile-apaindegitan lan egin ondoren, bere kontura Debagoiena osoan etxez-etxeko ile-apaintzaile zerbitzua eskaintzen du. Gurean modu horretan lan egiten dabiltzanak ez dira asko eta berarekin hitz egin dugu lanaz, zaletasunez eta baita ere etorkizunaz.**

**Enpresa Kudeaketa eta Marketina alde batera utzi zenituen ile-apaintzaile lanetan hasteko. Ederra aldea ezta?**

Ile-apaintzaile izatea beti izan dut gustuko, baina ikasketa hauek hasi baino lehen, beste ikasketa batzuk egin nahi izan nituen, eta horregatik aukeratu nuen marketina.

Badaezpada zerbait segurua eduki nahi nuen, eta gero gustukoa nuen hori egin, inoiz ez dakigulako nola aldatu daitekeen bizimodua, eta orain gauza nahiko gaizki dago.

**Gainera ile-apaintzaile famatu baten akademian ibili zinen, Llongueras. Ezagutu zenuen bera?**

Egia esan ez, baina badut gogoa egunen batean Bartzelonara joan eta bera ezagutzeko.

**Lehen azazkalak jaten zenituen; orain berriz, oso ondo zaintzen dituzu eta gainera, bai eskukoak eta baita oinetakoak ere margotu egiten dituzu! Nolako aldaketa ezta?**

Bueno…eskuko azazkalena, denboraldi bat izan zen, baina orain berriz jan egiten ditut; eta margotzea bai gustatzen zaizkit, oinetakoak uda partean.

**Baina ohiko ile-apaintzaileen moduan ez duzu ile-apaindegi batean lan egiten.**

Ile-apaindegitan egin izan dut lan, baina zerbitzu desberdin bat eskaintzea nahi nuen, gehien bat, pertsona nagusiei zuzendutako zerbitzu bat.

Egia esan, adin guztietako pertsonak dira nire bezeroak, eta oso gustura nabil. Autonomo bezala nabil, eta ni neu naiz nire negozioaren jabea; lehen ile-apaindegietan nenbilenean eskaintzen nituen zerbitzu berdinak eskaintzen ditut orain: orraztetik hasi eta permanenteak egiteraino. Horretarako tresna guztiak nik eramaten ditut, eta horrela bezeroa ez da ezertaz arduratu behar, eta ordutegi aldetik ere ez dago inongo arazorik, beharretara moldatzen bainaiz.










JASONE ZABALA

**PERTSONALA**

**Herria:** Bergarakoa izan arren Arrasaten bizi da. **Adina:** 24 urte. **Ikasketak:** Enpresa Kudeaketa eta Marketina, eta ile-apaintzailea. **Zaletasunak:** Lagunekin kafea hartzea, ilobarekin egotea eta argazkiak ateratzea. **Animaliarik gustukoena?** Zaldia. **Bidaiatzeko leku bat?** Londres. **Nor orraztuko zenuke?** Ilea orrazteko beharra duen edonor. **Musika talde bat?** Amaral. **Zer gorrotatzen duzu?** Handikeria eta faltsukeria. **Mania bat?** Behin baino gehiagotan begiratzea ea etxeko atea ondo itxi dudan.

**Norbera bere negozioko buru izatea ona edo txarra izaten da?**

Nire kasuan egia esan oraingoz ona izaten ari da; nahiz eta era honetan lanean denbora asko ez ibili, oso gustura nago lanarekin.

**Gainera esan didate emakume nagusiekin oso ondo konpontzen zarela; ilea mozten diezun bitartean kontu-kontari ibiltzen zaretela…**

Egia esan bai. Ni ere asko hitz egiteko pertsona naiz, eta jende nagusiarekin oso ondo konpontzen naiz, gainera beti zaindu behar da bezeroarenganako tratua, eta gauza askotaz enteratzen da bat horrelakoetan.

**Asteburutan ere egiten duzu lan? Bestela zer gustatzen zaizu egitea libre daukazunean?**

Asteburutan, zapaturo ez dut lana egiten, baina norbaitek zerbait berezia eduki ezkero (jaunartze, ezkontza, bataio,…) arazorik gabe egiten dut lan.

**Enteratu naiz animaliak ere asko gustatzen zaizkizula baina azken aldian ez daukazula zorte handirik …**

Animaliak asko gustatzen zaizkit bai; animali denak egia esan; txakurra izan nuen baina gaixotasun bategatik hil egin zitzaigun, eta oso gaizki pasa nuen.

**Etxetik etxera zoazen bitartean autoan musika doinuak daramatzazu.**

Alde batetik bestera joateko autoa behar dut, eta bidean, Euskadi Gaztea edukitzen dut beti martxan pixka bat entretenitzeko, eta noizean behin, Kerobia ere entzuten dut.

Normalean Bergaran, Osintxu auzoan eta Arrasate inguruan ibiltzen naiz, baina Debagoiena guztian eskaintzen dut nire zerbitzua; gainera, nik dakidala behintzat, etxez-etxeko ile-apaintzaile lanean Debagoien osoan bi pertsona bakarrik gabiltza.

**Amaitzeko, zer eskatzen diozu etorkizunari?**

Gaur egun entzuten diren gauzekin…

Oinarrizko bi gauzekin konformatzen naiz: lana izatea eta osasun ona edukitzea niretzat eta nire ingurukoendako.




Bihar hasiko da Huhezinema, film laburren eta dokumentalen II. jaialdia. GOIENKARIA

# Huhezinema saioak GOITBn astelehen eta martitzenean

Ikuslearen sarian parte har dezakezue, SMS bidez botoa emanez, 5767 zenbakira

**GOIENKARIA** > ARRASATE
Huhezik antolatutako *Huhezinema* lehiaketarekin bat egingo du Goiena Telebistak, lehiaketara aurkeztuko diren Huheziko ikasleek egindako lanak erakutsiz. Lan horiek ikusteko aukera datorren astelehenean eta martitzenean eskainiko du telebistak, Txomin Madinak aurkeztuko dituen saioetan. Hain justu, astelehenean, ikasleek ekoiztutako zazpi dokumental eskainiko dira eta martitzenean, berriz, ikasleek egindako fikziozko lanak. Dokumentalak Huheziko Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasketak egiten diharduten hirugarren mailako ikasleen eskutik etorriko dira eta fikziozkoak, berriz, laugarren mailakoen eskutik.

**GOITB, 'Huhezinema'**
> Astelehena, 23:00
> Martitzena, 23:00

## telebegi

**Aitor Arregi**
> 'aitor_arregi@huhezi.edu'

### Historia hurbila

Azkenaldian gauean telebista jartzen dudanean Espainiako gertuko historia erakusten duten mini serieak besterik ez ditut topatzen. Azkena aurreko egunean ikusi nuen, Marisolen biopic-a. Aurretik ETAk Espainiako erregea hiltzen saiatu zenekoa bota zuten.

Eta orain dela hilabete 23F-ko estatu kolpearen ingurukoa.

Nago hau AEBtatik inportaturiko formula dela. "Historia hurbileko gertakariak kontatu ditzagun". Ikusleak ezagutzen du argumentua, baina hala eta guztiz ere, nostalgiagatik edo eta istorioan bertan dauden hainbat elementu ezagunengatik, gustora ikusten du.

Etxean ere egin genezake horrelako zerbait, ala? Hemengo pertsonaia edo gertakari bat hartu eta horri zukua atera. *Braimstorming* bat egiteagatik: Uzkudun edo Oteizaren biopic-a, Sevillako Giraldillen asuntoa (ze ona izan zen hura!)…

# Korrikaren materiala eta masajea

**GOIENKARIA** > ARRASATE
Asteroko ohiko opariekin batera, oraingo honetan, Korrikaren astea dela-eta, irratiak ere parte hartu gura du eta entzuleen artean Korrikarekin lotutako materiala zozkatuko du: kamisetak, petoak eta beste.

Asteroko opariei dagokienez, berriz, Jose Luis Abuin masajistarengana joateko bonuak ere zozkatuko dituzte eta 3.60 aretora, besteak beste, Neallta Fola ikustera joateko sarrerak.

**'Igo autobusera' irratsaioa**
> Egubakoitza, 11:30etik 12:00etara



JOSETXO ARANTZABAL

## Arabako bertsolari txapelketako finalerdia GOITBn

Domekan jokatu zen Aramaion Arabako Bertsolari Txapelketako bigarren finalerdia. Oihane Pereak zuzenean eskuratu zuen finalerako txartela, eta beste finalisten izenak ere han erabaki ziren. Saio osoa emango du GOITBk asteburuan, eta bertso onenen aukeraketa bat eguaztenean.

**GOITB, 'Arabako txapelketa'** > Zapatua, 15:30 / domeka, 21:45

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Zaharrak Berri (pertsona nagusiendako)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com edo goiena.net* atarian, irratiko bloga)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## astea GOITBn

**Egubakoitza, 27**
**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ur eta lur.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Berbaire.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Jazz.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Euskal Herria lau haizetara.
**22:45** Musikantoi.
**13:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

**Zapatua, 28**
**08:00** Marrazki bizidunak.
**10:30** Trikitraka trikiton.
**11:30** Golb tb.
**12:00** Euskal herria lau haizetara.
**12:30** Ikusmira.
**13:00** Eltze beroa.
**14:30** Trikitraka trikitron.
**15:30** Arabako bertsolari txapelketa
**17:00** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:30** Solaskide.
**19:00** Erreportajea.
**19:30** Berbaire.
**20:30** Golb tb.
**21:00** Ikusten.
**21:30** Ilunpean.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Erreportajea.
**23:30** Musikantoi.
**00:00** Jazz.
**00:30** 28 klip.
**01:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 29**
**08:00** Trikitraka trikiton.
**09:00** Marrazki bizidunak.
**11:30** 28 klip.
**12:00** Arte irekia.
**12:30** Mugaz Kanpo.
**13:00** Erreportajea.
**13:45** Solaskide.
**14:15** Eltze beroa.
**15:15** Jazz.
**15:45** Marrazki bizidunak.
**18:15** Trikitraka trikiton.
**19:15** Erreportajea.
**19:45** Solaskide.
**20:15** Erreportajea.
**21:00** Wazemank.
**21:45** Arabako bertsolari txapelketa.
**23:15** Ilunpean.
**00:00** Itsasora begira.
**00:30** Emisio amaiera.

**Astelehena, 30**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Arte irekia: Joxan Aizpurua..
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Mugaz kanpo
**15:45** Erreportajea.
**16:15** 28 klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Wazemank
**18:15** Musikantoi
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Golb tb
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Huhezinema.
**00:00** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

**Martitzena, 31**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Ikusten.
**14:15** Eltze beroa: Txokolate bizkotxoa.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Huhezinema
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Erreportajea.
**18:05** Harmailatik.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Euskal Herria lau haizetara.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean: Katixa.
**23:00** Huhezinema.
**00:30** Goiena Magazinea.
**01:30** Emisio amaiera.

**Eguaztena, 1**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Ikusmira: Harrobia.
**14:15** Jazz
**14:45** Berriak.
**15:10** Huhezinema.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Solaskide.
**18:15** Ur eta lur: Ahoko tratamendua albaitariarekin.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Zaharrak berri.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Erreportajea: Arabako bertso txapelketa.
**23:00** Mugaz kanpo.
**23:15** Goiena Magazinea.
**00:15** Emisio amaiera.

**Eguena, 2**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Euskal herria lau haizetara.
**14:15** Estetika
**14:45** Berriak.
**15:15** Ikusmira.
**15:45** Mugaz kanpo.
**16:15** Zaharrak berri.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Musikantoi.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Berbaire.
**23:15** Erreportajea: San Franciscoko euskal festa.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

## herritarrak galdezka

### GIDABAIMENA GALDUZ GERO, ZER EGIN DEZAKEGU?

**Oñatiar baten mezua jaso dugu eta halaxe azaltzen du daukan kezka: "Duela bi egun gidabaimena galdu nuen eta jakin nahi dut ea zer egin behar dudan? Nora joan behar dut berria egitera? Zenbat denbora itxaron behar dut berria izan arte? Zenbat ordaindu behar dut? Isuna jar diezadakete gidabaimenik ez eramateagatik, nahiz eta galduta dudan?".**

Leniz autoeskolakoekin egon gara, eta bertako arduradunek hauxe azaldu digute: "Gidabaimena lapurtu edo galtzen bazaigu, egin behar dugun lehen gauza da Ertzaintzan salaketa jarri". Autoeskolatik adierazi digute jarraian gidabaimenaren kopia bat eskatu behar dela Probintziako Zirkulazioko Buruzagitzan (Donostia), ondorengo telefonora deituta: 943 45 20 00.

Gidabaimenaren kopia eskatzeko beharrezkoa da buruzagitzan ondorengo agiriak aurkeztea: gestorian emandako kopiaren eskaeraren inprimakia sinatuta; NAren fotokopia; formatu txikiko gidabaimena baldin bada, argazki bat erantsi behar zaio; azkenik, zirkulazio tasa ordaindu (18,80 euro). Ondoren, eskaria zuzenean zirkulazio bulegoan egiten bada, behin-behineko gidabaimena momentuan ematen dute. Gestoria baten bitartez eginez gero, hiru edo lau egunera bidaltzen dute.

Amaitzeko, gidabaimenaren kopiarik ez baldin badaukagu gurekin, ezin dugu gidatu, hutsegite arina egingo genukeelako; baina egoera horrek ez dakar puntu galerarik. Jarriko liguketen isuna 60 euro izango litzateke– 42 euro, 30 egun baino lehen ordainduz gero–. Aurrez azaldutako guztia autoeskola baten bidez ere egin daiteke.



Lurraldebuseko txartel berria ateratzera Arrasatera joan behar da. GOIENKARIA

### LURRALDEBUSEKO TXARTELA NON EGIN DAITEKE?

**Aretxabaletako irakurle batek oso haserre deitu digu Lurraldebuseko txartela dela-eta: "Txartela Aretxabaletako bi kioskotan atera zitekeen orain arte eta orain bi kioskoetako baten ere ezin da atera; eta txartela kargatzeko posta eta telegrafoen bulegora joan behar da. Jakin nahi dudana da nora zuzendu behar naizen txartela ateratzeko".**

Lurraldebuseko arduradunekin hitz egin dugu gai horren inguruan, eta bertatik adierazi digute egia dela dagoeneko Aretxabaletan ezin dela txartela atera, eta horretarako Arrasatera joan beharra dagoela; Aretxabaletan egin daitekeen bakarra –hori txartela dutenek egin dezakete bakarrik– txartelean dirua sartzea da; horretarako, posta eta telegrafoen bulegora joan behar dute. "Nahi duenak nork bere egunkari kioskoan edo estankoan jar dezake txartela egiteko aukera", esan digu Lurraldebuseko arduradunak.

Beraz, txartela egin nahi duenak Arrasatera joan beharko du; ondorengo tokietan atera daiteke txartela: Olarte kaleko Sagasta estankoan, Goi Eskola Politeknikoan, Zerkaosteta kaleko Alegria estankoan eta Kontzezino kaleko Valentin Arana estankoan.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitek arduratzen bazaitu eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, egiguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagokionarekin.
- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 28**
Hotza sartuko da eta euria ekarriko digu; tenperatura nabarmen jaitsiko da (maximoa 11 gradu) eta elurra egingo du goi eremuetan.



**Domeka, 29**
Euria egiten jarraituko du eta tenperatura berdin mantenduko da. Iparraldeko haizea ibiliko da eta goialdean elurra ere egingo du.

### EUSKAL HERRIAN

Euskal Herriko txoko guztietan aldatuko da eguraldia: euria egingo du eta tenperaturak behera egingo du. Aste hasieran, baina, tenperaturak gora egingo du eta eguzkia izango da.



### TENPERATURAK

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

**MINIMOA** Zapatua, 21 — **-2º C**

**MAXIMOA** Eguaztena, 18 — **27º C**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **1,6 L**

| | Max. ºC | Min. ºC | Euria l/m² |
|---|---|---|---|
| **Eguaztena, 18** | 27 | 2 | - |
| **Eguena, 19** | 24 | 2 | - |
| **Egubakoitza, 20** | 21 | 0 | - |
| **Zapatua, 21** | 15 | -2 | - |
| **Domeka, 22** | 16 | -2 | - |
| **Astelehena, 23** | 17 | -2 | - |
| **Martitzena, 24** | 11 | 1 | 1,6 |

## bono fotoa



**Argazkiko balkoitik Udalatx eta zerrajera zaharreko etxebizitza berriak ikusten dira. Arrasateko zein auzotik dago aterata argazkia?**

**Argazkia eta galdera** > Jose Felix Diaz de Tuesta

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
Bergarako **Itziar Ibarra**.
Zorionak!
**Erantzun zuzena:**
**Urrutxuko kanpusantuan**

Garmendia Ardoak
LARCHAGO
Garmendia Ardoek emandako
**Ardo botila packa***
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa 2008. / Larchago kriantza 2006. / Larchagoko Izarbe bereziki aukeratutako erreserba 2001.

**ERANTZUNA** ........................................
IZEN-DEITURAK ........................................
HERRIA ........................................ TELEFONOA ........................................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

## guardiako farmaziak

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 28 | Corcuera | Maisu Aranbarri | 943 79 22 26 |
| Domeka, 29 | Irizar | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| Astelehena, 30 | Amezua | Santa Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| Martitzena, 31 | Español | Araba Etorb., 14 | 943 77 18 65 |
| Eguaztena, 1 | Ruiz | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |
| Eguena, 2 | Etxeberria | Zarugalde, 42 | 943 77 16 30 |
| Egubakoitza, 3 | Azkoaga | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 28 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Domeka, 29 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Astelehena, 30 | Urrutikoetxea | Oxirondo plaza, 4 | 943 76 11 74 |
| Martitzena, 31 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Eguaztena, 1 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Eguena, 2 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Egubakoitza, 3 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 28 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Domeka, 29 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Astelehena, 30 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Martitzena, 31 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Eguaztena, 1 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Eguena, 2 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Egubakoitza, 3 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 28 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Domeka, 29 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Astelehena, 30 | Fraile | Herriko plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 31 | Fraile | Herriko plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 1 | Fraile | Herriko plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 2 | Fraile | Herriko plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 3 | Fraile | Herriko plaza, 10 | 943 79 21 99 |

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2009ko egutegia.
Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZa.

## hildakoak

- **Jose Luis Telleria Basterretxea.** Arrasaten, martxoaren 19an. 96 urte.
- **Leire Madinabeitia Zabala.** Arrasaten, martxoaren 21ean. 27 urte.
- **Santiago Anduaga Guridi.** Oñatin, martxoaren 22an. 82 urte.
- **Elena Mujika Larrea.** Bergaran, martxoaren 22an. 66 urte.
- **Paz Garcia Garatxana.** Aretxabaletan, martxoaren 22an. 87 urte.
- **Manuela Gomez Fernandez.** Arrasaten, martxoaren 23an. 83 urte.
- **Antonio Fernandez Juarez.** Arrasaten, martxoaren 24an. 79 urte.
- **Jose Luis Zabaleta Abetxuko.** Arrasaten, martxoaren 25ean. 76 urte.
- **Pedro Moran Gutierrez.** Arrasaten, martxoaren 25ean. 55 urte.

## ezkontzak



Oñatiko **Mireia Juaristi** eta Arrasateko **Oskar Orue** martxoaren 28an, zapatuan, ezkonduko dira Arantzazun. Bazkari ederra, musika alaia eta parranda bikaina giro ezin hobean. Zoriontsuak izan, bikote! Manex, Ekhine eta Amaiurren partetik.



Aretxabaletako **Jokin Zillaurren** eta Arrasateko **Nagore Iria** martxoaren 28an ezkonduko dira Aramaioko Barajuen auzoko elizan. Familiarteko ospakizuna egingo dute eta gero Alpeetara joango dira eskiatzera. Zorionak, bihotzez, etxekoen partetik!

MEZA

### Jesus Alberdi Garbizu

Egileor bertsolaria

2008ko martxoaren 2an hil zen, 77 urte zituela.



Bere aldeko meza domekan,
martxoaren 29an, 11:00etan,
Elosuko elizan ospatuko da.

Banan-banan eskertzea zaila zaigunez, hitz hauen bidez eskerrak ematen dizkizuegu mezatara joango zareten guztioi.

MEZA

### Martxel Alberdi Garbizu

2009ko otsailaren 11n hil zen, 84 urte zituela.



Bere aldeko meza domekan,
martxoaren 29an, 11:00etan,
Elosuko elizan ospatuko da.

Banan-banan eskertzea zaila zaigunez, hitz hauen bidez eskerrak ematen dizkizuegu mezatara joango zareten guztioi.

OROIGARRIA

### Leire Madinabeitia Zabala

*Orain arte, zure irribarrea*
*Beti izan dugu lagun.*
*Aurrerantzean, izarrak ikustean,*
*Zure irribarrea ikusiko dugu.*
*Eta izarrik ez dagoenean ere,*
*Gure bihotzean izango zara.*



Galtzagorri guztiok.
Arrasaten, 2009ko martxoaren 27an.

ESKER ONA

### Elena Mugica Larrea

Luis Aranaren alarguna

Donostian hil zen 2009ko martxoaren 22an, 66 urte zituela.



Agur-ekitaldira etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2009ko martxoaren 27an.

ESKER ONA

### Pepita Zabala Sasiain

Juan Larrañagaren alarguna

Bergaran hil zen 2009ko martxoaren 13an, 91 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2009ko martxoaren 27an.

OROIGARRIA

### Leire Madinabeitia Zabala

*Utzi pentsatzen berriz*
*elkartuko garela*
*iraganeko egunak*
*itzuli ahal direla*

*baratzeko larrosa*
*arima beltzarana*
*burua eta bihotza*
*ohostu zizkidana*



Koadrilakoak.
Arrasaten, 2009ko martxoaren 27an.

## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera:

**Arrasate**
Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05. / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05.

**Bergara**
Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.

**Oñati**
Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

**Aretxabaleta**
Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

**Aramaio**
Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

**Elgeta**
Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98

**Antzuola:**
Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 110 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **150** euro.

**ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedunak: 100 euro**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **140** euro.

**Goienkaria: astero, 39.000 irakurle. (CIES)**



ESKER ONA

### Leire Madinabeitia Zabala

Arrasaten hil zen 2009ko martxoaren 21ean, 27 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2009ko martxoaren 27an.

Babeslea:

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

**Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99**
**e-posta: euskalduna@harrespil.net**

# Martxoak 27-Apirilak 3

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 05** • Faxa: **943 25 05 13**

## Antzerkia



ELGETA
**> 'Tocata y fuga en fu renol' antzezlana gaur gauean Espaloian**
San Dimas kartzelako presoak egindako kalteak gizarteari ordaindu eta bergizarteratze bidean dira, funtzionarioen begiradapean. Haien istorioak kontatuko dizkigute gaur, egubakoitza, Espaloian, 22:30ean. Zanguango Teatrorekin.

## Musika



BERGARA
**> Aritzetaren 30. urteurreneko kontzertua zapatu iluntzean**
Bergarako Aritzeta abesbatzak 30. urteurrena ospatzen dihardu. Imanol Urtzelaik eta Larraitz Agirrek zuzenduta, *Verso el cielo*, *Izarapean, Aunitz urtez, Eres tú*... eskainiko dituzte bihar Mariaren Lagundiko elizan, 20:00etan.

## Musika



ARRASATE
**> 'Nömadak TX' pantailatik agertokira, domekan Amaia antzokian**
Beste hainbat musikariz lagunduta, Oreka TX taldeko txalapartariek kontzertu-bidaia ikusgarria egitera gonbidatzen gaituzte. Musika eta irudiak tartekatuz, mundu zabaleko doinuak ekarriko dituzte. Domekan, 19:30ean.

# Musika

ARRASATE
**> Fiachras, Black Lagun eta Los Galerna**
Lehen diskoko kantuak eskainiko ditu Fiachrasek.
Gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan, 22:30ean.

BERGARA
**> Los Viernes al Ron eta Azkaiter Pelox**
Bi bakarlari bergararren emanaldia.
Gaur, egubakoitza, Nahikarin, 22:30ean.

OÑATI
**> Ganbara txikiko taldeen udaberriko kontzertua**
Bost taldeek banaka abestuko dute, eta ondoren elkarrekin hiru abesti.
Bihar, zapatua, Santa Ana Antzokian, 19:00etan. Sarrera: 5 euro (helduak) eta 3 euro (gazteak).

ARRASATE
**> Enboskada taldearen agur jaia**
Hamaika urteko ibilbidearen ostean arrasatearrek azken kontzertua emango dute bihar.
Bihar, zapatua, 3.60 aretoan, 23:00ean.

# Antzerkia

ESKORIATZA, BERGARA
**> Angel magoaren emanaldiak aste bukaeran**
Umorez zipriztindutako trukuak egingo ditu Angel magoak.
Gaur, egubakoitza, Eskoriatzako unibertsitatean, 22:30ean; domekan, hilak 29, Angiozarko saloian, 18:00etan.

# Ipuinak

ARETXABALETA
**> Vanesa Gonzalezen ipuin kontaketa**
Bereziki umeei zuzendutako saioa.
Bihar, zapatua, liburutegian, 11:30ean. Sarrera doan.

# Proiekzioak

ARETXABALETA
**> 'Iran, topikoen aurkako bidaia'**
Martitzenean, hilak 31, Zaraia aretoan, 19:30ean.

# Erakusketak

BERGARA
**> Jose Luis Gonzalez Pazosen eskulturak**
*Zuria* izenburupean hainbat lan jarri ditu ikusgai.
Martxoaren 29ra arte. Martitzenetik egubakoitzera: 18:00-20:30; zapatuetan 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta domeketan: 12:00-14:00.

ARETXABALETA
**> Manolo Urtubiren argazkiak**
Guztira 25 argazki ipiniko ditu ikusgai Aretxabaletako argazki taldeko kideak.
Arkupen, apirilaren 20ra arte. Aste barruan: 11:00-13:00 eta 18:00-20:00. Zapatuetan: 11:00-13:00.

# Hitzaldiak

ESKORIATZA
**> 'La revolución cubana 50 años después' hitzaldia**
Gilberto Blanco eta Emilio Rodriguez Peñateren eskutik.
Martitzenean, hilak 31, kultura etxean, 19:00etan. Mundukidek, Huhezi-Lankik eta Eskoriatzako Udalak antolatuta.

BERGARA
**> '¿Atajos al desarrollo? Cooperación, control migratorio y revolución verde' hitzaldia**
Juan Rivero Madrilgo Unibertsitate Autonomoko kidearen eskutik. Afrikako gaietan aditua da Rivero.
Martitzenean, hilak 31, kultura etxean, 19:30ean.

# Ikastaroak

BERGARA
**> Tokitsu-Ryu eskolako tai-chia**
Oscar Gutierrez Espainiako zuzendari teknikoak zuzenduko du saioa.
Bihar, zapatua, Ipintza institutuan, 10:00etatik 13:00etara. Izenematea eta argibideak: 653 72 29 31.

ARETXABALETA
**> Pintura, zeramika eta eskulan ikastaroak**
Pintura, zeramika eta eskulan ikastaroak antolatu ditu Kultura Sailak.
Argibideak Arkupen: 943 08 10 01.

ARRASATE
**> Yoga eskolak Arrasaten, goizez eta arratsaldez**
Txindoki dorrean (Bañez Doktorea 1). Astelehen eta eguaztenetan 09:30etik 11:00etara eta martitzen eta eguenetan 19:00etatik 20:30era.
Argibideak eta informazioa: 635 71 06 16 (Maite) edo 943 78 31 26 (Ana).

ARETXABALETA
**> Dantza libre topaketak hilean behin**
Jaiki elkarteak dantza libre topaketak antolatu ditu. Isabel Altzola izango da irakaslea. Saio guztiak hilabetean behin, eguenean izango dira, 18:00etatik 20:30era.
Apirilaren 23an izango da hurrengo saioa. Izenematea 669 05 80 33 telefonoan edo *berenaiara@yahoo.es* helbidera idatzita.

ESKORIATZA
**> Gatazkak konpontzeko ikastaroa**
Gurasoei zuzendutako ikastaroa, apirilean eta maiatzean. Ikastaroa lau saiotan egingo da kultura etxean, eguenetan, 18:00etatik 19:30era. Maria Eugenia Ramosek, Gizagune fundazioko kideak, zuzenduko ditu saioak.
Matrikularen prezioa 10 eurokoa da. Izenematea Udaleko Gizarte Zerbitzuetan edo 943 71 31 36 telefonoan, martxoaren 27a baino lehen.

ESKORIATZA
**> Masaje bateratua, Jose Luis Armendiarekin**
Mendebaldeko masajea (lasaigarria-kiromasajea) eta ekialdekoa (digitopuntura-yoga pasiboa) bateratzea izango du helburu.
Apirilaren 23tik ekainaren 18ra, eguenero, 17:45etik 19:45era kultura etxean. Prezioa: 40 euro. Izena emateko azken eguna: apirilak 8.

BERGARA
**> Kultura Zerbitzuak hainbat ikastaro antolatu ditu**
Break dancea (apirila, maiatza eta ekaina; egubakoitzetan, 19:00-21:00); eskulanak eta larrua (apirila, maiatza eta ekaina); eguaztenetan 18:30-20:30); zeruko izarrak ezagutzen (apirilak 28 eta maiatzak 5; 19:00-21:00) eta sendabelarrak (maiatzeko eguenetan; 18:30-20:30).
Izena emateko epea martxoaren 28ra arte zabalik dago kultura etxean. Argibide gehiago 943 77 91 59 telefono zenbakian.

OÑATI
**> Txalaparta ikastaroa apiriletik aurrera**
Jose de Azpiazu Musika Eskolak txalaparta ikastaroa antolatu du. Ikastaroak bi hilabeteko iraupena dauka eta Xabier Arakama *Trikizio* izango da irakaslea.

PROPOSAMENA

BERGARA
**> Ama Say eta Yakuzi gaztetxean bihar**

Hamabi urteko isilaldiaren ondoren, agertokietara itzuli da Ama Say taldea. Pixies, Sonic Youth eta Charlattans taldeekin parekatu dituzte bilbotarrak askotan. Bi disko argitaratu zituzten aurreko etapan, biak ere Esan Ozenki zigiluarekin. Yakuziri dagokionez, hamar urteko ibilbidea dute elorriarrek. Hamar kantuko diskoa du kalean laukote bizkaitarrak: *Ibai lehorretan itota*.
Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean. Txapa Irratiak antolatuta.



Izenematea martxoaren30era arte dago zabalik. 14 urtetik gorakoentzat zuzenduta dago ikastaroa. Argibideak 943 78 31 74 telefono zenbakian.

ARRASATE

**> Biodantza ikastaroak**

Rakel Ampudia eta Carlos Orellana dira irakasleak.

Argibideak eta izenematea: *biodanza-vitoria@gmail.com* edo 679 495 836 telefono zenbakian.

# Lehiaketak

BERGARA

**> Mendekoste jaietako kartel lehiaketa**

Pazkoetako egitarauaren azala egiteko lehiaketa deitu du Bergarako Udaleko Kultura Sailak. Bergaran erroldatutako edozein pertsonak har dezake parte lehiaketan. Irabazleak 600 euro jasoko ditu.

Lanak entregatzeko epea apirilaren 28 arte dago zabalik. Argibideak Bergarako kultura etxean, 943 77 91 59 telefono zenbakian.

ESKORIATZA

**> III. Margo lehiaketa aire librean domekan**

Margo lehiaketa aire librean herria osoan zehar domekan, hilaren 29an. Sari banaketa 18:30ean Ibarraundi museoan.

Eskoriatzako Udalak eta Ibarraundi museoak antolatuta.

DEBAGOIENA

**> Ziberkomiki lehiaketa deitu du Diputazioak**

Aldundiko Euskara eta Kultura Sailak ziberkomikien eskola lehiaketa antolatu du. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako eta DBHko ikasleek har dezakete parte. Lan onenendako sari bikainak izango dira.

Lanak entregatzeko epea apirilaren 30era arte dago zabalik. Argibide gehiago *www.gipuzkoaeuskara.net/ziberkomikia* webgunean.

ARRASATE

**> Film labur lehiaketa deitu du Emakume Txokoak**

Arrasateko Emakume Txokoak film labur lehiaketa antolatu du. Emakumeengana-ko biolentzia da landu beharreko gaia. Iraupen mugatua izan beharko dute film laburrek. Lanak DVD euskarrian bakarrik aurkez daitezke eta bakarka zein taldeka parte hartu ahal izango da lehiaketan.

Lanak entregatzeko epea ekainaren 22ra arte izango da zabalik.Argibideak 943 79 41 39 telefono zenbakian.

DEBAGOIENA

**> Elkar argitaletxeak ipuin ilustrazio lehiaketa deitu du**

Hamar urte arteko haurrei zuzendutako lehiaketa da Elkarrek deitutakoa. Joxan Ormazabalen *Hitz eta zaunka* ipuin argitaragabea ilustratuz saria irabazteko aukera izango dute parte-hartzaileek.

Argibide gehiago Elkar liburu dendetan edo *www.elkar.com* webgunean jaso daitezke.

# Zinema



## The visitor ****

**Zuzendaria:** Tom McCarthy.
**Aktoreak:** Richard Jenkins, Haaz Sleiman, Hiam Abbass. AEB, 2007. 104 minutu.

Agian Tom McCarthy edo Richard Jenkins izenak ez dira ezagunegiak zineman; ez dira izarrak eta izenok entzutean ez gara zinemara korrika joaten euren lana ikustera, baina *The visitor* merezi duen filma da. Tom McCarthyren bigarren filma da, duela urte batzuk Zinemaldian *Vías cruzadas* aurkeztu ondoren. Orduan, hiru pertsonaiaren arteko laguntasun harremana kontatzen zuen; semea hil zitzaion emakume banandua, ipotx bat eta Kubatik etorritako gazte bat. Hirurak oso desberdinak; lehenengo biak isilagoak, eta itxiagoak. Kubatarra, berriz, oso berritsua eta zabala. Bada, *The visitor*-en halako zerbait kontatzen zaigu: alargun den unibertsitateko irakasle heldu batek Siriatik eta Senegaldik datorren bikote bat ezagutuko du, baita mutilaren ama, eta pertsonaia horiekin sortutako harremanen bitartez bizitzari buruz duen jarrera aldatu egingo da.

Ez zaigu istorio handi bat kontatzen; agertzen da etorkinek AEBetan bizi izateko jasaten dituzten trabak, immigrazio zerbitzuaren tratua, baina filma ez da galtzen, askotan gertatzen den moduan, salaketan; hau da, mezuak ez du istorioa irensten. Istorioak, bereziki, zera kontatzen digu: pertsona bat, beste batzuekin dituen harremanen bitartez, indarberritu egin daitekeela eta nola bizitzak babesteko sortutako *oskol emozionala* apurtu egin daitekeen. Istorioaren mamia laguntasuna da eta hori azaltzerakoan gaur egungo errealitatea ere erakusten digu.

*The visitor* honetan ez dira gauzak askorik apimarratzen, zuzendaria sentiberatasunez eta lasaitasunez, efektu kolperik erabili gabe, pertsonaiengana hurbiltzen da, eta haien gizatasuna ederki islatzea lortzen du. Lagunarteko tonua sortzen da filmaketan, eta hori horrela izateko zerikusi handia du aktore guztien lan bikainak; Richard Jenkinsen lana benetan aipagarria da.

**Antonio Zabala**

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**Revolutionary road**
Zapatua: 19:30.

**Barriola: San Adriango azeria**
Zapatua: 17:00.

**Reyita**
Eguena: 20:30.

### BERGARA

**ZABALOTEGI**

**Quemar después de leer**
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.

**Space chimps, misión espacial**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**GAZTETXEA**

**Requiem por un sueño**
Domeka: 18:00.

### OÑATI

**KULTURA ETXEA**

**Bienvenidos al norte**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Viaje al centro de la tierra**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Yo serví al rey de Inglaterra**
Eguena: 20:00

### ARETXABALETA

**ARKUPE**

**Gomorra**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

**El valiente Despereaux**
Domeka: 17:00.

### ARAMAIO

**KULTURA ETXEA**

**Mamma mia**
Egubakoitza: 22:15.

### EIBAR

**UNZAGA**

**Bienvenidos al norte**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehenetik eguaztenera: 19:30, 22:15.

### GASTEIZ

**GURIDI**

**Confesiones de una compradora compulsiva**
17:30, 20:00, 22:30.

**Street fighter: la leyenda**
20:15, 22:30 (egubakoitzean); 16:45, 18:45, 20:40, 22:30.

**Gran Torino**
17:30, 20:00, 22:30.

**Mentiras y gordas**
17:30, 20:00, 22:30.

**El curioso caso de Benjamin Button**
21:00.

**Más allá de los sueños**
16:45, 18:45 (zapatuan eta domekan).

**Un chihuahua en Beverly Hills**
16:45, 18:30 (zapatuan eta domekan).

**Cerezos en flor**
22:30 (egubakoitzean); 20:15, 22:30 (zapatuan eta domekan).

**Una pareja de tres**
20:15 (egubakoitzean); 17:30, 20:00, 22:30 (zapatuan eta domekan).

Egubakoitzetik domekara.

**FLORIDA-GURIDI**

**Los abrazos rotos**
17:30, 20:00, 22:30.

**Lejos de la tierra quemada**
17:30, 22:30.

**Capitán Abu Raed**
20:00.

**Animal Channel**
17:30, 19:00 (euskaraz).

**The visitor**
20:30, 22:30.

**La vida secreta de las abejas**
17:30, 20:00, 22:30.

**En el séptimo cielo**
18:00, 20:15, 22:30.

**Retorno a Hansala**
18:00, 20:15, 22:30.

**Slumdog millionaire**
18:00, 20:15, 22:30.

Egubakoitzetik domekara.

**YELMO-GORBEIA**

**Confesiones de una compradora compulsiva**
16:15 (zapatuan eta domekan), 18:20, 20:25, 22:30, 00:35.

**Mentiras y gordas**
16:15 (zapatuan eta domekan), 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

**Traidor**
16:00 (zapatuan eta domekan), 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

**Superpoli de centro comercial**
16:20 (zapatuan eta domekan), 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**Street fighter: la leyenda**
16:00 (zapatuan eta domekan), 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**Los abrazos rotos**
17:30, 19:55, 22:20, 00:45.

**Duplicity**
16:45 (zapatuan eta domekan), 19:30, 22:00, 00:30.

**Una pareja de tres**
15:40 (zapatuan eta domekan), 17:55, 20:10, 22:25, 00:40.

**Underworld: la rebelión de los licántropos**
17:45, 19:45, 21:45, 23:45.

**Gran Torino**
15:45 (zapatuan eta domekan), 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

**The code**
19:50, 21:50, 23:50.

**Watchmen**
20:30, 23:45.

**Slumdog millionaire**
15:30 (zapatuan eta domekan), 17:40, 19:55, 22:10, 00:25.

**La pantera rosa 2**
15:45 (zapatuan eta domekan).

**El curioso caso de Benjamin Button**
18:30, 21:30, 00:20.

**Un chihuahua en Beverly Hills**
16:30 (zapatuan eta domekan).

**Más allá de los sueños**
16:30 (zapatuan eta domekan), 18:30.

**Hotel para perros**
15:50 (zapatuan eta domekan), 17:50.

Gauerdiko emanaldiak egubakoitz eta zapatuan.

**ÁBACO BOULEVARD**

**Gran Torino**
15:50, 18:05, 20:25, 22:40, 01:00.

**Mentiras y gordas**
16:00, 18:10, 20:25, 22:40, 00:45.

**Slumdog millionaire**
15:50, 18:05, 20:25, 22:45.

**Hotel para perros**
16:10, 18:15, 20:00.

**Los abrazos rotos**
17:00, 19:45, 22:15, 00:45.

**Confesiones de una compradora...**
15:50, 18:00, 20:15, 22:35, 00:45.

**Duplicity**
17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

**La pantera rosa 2**
16:20, 18:20.

**Street fighter: la leyenda**
16:00, 18:05, 20:15, 22:20, 00:30.

**The code**
16:30, 19:00.

**Más allá de los sueños**
16:05, 18:15, 20:20, 22:30.

**Watchmen**
22:00.

**Lejos de la tierra quemada**
20:20, 22:35.

**Underworld: la rebelión de los licántropos**
20:25, 22:30, 00:30.

**Una pareja de tres**
15:50, 18:10, 20:30, 22:45, 01:00

Gauerdiko emanaldiak egubakoitz eta zapatuan.



**Revolutionary Road** ****
Zuzendaria: Sam Mendes.
AEB, 2008. 119 min.
50eko hamarkadan, Frank (Leonardo DiCaprio) eta April Wheeler (Kate Winslet) bikoteak amets eta itxaropen ugari dituzte. Bizilagunen aldean desberdinak direla pentsatzen dute, eta inguratzen dituen gizarte konformistatik aldendu nahi dute. Frankek gorrotatzen duen lan baten dabil eta Aprilek aktore izan nahi du Parisen. Gauzak korapilatzen joango zaizkie.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**El intercambio** ****
AEB, 2008. Zuzendaria: Clint Eastwood.
Los Angelesen, 1928an girotutako filma. Langileak nagusi diren auzo baten ezkongabeko ama batek, Christine Collinsek, 9 urteko semea agurtuko du zapatu goiz argitsu baten, lanera joan aurretik... Hortik aurrera erabat aldatuko da Christine Collinsen bizitza... Benetako gertakarietan oinarrituta.

**Camino** ****
Espainia, 2008. Zuzendaria: Javier Fesser.
Hutsak harrotu dituen filma. Benetako gertakizun baten oinarrituta, 11 urteko Camino izeneko neskatoaren istorioa kontatzen du. Hilzorian dago, eta maitemindu egiten da... Sei Goya sari eskuratu ditu Fesseren lanak.

**Slumdog millionaire** **
Erresuma Batua, 2008.
Zuzendaria: Danny Boyle.
Zortzi sari jaso ditu azken Oscarretan. Jamal Malik Bombayko nerabe pobre bat da. Telebista lehiaketa batean dirutza irabazi ostean, poliziak atxilotu egingo du, tranpak egin dituelakoan.

**El curioso caso de Benjamin Button** *****
AEB, 2008.
Zuzendaria: David Fincher. .
David Fincher zuzendariaren (*Zodiac*) azken lana Oscarretako galtzaileetako bat izan genuen, bigarren mailako hiru saririkin konformatu behar izan zen-eta. Benjamin Button (Brad Pitt) 80 urterekin jaioko da eta urteak atzetik aurrera beteko ditu, gaztetuz, zahartu beharrean.

**The reader**
AEB, 2009. Zuzendaria: Stephen Daldry.
Michael Berg 15 urteko gaztea gaixotu egingo da etxetik eskolarako bidean, eta Hanna Schmitz emakumeak jasoko du. Haien artean pasiozko harreman bat piztuko da, Hanna desagertzen den arte... Nazien eskuetan eroriko da Hanna. Oscar saria Kate Winslet protagonistarendako..

**Gran Torino** ****
AEB, 2009. Zuzendaria: Clint Eastwood.
Walt Kowalski Koreako gerrako soldadu ohi bat da. Egun batean deskubrituko du bere altxor preziatuena lapurtu nahi diola Asiako jatorriko bizilagun nerabe batek: 1972ko Gran Torino autoa. Arrazismoaren inguruko drama.

**nire aukera**



Asier Elortza
Belceblues musika taldeko kidea

## Musika eta kirola, ezinbestean

Asier Elortza musikari beteranoa dugu dagoeneko. 21 urte darama Bergarako Udal Musika Bandan tronpeta jotzen eta Orkestra Sinfonikoko kide ere bada hasieratik. Blues musika estiloaren jarraitzaile sutsua, Belceblues taldean ere badabil. Aste bukaeran Zaragozan eta Bartzelonan aurkeztu zuten *Infer* lehen diskoa.

Musikarekin eta kirolarekin lotutako asteburuak izaten dira Elortzarenak. Hura agertokian ez badago, beste talde batzuen emanaldietara joatea gogoko du. Aranzadi Ikastolan irakasle dihardu gimnasia eskolak ematen.

**Oraingo aste bukaeran musika hitzordurik ez?**
Ez, ez daukagu kontzerturik, eta, hasiera baten, ikusle moduan ere ez daukat hitzordurik... Datorren astean, berriz, kontzertu didaktikoak emango ditugu Tolosan, Gernikan eta Bergaran. DBHko ikasleei zuzendutakoak dira, bluesaren bilakaera zein izan den jakin dezaten. Gustura gabiltza taldekideok.

**Musika eta kirola dira zure zaletasun nagusiak, ala?**
Bai, zapatuan edo domekan Nagore bikotekidearekin mendira joateko asmoa dut, Aizkorrira edo Anbotora agian. Bi alaba dauzkagu (4 eta 2 urte egingo dituzte laster) eta haiekin ere askotan ateratzen gara bizikletan, trenbide aldera-edo, Bergara inguruan...

**Badaukazu kontzerturen bat ikusteko gogo berezirik?**
Eliades Ochoa Donostiara dator udaberrian eta badut joateko asmoa. Jackson Browne ere gustura ikusiko nuke... *Makro-festibalak* baino, nahiago ditut formatu txikikoak, musika arnas daitekeen horiek. Uda partean, Pirineos Sur jaialdiarekin ere izugarri gozatzen dut.

**Aste Santurako planik bai?**
Pirinioetara goaz, mendian ibiltzera eta han lasai egotera.

**Edu Mendibil**

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2009-03-27

# Aranzaditik lurra neurtzen

**ASTRONOMIA** Espainiako Estatuko 800 ikastetxek egin dute bat esperimentu horrekin, Astronomia Urtearen aitzakian

**ERASTOTENES** Lurraren perimetroa neurtu dute orain dela 2.200 urteko Erastotenesen proban oinarrituz

**ZABORRA BILTZEKOA** Neurketa egiteko erabili dute zaborra biltzekoaren makilak lurrean egindako itzala

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Espainiako Estatuko 800 eskolatan Astronomiaren Urtearen aitzakian proba berezia egin zuten eguenean: Erastotenesek orain dela 2.200 urte erabilitako metodoarekin lurraren perimetroa neurtzea. Esperimentu horrekin bat egin du Bergarako Aranzadi ikastetxeak ere. "Erastotenes Alejandrian bizi zen, Egipton, eta irakurri zuen Sienan ekainaren 21ean eguzkiak ez zuela itzalik egiten. Alejandrian itzala zegoela ikusi zuen. Horrek esan nahi du lurra borobila dela, eta itzalaren neurria jakinda atera daiteke zein neurritan dagoen kurbatuta lurra, eta Alejandria eta Siena arteko distantzia neurtuta hiruko erregela eginez lurraren perimetroa jakin daiteke", azaldu digu Manu Arregi irakasleak.

**MURTZIAKO MULA HERRIAREKIN**

Aranzadiko patioan neurketa egiteko zabor biltzaile bat eta errotulagailuak erabili dituzte. "Eguaztenean meridianoak kalkulatzen ibili ziren ikasleak, leku zehatz bateko ipar-hego marra. Eguenean neurtu zuten itzala, zaborra biltzekoaren makilaren altuera eta trigonometriarekin angelua kalkulatu".

Bergarakoek, zehatzagoa egin nahi zuten neurketa. "Murtziako Mula herriarekin harremanetan jarri gara datuak elkartrukatuz. Eguzkia ekialdetik irten eta mendebaletik sartzen da eta eguerdian hartzen du altuerarik handiena; eguzkiaren eguerdia 13:15 inguruan da; hortaz, altuera neurtu dugu hemen eta Murtzian, eta eurak gorago daudenez angelua handiagoa da; hori da Bergara eta Mula arteko angelua.Jakinda bi herrien arteko distantzia, hiruko erregela bidez jakin daiteke lurraren perimetroa, eta hortik erradioa", azaldu digu Arregik.

Datuak zentralera bidali, eta, gaurko, emaitza kalkulatzekoak ziren. "40.074 kilometrokoa da perimetroa eta gure kalkuluen emaitza 41.184 kilometro izan da. Espero genuen gerturatzea baina ez hainbeste: %2,9ko errorea baino ez dugu izan".



**NEURKETA** Manu Arregi irakaslea Aranzadiko patioan ikasleei neurketaren azalpenak emanez. IRATI AGIRREAZALDEGI

## ahobero

### "300.000 eurorekin krisiari errazago egiten diot aurre"

**Ivan Madrazo** > 'Gran Hermano' telebista saioko irabazlea

Aurpegia behar da gero dirutza hori poltsikoan izanik krisiaren gainean berba egiteko eta krisia pairatzen duten aldameneko lagunez gupidatzeko. Apur bat haiei ematea besterik ez luke denek krisiari aurre egiteko. *Diru asko mingainez, poltsan bapez,* dio esaerak, eta hari ere erraz joango zaio dirua ahotik.

## iturri onetik

### Mari Jose Sardon harri-jasotzailea, Bergarako udaltzain posturako hautatua

Bergarako Udalean 40 lagunek eman zuten izena udaltzain lanposturako eta hautaproben ostean, zazpi udaltzain hartu dituzte; tartean, Mari Jose Sardon harri-jasotzailea. Udaltzainok prestakuntza jasoko dute Arkauten eta gero proba-aldian izango dira Bergaran. Horren ostean ikusiko da gelditzen diren ala ez. Izan ere, azkenaldian toki aldaketa asko izan da udaltzainen artean.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Nire Debagoiena

Orain baino lehen ere esana dut: Ormaiztegin jaio eta Elorrion bizi naizen arren, debagoiendarra naiz. Bere akats guztiekin, harrapatuta nauka eskualde honen izaerak.

Aitortu behar dut, hala ere, ez direla nire itxaropen guztiak betetzen ari. Potentzialtasun izugarria ikusten diot Debagoienari, baina sarri nagusitzen dira ahuleziak eta ajeak, egingarri dirudiena ezinezko bihurtzeraino.

Une honetan bi zarata iristen zaizkit Kanpanzarren alde horretatik. Batek dio eskualdearen ideiak bultzada handia jaso lezakeela hurrengo urteetan, auto-eraketan oinarritutako asmo integral batekin. Besteak, aldiz, hainbat harreman usteltzen ari dela berez elkarlanean jardun beharko luketen erakunde eta eragileen artean. Zer nagusituko da?

## ai, ene!



### Botila-irekigailudun oinetakoa

Hondartzako tabernan botila bat erosi eta toailara joan orduko nola zabaldu ez dakigunerako, hona hemen asmakizuna.

www.intruso.info

IparProject
www.iparproject.com
Etxebizitzen ekipamendu integrala Merkatuen lehen markak
Mota askotako estiloak Gremioen koordinazioa

Telleria 23, D5 pabilioia Labegaraieta Industrialdea BERGARA Tel.: 943 76 98 30 Faxa: 943 76 52 44